

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Legazpi*



Aurkibidea

# Udalerria: Legazpi

## Sarrera



Gaur egun ofizialki a itsatsia galdua badu ere, historikoki Valle de Legazpia gisa izendatua izan da, haranaren itxura erabatekoa baitu. Bailara Aizkorri menditik Deskarga erreka bitartean hegoaldeko iparrera hedatzen da, bertan jaiotzen den Urola ibaiaren noranzkoari jarraiki. Hizkuntzari begira, erdialdeko hizkera da eta, nabarmen, hegoaldekoa edo Goierrikoa. Urretxu eta Zumarragako jatorrizko hizkerek baino, Legazpikoak antz handiagoa du Zegama, Zerain, Mutiloa edo Gabiriako hizkerekin. Mendebaldeko hizkerekin aldea nabarmena du.

- **Biztanleak:** 8.638
- **Euskaldunak:** %54,82

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **60**
- Zintak: **113**
- Pasarteak: **724**
- Transkribatutakoak: **43**
- Audioak: **30**
- Bideoak: **653**

## Proiektuak

- Aitor Azpiazuren fondoa
- Aitor Gurrutxagaren fondoa
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gure Nagusiak - Urola Garaia: Mende bat iruditan
- Legazpiko ahotsak

## Hizlariak

### Carmen Agirre

Brinkola auzoko Errementari baserrian jaio zen. Elkarrizketan, batez ere, gaztaroko kontuak aipatzen ditu.

### **Eugenio Agirre**

Olaberri baserrikoa da. Egun Legazpiko kalean bizi da. Etxeberria lantegian egin zuen lan hainbat urtez. Gizon ikasia da eta idaztea oso gustuko duena. Elkarriketa honetan Patrizio Etxeberria zaharra, aitaren jaiotetxea eta beste zenbait kontu ditu hizpide.

### **Antonio Agirre Irizar (1926)**

Legazpiko Egialde auzoko Ibarrola baserrian jaio zen 1926an. Aita Ibarrolakoa zuen, eta ama antzuolarra; bederatzi senidetan zazpigarrena da bera. Legazpiko eskola nazionalean hasi zen; baina, gerra hasi zenean, maistrak alde egin behar izan zuen, eta Antonio Zumarragara joan zen orduan ikastera. Umetatik baserriko bizimoduari oso lotua egon izan da, eta Arrola mendian artzain egoten zeneko kontuak kontaktzen ditu; baita baso lanean aritu zenekoa ere. Zapatagintza ikasi zuen Aldasororekin, eta gerora, bere denda ireki zuen. Patrizioren tailerrean eta zapatagintzan aritzen zen bizimodua aurrera ateratzeko. 30 urterekin ezkondu eta bi seme izan zituen.



### **Francisca Agirre Irizar (1922)**

1922an jaioa, Legazpiko Urtatza auzoko Ibarrola baserrian. Aita Ibarrolakoa eta ama Antzuolakoa zituen. Eskolan Legazpin ibili zen, plazako eskolan 7 urterekin hasi eta 13ra bitartean. Eskola amaitu ondoren, auzoko Urtazar baserrian aritu zen neskame-lanetan. Baserritik bizi izan da eta, astoa hartuta, kalera joan behar izaten zuen esne-saltzera. 16-17 urterekin, sukaldaritza-ikastaroak hartu zituen beste hainbat lagunekin batera, Legazpiko gozotegi batean. Patrizioreneko nagusien etxean neskame aritu zen, eta argazkiak errebelatzen nola laguntzen zion azaltzen du. Galtzak egiten esku ona izan du beti, eta etxean ez dago inor, dantzarako Frantziskak egindako galtzarik erabiltzen ez duenik. Urtatza Garaikoa baserrira ezkondu eta 10 seme-alaba izan zituen.



### **Genaro Agirre Mendizabal (1919-2016)**



Gabiriako Aztiri auzoko Etxetxo baserrian jaioa 1919an, 8 anai-arrebako sendia zuen; aita Lizardikoa zen eta ama Etxetxokoa, biak ere Aztiri auzokoak. 7tik 10 urtera bitartean ibili zen Aztiriko eskolan, eta geroago, 4 hilabetez Gabiriakoan. 16 urte zituela hasi zen gerra, eta orduko bizipenak kontatzen ditu. Patrizio Etxeberria aitaren laguna zen, eta haren lantokian sartu zen militarizatu eta gerratik salbatu nahian; baina, hala ere, instrukzioetan ibili zen Lizarra, Teruel, Katalunia eta Andaluzian, besteak beste.

### **Mikel Agirreburualde (1968)**

Legazpin jaio zen 1965. urte inguruan. Txirrindulari izandakoa, grabazioa egin zitzaionean suhiltzailea zen herrian bertan. Kontu horien gainean jardun zuen Haztegi Ikastolako ikasleek egindako elkarrizketan.

### **Angel Agirrezabal Ormazabal (1919-2007)**



Brinkola auzoan jaio zen eta hirugarrena zen bost anaien artean. Aita arotza zuen eta familiak taberna zuen. Inguruko baserrietako esnea ere bere familiak biltzen zuen. Horrez gain, batez ere, Brinkolako postari izan zelako ezagutzen zuten ingurukoek Angel.



### **Joxe Aldalur Zulaika (1921)**

Errezilgo Agerre baserrian jaio zen, Aiako herritik hurbil. "Basarri" bertsolaria lehengusu txikia zuen. 1950. urtean, Legazpiko Patricio Etxeberria lantegira joan zen lanera, eta harrezkero Legazpin bizi da.

### **Pedro Alustiza (1916)**

Legazpiko Aztiri auzoko Etxetxo baserrian jaio zen 1916an. Aitor Azpiazuk hainbat grabazio egin zion 2002-2004 urteetan.

### **Julian Arizmendi Zabaleta (1932)**

Legazpin jaio zen 1932an. Aita Legazpikoa bertakoa zuen eta ama Gabiriakoa. Plazako eskolan hasi zen ikasten, geroago orain ikastola dagoen lekuan, eta azkenik lanbide-eskolan ibili zen. Patrizio Etxeberriarenean egin zuen lan 27 urte zituen arte, orduan bere kontura jarri baitzuen lantegia.

### **Felisa Arrazola Isasmendi (1907)**

Araotzen jaioa, bi urterekin ekarri zuten Legazpira. Gazte-gaztetatik umezain eta neskame ibili zen, eta Patricio Etxeberria lantegian ere egin zuen lan hainbat urtez. Aizkorri kalean bizi izan da.

### **Secundino Arrizabalaga Murua (1930-2011)**



Aiztonabehekoa baserrian jaioa 1930ean. Aita mutiloarra zuen, eta ama Legazpikoa; 7 anai-arreba ziren sendian. Lehenengo, herriko eskolan ibili zen Legazpin; eta gerora, Patrizio Etxeberriak egin zuen fraide-eskolan ibili zen 2 urtez. 14 urte zituela hasi zen lanean Patriziorenean, eta hango lantegiko kontuez hitz egin zuen. Gerra ondorenean gose handia pasatako familia da Secundinorena.

### **Gabriela Azpeitia Alustiza (1911)**

Gabiriako Musakola baserrian jaioa, 8 anai-arreba ziren. Aitak eta anaiek Patrizio Etxeberriaren fabrikan jardun zuten lanean. Bera neskame egon zen Bilbon lau urtez. Gero farmazia batean ibili zen lanean eta horren ondoren Legazpiko familia batenera etorri zen lanera. Legazpira bertara ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituen.

### **Rosario Aztiria Plazaola (1939)**



Legazpiko Elbarrena auzoko Zalduberry etxean jaioa 1939an. Ama Maxakolako zuen, eta aita Bikiñatxikikoa; bost anai-arrebaren artean, bera da neska bakarra. Elbarrena auzoko soroak zeuden lurretan, Bellota lantegiak etxea egin zien lurren trukean. Zazpi urterekin hasi zen plazako eskolan ikasten. Umetatik ama gaixo ezagutu zuen, eta etxeke martxa eramatea berari suertatu zitzaion, etxeke denak mutilak izaki. Joskintza eta sukaldaritza ikastera joaten zen; izan ere, amak, bera faltako zenerako, Rosario ikasita utzi nahi zuen. Batxilerra ikasten hasi zen ama hil ostean, baina etxera bueltatu behar izan zuen hango eginkizunekin jarraitzeko. 32 urterekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan ditu.

### **Joakin Balerdi Arriaran**

Brinkola auzoko Uerkalde baserrian jaioa. Bere alabak elkarrizketa egin zion garai bateko kontuak jasotzeko: Brinkolako kontuak, euskararen gainekoak, animaliei buruzkoa eta abar.

### **Justa Beain Arrizabalaga (1939)**

Brinkolako Agirrezabal baserrian jaio zen 1929 urtean, hortaz, berak *"txikitan"* esaten duen kasuetan, Agirrezabal baserria izan behar da gogoan. Etxea eta eskola izan zituen ardatz haurtzaroan. Gero Patxinea ostatuan izan zen neskame bost urtez, 1944-1949 urteetan. Handik irten eta Olazar baserrira ezkondu zen Juan Ugalderekin, bost seme-alaba izanez. Harrezkero Olazar baserriko etxekeandrea izan da.

Aitor Azpiazuren *Gipuzkoako hegoaldeko euskara* liburutik jaso. Liburu bikain horren hiru informatzaileetariko bat izan zen Justa.

### **Eugenio Elorza**

Legazpiko kalekoa. Gipuzkera osotua eta landua erabiliz Legazpiko Oilar Jokoaren berri ematen du. Puldain alanbroaren gorabeherak ere kontatzen ditu. Elkarrizketa honen zati batzuk [Zingizango aldizkarian kaleratu ziren](#).

### **Maria Etxeberria Murgiondo (1921)**



1921ean jai zen Mutiloako meatzeetako langileentzat egindako etxean, "Troiko minetan". Ama Mutiloako Markaztegikoa zuen, eta aita legazpiarra; bost anai-arreba ziren familian. Aita Patrizio Etxeberriaren laguna zen; eta, hark lana eskainita, Legazpira joan ziren bizitzera "Konfiteronekoa" etxera, Mariak bi urte zituela. Eskolan, Legazpiko nazionaletan ibili zen zortzi urtetik 13 urtera bitartean. Josten ikasten ibili zen Bikuña kalean; eta gerora, ahizparekin eta koinata batekin etxean hasi zen jostelanean. 1938-40 urteetan, milizianoei trajeak josten aritu zen. Abaltzisketako gizonarekin ezkondu eta Legazpin jarri ziren bizitzen. Senarrak ardo-biltegia zuen eta Maria ere hantxe aritu zen lanean.

### **Felipe Etxeberria Telleria (1935)**



1935ean jaio zen Legazpiko Brinkola auzoko Ariztigoikoa baserrian. Aita bertakoa zuen, eta ama Mutilokoa; lau senidetan zaharrena da. Legazpiko Artzain Ona ikastetxean ibili zen. Legazpiko paper-lantegiko gerentea Feliperen aitaren lehengusua zen, eta bazkalostean haren etxera joaten zen terrenoak neurtzen ikastera. "Pintxe" lanpostua lortzeko aukera izan zuen paper-lantegian; baina aitak ez zion utzi, baserrian lagun ziezaion behar zuela-eta.

### **Pedro Gabiria**

Aztiria auzoan jaioa, Makatza baserrian.

### **Maria Pilar Galparsoro Andueza (1921-2012)**



Legazpiko Brinkola auzoan jaio zen 1921ean; eta eskolan han ibili bazen ere, umetan Azpeitira eraman zuten. Ama Pastaingoa zuen, eta aita Errotakoa; hiru ahizpa ziren sendian. Aita mikeletea zuen, eta zenbait herritako mikelete-etxeetan bizitzen egonak dira: Ilarrazuko mikelete-etxean, besteak beste. Urretxuko mojetan ibili zen eskolan. Oporrak igarotzera izebaren etxera joan ohi zen Pastainera; han izebak neskame-lana eskaini zion, eta jornalean aritu zen lanean. Telleriarteko Elorri errotan lanean aritua da, osaba-izeben etxean. Ezkondu eta Telleriarte auzoko Agerregoikoa baserrian jarri zen bizitzen, eta senarra eta biak joaten ziren esne-saltzera. Hiru seme-alaba izan zituzten.

### **Angela Galparsoro Larrea (1922)**



Legazpiko Elorregierrotan jaioa 1922an. Aita Elorri-Errotakoa zuen, eta ama zegamarra; 5 anai-arrebako sendia zuen. Eskolan, Telleriarte auzoan ibili zen 14 urtera arte, eta, ondoren, etxera bueltatu zen. Errotan bizi izan da beti, eta ederki azaltzen ditu hango langintza eta gerra garaiko erroten egoera. Elkarrizketan, bere senar [Joxe Mari Osa](#)rekin batera agertzen da.

### **Anixeta Gereñu Odria (1922-2019)**



1922an jaio zen Brinkolako Guriditegin, Liñapitxikiko kaxetan. Aita trenbideetako langilea zen eta horregatik bizi ziren kaxetan. Ama oñatiarra zen eta berak ere trenei seinaleak egiten lan egiten zuen. Anixeta 5 anai-arrebatan zaharrena zen. Eskolan Brinkolako Telleriarten eta ondoren Zumarragako mojetan ibili zen. 14 urte zituela, Nikasio Lasa harakinaren etxean hasi zen neskame lanetan. Neskametzak diru-iturri urria zuela-eta, lantegian hasi zen lanean, "Peinetería de Ubaldo Segura"n, hain zuzen. Bertan orraziak egiten ziren eta Anixetak orraziak egiteko plakak egiten zituen. Lantegiko nagusiak, Ubaldok, Anixeta eraman ohi zuen etxera neskame lanetara. 9 urtez aritu zen lantegi horretan lanean. 27 urterekin Arabako Salinas de Añanan jaiotako Julian Pinedorekin ezkondu zen eta 3 alaba izan zituzten.

### **Iñaxi Gereñu Odria (1928-2015)**



Brinkolako Guriditegiko kaxetan jaio zen 1928an. Aita trenbideetako langilea zen, eta hargatik bizi ziren kaxetan; ama ere trenei argi egiten aritu ohi zen. 7 urtera arte, Brinkolako eskolan ibili zen; eta geroago, Zumarragan. 14 urterekin hasi zen " Ubaldo Segura"ren orrazi-lantegian lanean, orraziak leuntzen eta garbitzen. Iñaxik lan egiten zuen orrazi-lantegiko sekzioak kiebra jo zuen, eta paper-lantegira joan zen lanera. Ezkondu ostean Zegaman jarri zen aurrena bizitzen; gerora, Legazpira joan ziren.

### **Tomas Gerra Etxeberria (1963)**

Telleriarte auzoko Errekaeta baserrian jaioa. Bere semeak elkarrizketa egin zion garai bateko kontuak jasotzeko.



### **Juanito Guridi (1930-2009)**

Juanito Guridi Legazpiko Mantxolaberri baserrian bizi da eta lehengo eta oraingo bizimoduaren aldeaz hitz egin zuen elkarrizketa honetan.

### **Felisa Guridi Agirrezabal (1928)**



Brinkolako Errautegi baserrian jaio zen 1928an. Ama, Klaudia, Telleriarte auzoko Araiztegikoa zen; eta aita, Marzelino, Errautegikoa; biak legazpiarrak ziren. Baserrian, 2 anai-arrebak, gurasoak, aitajauna eta amandrea bizi ziren. Eskolan Telleriarten, Brinkolan eta Zumarragako mojetan ibili zen, besteak beste. Esne-saltzaile ibilia da urte askoan.

### **Ines Ibagutxi Larrea (1924)**



Eibarren jaioa 1924an. Aita Bizkaiko Ubidekoa zuen, eta ama Legazpiko Sagastiberri baserrikoa. 4 anai-arrebatan bigarrena zen bera. Aita 3 urte zituela hil zitzaion; eta, ama alargun geratu zenez, Legazpira joan ziren bizitzera. 3 urterekin Legazpiko eskolan hasi zen; eta, 5 urte zituela, Eskola Nazionaletara pasa zuten, 14 urtera arte. Amak, alargundu zenean, Patrizio Etxeberriaren etxean eta lantokian egin zuen lan familia aurrera ateratzeko; Inesi ere ikasketa txukunak eman zizkion. Donostiako teresarretan magisteritza ikasi eta Legazpiko eskolan egin zituen irakasle-praktikak. Patrizio Etxeberriak Burgosen jarritako eskolan aritu zen irakasle-lanetan. 28 urterekin ezkondu zen Legazpin, eta 6 seme-alaba izan zituen.

### **Juanita Iñurritegi Errasti (1921-2018)**



Legazpiko Aztiriko Zabaleta baserrian jaioa 1921ean. Aita Brinkolako Zubiaurrekoa eta ama Gabiriako Legorburukoa zituen eta 10 senideetan zaharrena da. Eskolan Aztirin apaizarekin eta Telleriarten ibili zen. Baserriko bizimodua gertutik ezagutu zuen eta esnea saltzen ibiltzen zen. 12 urterako umezain hasi zen Biurrain baserrian. Zestoako bainuetxean senitartekoak zituen eta bertan aritu zen neskame, baita Donostiako mediku baten etxean ere. Gabiriako medikuak indizioak ematen erakutsi zion eta baserriz baserri ibili zen langintza horretan. Gerra garaian gorriei lagundu izana leporatu zioten (hala izan ez bazen ere) eta zigortu egin zuten.

### **Isabel Kerejeta Garmendia (1916)**



Legazpiko Elbarrena auzoko Goitegi baserrian jaio zen 1916ean. Aita Aratz Errekakoa zuen, eta ama Goitegikoa; bederatzi senide ziren familian. Haurra zela, bataioa jaso arte, Mendizabal baserrira eraman zuten han bularra eman ziezaioten. Eskolan Legazpin eta Zumarragako mojetan ibili zen; 14 urterekin utzi zuen. 18 urte zituela, gerratea gertutik ezagutu zuen. Legazpiko Olabarrira ezkondu zen; eta gerora, Urretxura joan ziren. Han Etxeberri jatetxean aritu zen neskame-lanetan. Esne-saltzaile ere aritua da.

### **Bizente Landa**

### **Joxe Landa Sarasola (1929)**

Legazpiko Bonifazio eta Gabiriako Santa Marinako Justaren semea, Legazpin jaio zen. 8 anai-arreba ziren. Gaztaro gogorra izan zuen, gerra garaian gosea eta lana baitziren nagusi baserrian. Eskolan Legazpin ibili zen, Señorita Pepita eta Maisu Don Juan irakasle zituela. Brigida Sastrerekin ezkondu zen. Legazpiko lehengo eta oraingo giroaz hitz egiten du.

### **Ramon Leizeaga Elizondo (1916-2012)**



1916an jaio zen Andoaingo Iztueta-Torre baserrian. Aita urnietarra zuen, eta ama Adunakoa. 6 urte zituela ekarri zuten Legazpiko Egialde auzora. 3 urte zituela hil zitzaion aita, eta 13 anai-arreba ziren sendian. 9 urterekin hasita, Oñatiko Sarramendi eskolan ibili zen, eta, 11 urterekin, eskola utzi eta basoan aritu zen lanean 15 urtera arte. 15 urterekin Patrizio Etxeberrian hasi zen lanean. Gerra garaian, etxetik ihes egin eta, azkenean, Donostiako diputazioan aritu zen guardiak egiten.

### **Pedro Madina Aiausti (1922-2017)**



1922an jaio zen Legazpiko Urtatza auzoko Urtatza baserrian. Aita Oñatin jaio bazen ere, Urtatza hazi zen; eta ama Oñatiko Ertzil baserrikoa zen. 6 urte zituela, ama hil zitzaion eta aita berriz ezkondu zen; bi ezkon-loturetatik 10 senide dira guztira. Eskolan, Legazpin eta Zumarragako Maristetan ibili zen. 12 urterekin utzi zuen eskola, eta aitari ikazkintzan laguntzen ibili zen. 14 urterekin, Patrizio Etxeberria lantegian hasi zen "pintxe" lanetan. Soldadutza Afrikan egin zuen, eta gerra garaia gertutik ezagutu zuen.

### **Dionixio Olabide**

Legazpiko Makaztegi Errotan jaio zen, gerora kalean bizi izan den arren. Elkarrizketa bere ilobak egin zion.

### **Luis Olabide**

Luis Olabide Mirandaola baserrikoa da, eta bertan bizi izan da beti. Ola zaharraren deskribapena egiten du, Motxorro inguruaren berri emanez.

### **Joxe Olabide Arruti**

Joxe Markaztegi errotan jaio zen eta bertan bizi da. Irakasle izandakoa da eta elkarrizketan Legazpiko egoera soziolinguistikoa aztertzen du; bizipen pertsonalari erreparatuz, aita zenaren kontuak darabiltza. Elkarrizketa alabak egin zion.

### **Elvira Olabide Irastorza (1928)**

Mirandaolako errotan jaio zen 1928an. Lau senideren artean, neska bakarra da bera. Ama Telleriarteko estankokoa zuen, eta aita Mirandaolako errotakoa. Amaren gaixotasuna zela-eta, 3 urtetatik Telleriarteko estankokoa bizi izan zen sendikoekin. Errota Patrizo Etxeberriak erosi zuen, eta aitonak Mirandaola baserria egin zuen. Errotan bizi ziren eta Zumarragako Basilio Fernandezentzat soilik ehotzen zuten irina. Telleriarteko eskolan ibili zen, harik eta 13 urte zituela Donostiako Teresianoetara joan zen arte. 22 urterekin, Zegamako Berasategi kirtendegian aritu zen lanean. 23 urterekin ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituen.



### **Nikolas Ormazabal Ormazabal (1926)**

1926ean jaio zen Legazpiko Telleriarte auzoko Astaola baserrian. Ama Astaolakoa zuen, eta aita Elortzanekoa; hiru anai-arreba ziren sendian. Eskolan, Telleriarten ibili zen zazpi urtera arte; eta, gerora, Brinkolan. Umetatik morroi joan zen izeba baten etxera, Aiako Altzola auzora. Azpeitiko Loiolan, jesuitetan ere morroi egona da. 13 urte zituela, osabarekin batera, okin-lanetan hasi zen Zumarragan. 29 urterekin, Zelanda baserrira ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituen.



### **Joxe Maria Osa Larrea (1923)**



1923an jaio zen Mutrikun. Gurasoak bertakoak zituen eta 12 anai-arrebek osatzen zuten sendia. Ibiri bailarako Mote baserrian bizi zen aiton-amonekin. Eskolan Mutrikun ibili zen, eta, 15 urterako, morroi-lanetan hasi zen. Soldadu artillero ibili zen Castro Urdiales eta Lesakan, besteak beste. 24 urterekin, Legazpiko Telleriarteko Elorrierrotara ezkondu, eta Patrizio Etxeberriaren lantegian ibili zen lanean Legazpin. Errotako berri azaltzen digu. Elkarrizketan, bere emazte [Angela Galparsoroekin](#) batera azaltzen da.

### **Asun San Miguel Zabaleta**

Antzinako bizimoduaren inguruko kontuak kontatzen ditu.

### **Rosario Telleria Landa (1930-2015)**



Legazpiko San Inazio kaleko Muru-Azpikoa baserrian jaio zen 1930ean. Sei anai-arrebatan gazteena da bera. Eskolan Legazpin ibili zen, eta ez du oroitzapen onik garai haietan bizitakoen gainean. Esne-saltzera kalera joan ohi zen etxez etxe; eta baserrian behizain eta artzain aritu behar izaten zuen, besteak beste. Elkarrizketan, elizako kontu ugari kontatzen dizkigu. Gaztetan, baten bat hiltzen zenean, etxez etxe arrosarioa errezatzen aritzen zen.

### **Juan Ugalde Alustiza (1918-2004)**

Brinkolako Olazar baserrian jaioa. Eskola eta baserriko lanak uztartu zituen haurtzaroan. Gerra hasi aurrean, Iturbeltzetik Legazpira ura ekartzeko lanetan jardun zuen. Gerrako lehen egunetan Arranoaitzen egon zen beste batzuekin egun batzutan, Zegaman zeuden frankistei aurre egin nahian-edo. Segituan sartu zen Patrizio Etxeberriaren eta bertan aritu zen lanetik lizentziatu arte, 1983 urtean. Harrezkero baserrian egon izan zen, 2004 urtean hil arte.

Aitor Azpiazuren *Gipuzkoako hegoaldeko euskara* liburutik jaso. Liburu bikain horren hiru informatzaileetariko bat izan zen Juan.

### **Maria Ugalde Alustiza (1916-2008)**

Brinkolako Olazar baserrian jaioa. Eskola eta baserriko lanak izan zituen haurtzaroan. 1928 urtean Legazpiko Sarasola etxera joan zen neskame lanak egitera eta bertan hainbat urtean izan zen, 1939an Tomas Aseginolazarekin ezkondu zen arte. Orduan jarri zen bizitzen Aiztonaberri etxean, kalean bertan. Lau seme-alaba izan ditu eta 2008an hil zen.

Aitor Azpiauren *Gipuzkoako hegoaldeko euskara* liburutik jasoa. Liburu bikain horren hiru informatzaileetariko bat izan zen Maria.

### **Martin Ugarte Azurmendi Saletxe (1916-1996)**



Saletxe baserrian jaio eta bizi izan zen (Telleriarte auzoan). Gaztetan artzain ibili zen aitarekin batera, eta, hamazazpi urte zituela, Legazpiko "Patrizio Etxeberria" lantegian sartu eta han egin zuen lan berrogei bat urtez. 1972an "On egiñaren obaria" izeneko eleberria argitaratu zuen. Olerti eta Zeruko Argia aldizkarietan argitaratu zituen bere olerki eta idazlan gehienak. 1993an "Legazpi barrutiko itzen bilduma" argitaratu zuen, herriko hizkera, hiztegia eta adizkera biltzen dituena. Grabazio honetan Bizente Landa (1932) ere azaltzen da.

### **Kludia Ugarte Vicuña (1913-2015)**



Oñatiko Olabarrieta auzoko Kortaberri baserrian jaio zen 1914an. lau anai-arrebako sendian gazteena zen. Baserriko bizimodua ezagutu izan du beti, eta umetatik artzain ibilia da. 7 urterekin hasi eta Oñatiko Ospitaleko eskolan ibili zen 14 urtera arte. Eskola garaian laborea ikasten zuen mojekin arratsaldetan. Eskola utzi ondoren, baserriko lanetan jarraitu zuen. 18 urte zituela, etxeko errenta garestitu, eta halabeharrez Brinkolako Eguzkitza baserrira joan ziren bizitzera. 28 urterekin hasita, Brinkolako sakristaua izan zen 47 urtez.

### **Silbestra Urzelai**

Errementari baserrian jaio zen, Legazpiko kalean bertan. Goenaga baserrira ezkondu zen eta hantxe bizi izan zen. Gazte garaiko kontuak darabiltza elkarrizketan, batez ere 1917 inguruan Legazpin izandako uholde bortitz bat. Grabazio honen laburpena [Zingizango aldizkarian argitaratu zen](#).

### **Rafael Urzelai Gabiria (1927-2011)**



1927an jaio zen Legazpiko udaletxean; 9 senide dira familian, eta guztiak udaletxean jaioak dira. Udaletxea enkantean atera zen, eta aitonak eta gurasoek hartu zuten; gerora, Kontsejupea izenez egin zen ezagun taberna. Aitak ile-apaindegia eduki zuen udaletxean bertan. Gerra hasi zen urtean, Kontsejupe taberna ez zen enkantean atera; orduan, Rafael eta etxeokoa Santa Kruzera joan ziren bizitzera. Eskolan, udaletxean ibili zen; gerratean, maisuek ihes egin zuten eta Zumarragako Hermanoetara joan zen; gerora, gau-eskolan ibili zen. 14 urterekin, zapatagintza ikasten hasi zen osabarekin Legazpin. 17 urte zituenerako, lanbidea ikasia zeukan: Bergaran tailer batean eta Donostiako ikastetxe batean ikasi zuen.

### **Juan Urzelai Zabaleta (1917-2012)**



Legazpiko Telleriarte auzoko Santu-Enea baserrian jaio zen 1917an. Aita bertakoa zuen, eta ama Aztiriko Bentakoa; sei anai-arrebatan gazteena da bera. Eskolan Legazpin ibili zen, eta 12 urterako hasi zen "pintxe" lanetan, Elortza paper-lantegian. Gerra garaian Lesakara joan zen soldadu disziplinario moduan, eta zigortu egin zuten "orden público"an lan egiteagatik. Gernikako bonbardaketa bertatik ikusi zuen, eta mendira ihes egin behar izan zuen; orduko bizipenak azaltzen ditu.

### **Jesusa Zabala Aramendi (1923-2013)**



Legazpiko Korta auzoko Zaldutxiki baserrian jaio zen 1923an. Ama bertakoa zuen, eta aita Agiñakoa; lau anai-arrebaren artean, hirugarrena da bera. Umetatik hasi zen baserriko lanetan; eta, goizero, eskola aurretik, esne-saltzera joaten zen Elortza jauregira. Eskolan Legazpin ibili zen. Elortza paper-lantegian aritu zen lanean, eta hango kontuak kontatzen ditu, besteak-beste. Korta azpikoa baserrira ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituen.

### **Luxiano Zabaleta (1930)**

Legazpiko Egizabal baserrian jaio zen 1930. urte inguruan eta hantxe bizi izan da beti. Legazpiko Haztegi Ikastolako ikasle batek bideo-grabazioa egin zion eta elkarrizketan garai bateko baserriko eta basoko kontuak darabiltza.

### **Bittori Zabaleta Arrazola (1933)**

### **Julian Zabaleta Kortaberria (1937-2019)**



Legazpiko Olaetxe baserrian jaio zen 1937an. Legazpiko eskolan, eskola txikian eta fraideetan ikasi zuen; gerora, Antzuolako fraideetara joan zen 16 urtera arte. 16 urte zituela, etxera bueltatu zen, eta teilerian hasi zen lanean. Teileria saldu zenean Patrizionera joan zen lanera.

### **Rosario Zabaleta Kortaberria (1929-2021)**



1929an jaio zen Legazpiko Olaetxe baserrian. Aita legazpiarra zuen, eta ama Antzuolakoa; 13 anai-arreba ziren sendian. Eskolan Legazpin ibili zen 14 urtera arte. Osasun-arazoak zituela-eta, Donostian egon beharra suertatu zitzaion. Legazpin, fraideen etxean, josten ibili zen; eta, gerora, Teileriko bulegoan aritu zen lanean.

### **Julio Zabaleta Yarza (1933-2012)**



1933an jaio zen Legazpiko Egialde auzoko Eguzkitza baserrian. Betidanik baserriko bizimodua ezagutu izan du: ardiak eta behiak zituzten etxean; eta, artaldea hartuta, artzain ibili ohi zen. Legazpiko eskolan nazionalean ibili zen aurrena, eta La Sallen gero. Mendian egur-lanetan ibili bazen ere, baserriari lotuta egon izan da beti. Eguzkitza baserrian bildu ohi ziren auzoko denak lagunartean, eta ohitura hori mantendu egin da.

### **Natividad Zabaleta Yarza (1936)**



Legazpiko Egialde auzoko Eguzkitza baserrian jaio zen 1936an. Eskolan Legazpin ibili zen 14 urtera arte; eta, gerora, josten ikasten aritu zen Eskolastikarekin Legazpin bertan. Baserrian bizi izan da beti eta artzaintza gertutik ezagutu izan du.

### **Paxkual Zabaleta Zabaleta (1934-2013)**



1934an jaio zen Brinkolako Garroetxeberri baserrian. Ama Telleriarteko Biurrainbekoa baserrikoa eta aita Garroetxeberri bertakoa zituen. Eskolan Brinkolan ibili zen 6 urterekin hasita eta ondoren Legazpiko eskolara pasa zen. 18 urterekin antzerkigintzan hasi zen Brinkolako taldean. Zenbait antzerki jendaurrean antzestu ere egin zituen eta horietako bat errexitatu ere egiten du elkarrizketan. Baserriko bizimoduari oso lotua egon da beti eta umetatik eguraldi kontuei arretoa berezia jarri izan die.

### **Rogelia Zubia Larrea (1907)**

1907an jaio zen Oñatiko Araotz auzoko Lopena baserrian. Aita Lopenakoa eta ama Urruzolakoa zituen eta 9 anai-arreba ziren sendian. 17 urterekin Legazpiko Aztiri auzoko Zabaleta baserrira joan zen neskame eta bertako gizonarekin ezkondu zen. 13 seme-alaba izan zituen

### **Anita Zumarraga (1918-1994)**

Jaiotzaz gabiriarra, Gabiriako Irazola baserrian jaio zen. Hala ere, Irazola Legazpiko mugan dago, Gabiriako herritik urruti. Gazte zela, familia osoa Bikuña Txiki baserrira joan zen bizitzera (Legazpi). Ezkondu ere Legazpira egin zen eta Legazpiko hizkera darabil. Elkarrizketa bere ahizparekin batera egin zitzaion, Maria Zumarragarekin. Ama zenaren kontuak darabiltzate, Salbatoren neskame izan zenekoa (XIX. mendeko kontuak). Pasadizo bizi eta umoretsuak.

### **Maria Zumarraga (-1994)**

Jaiotzaz gabiriarra, Gabiriako Irazola baserrian jaio zen. Hala ere, Irazola Legazpiko mugan dago, Gabiriako herritik urruti. Gazte zela, familia osoa Bikuña Txiki baserrira joan zen bizitzera (Legazpi). Ezkondu ere Legazpira egin zen eta Legazpiko hizkera darabil. Elkarrizketa bere ahizparekin batera egin zitzaion, Anita Zumarraga. Ama zenaren kontuak darabiltzate, Salbatoren neskame izan zenekoa (XIX. mendeko kontuak). Pasadizo bizi eta umoretsuak.

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### **1. Familia eta harremanak**

#### **1.1. Aurkezpena**

- **Hizlaria(k)**: Olabide, Dionixio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Solana, Eneko
- **Erref**: LGA-014/001
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:13
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Gurrutxaga, Aitor
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Bere burua aurkezten du: Legazpin jaio zen 1930ean. Zertan eta norekin jolasten zuen azaltzen du. Baserri batean jaio zen, eta errota zeukaten. Baserria harrizkoa eta egurrezkoa zen. Eskolara gutxi joan zen.



### Transkripzioa

Ni Dionisio Olabide Irastorza naiz. Milla bederatzirehun ta hogeita hamarran jaioa. Jaio nitzen Leazpiñ, Markazteiko errotan. Nire jolaslekue zan txorik harrapatzea tiragomakin, ta gero kolejion, hemen Buen Pastorren, Buen Pastor zan ordun, hor ibiltze giñen, pidolamide, korrika, sokatiran, ta danea hola pixkat. Ni jaiotako tokia zan baserri bat. Genduken errota, errota, errotea. Oin olea zeon lekun zan, genduken errota. Nola zeon einda baserrie? Baserrie, ba, harriekin ta egurrakin. Lana ugari eukitzen gendun guk baserrin, ta eskola gutxi; horregatik gare oin garen bezela.

### 1.2. Legazpiko kaleko giroa

- **Hizlaria(k):** Urzelai, Silbestra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Armendariz, Axun
- **Erref:** LGA-018/012
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:17:40
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Herriko giroa
- **Laburpena:** Legazpiko kaleko giroa.

### Transkripzioa

Jesus! Legazpiko kalea. Zer zan ba ordun Legazpi? Bost neska komonio haundie eiteko, mutillek beste hainbeste. Ordun bizi giñen gu hobetogo, trankillago. Ttunttune Roke zanak, ttunttune jotzen. Ordun bezperatati irtenda; noiz irtete gendun bezperatati ´re? Gero ondoren esplikaziok o zerbait eiten tziuen abadek eta hantxe danok kantun einda, kantatuz hantxe gere denbora. Gero irten ta Olaldea (Olabarrialde?) o Motxorroiño, hantxen bueltau ta plaza, neska ta mutil dantzan; Prazaolako Iñixi zana ta Xeundo zana, Juanita Aseginolaza zana ta Xaturnino, zea, Xumarranekoa esaten gendiun, oin Zumarran bizi da bea, ta neska-motillek dantzan.

Kanpai haundie, Abe Marikoa, jotzen zonen bueltan iten gendun korron pasakallea eta bakoitze bere etxea "ondo lo iñ" esanda; saltoka etxea. Orduko kontuik ez dao oin. Gero holaxe juntatzen giñen batzutan. Kalerako andrak, berriz, bazkaldu ta ontzik jasotzen iñungo asti be. Danak eraman eta gurdin gaiñen jantzi eta Txoko Zarreko ate aurea batzuk; besta batzuk Sarasolaneko dendan aurea, kale erdin bizi zienak eta besta batzuk etoriz. Xeuraneko etxe hortan beste etxe zar bat zan, eta han ez dakit zer zan hura, ezkondu eio neskazarra zan, harek ibiltzen zittun kartak. Askotan egualdi txarra bazeon hautz kartata jutun giñen neska kuadrillea, gendenak. Baiño oain ez dao holako unioik, gutxigoik ´e.

### 1.3. Eibartik Legazpira joan zirenekoa

- **Hizlaria(k):** Ibartutxi Larrea , Ines
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-039/003
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:03:59. **Bukatu:** 00:05:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna
- **Laburpena:** Eibartik Legazpira etorri zirenean, Inesek 3 urte zeuzkan. Izan ere, alargun geratu zen ama, eta jaiotetxera etortzea erabaki zuen orduan.

### **Transkripzioa**

-Zu Eibartik Legazpira zenbat urte zittuzula etorri zinen?

-Oin esango dizut ondo. Nere ahizpa Margarik uste det zeuzkela bost urte. Nik neuzken hiru urte. Gero zeon Antton urte terdikin, eta gero nere ama aitta hil zanen haurdun zeon, eta falta zikon bi..., zazpi hilabeteko haurdun zeon. Ta jaio zan Felix hori Sagastiberri baserrin zeatik aittajaune eta... Guk aittajaune aitonai esaten diegu aittajaune, Legazpin esaten zako. Eta jun zien aittajaune eta nere izeba bat ondio soltera zeona baserrin, bi jun zien Eibarra, lagundu zien pixkat etxea zertzen eta dana eta ia gure aittajaunek ein zittun dilijentzi danak hura ekartzeko bere baserrira, zeatik ze itten zon emakuma batek zirkunstantzi hortan han bakarrik. Eta gero ba hori. Hori dana ondo dakitt. Akordatzen naiz nei esan dielako, zeatik hori askotan entzun deu etxen eta horrekatio dauket grabauta baiño. Geuk, nere ahizpa Margari're ez da akordatzen aittekin presentzikin; ez gea akordatzen inor.

### **1.4. Jaiak eta karta-jokoak**

- **Hizlaria(k):** Urzelai Zabaleta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-046/005
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:10:31. **Bukatu:** 00:12:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** 12-14 urte zituztela, jaietan, herriko mutilak karta-jokoan aritzeko elkartzen ziren, eta ardoa edaten zuten. Kartetan, dirua jokatzen zuten.

### Transkripzioa

-Ordun auzoko mutillek juntatzen zineten kartetan jokatzera?

-Bai.

-Tabernan baten?

-Bai, Telleriarten, estankon. Hango etxekoandrea, joo, Juanamari zan, Juanamari, eta harek ematen ziun kartak eta geo zeozer hartu're bai guk, zeozer, ardoa eaten gendun, pitxarretik ardoa, litroerdi ardo eaten gendun.

-Pitxarretan ateratzen zen ardoa?

-Bai, pitxarretan.

-Hori jaietakoa izaten zan?

-Bai, bai. Jaien. Kartataa zazpi terdin itten gendun guk. Xiete y medio. Ta bankero..., igualen bankerontzako izaten zan dana.

-Harek bazekin.

-Bai, bankaik ez zun galdu nahi harek. Joe!, Prontxiano...

-Ta zuek dirua jartzen zenuen?

-Bastante. Hogezi zentimo ta. Joku guzitan hogezi zentimo ta. Hamar eta hogezi. Hortik gora ez. Pezetak ez.

-Eta musean eta seiko urrean eta ez al zan egiten?

-Guk musen ez, zazpi terdin itten gendun.

### 1.5. Elkartasuna nagusi, etxean eta kalean

- **Hizlaria(k)**: Gereñu Odria, Iñaxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: LGA-051/030
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:45:05. **Bukatu**: 00:46:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Lanean irabazitako dirua etxean ematen zuten.  
Lagunartean, diru-kontutan elkarri laguntzen zioten.

### Transkripzioa

- Irabazitako dirua etxera entregatzen bazenduen, asteburutan eta ematen zizuen?

- Bai. Honbre, guk nahi hainbeste igual ez ziuen emango, seguro, baiño ematen ziuen, izaten gendun. Zeatio akordatzen naiz kuadrillan Oñatia, "Santu Bizixak" esaten gendiun, Corpus Eunekeo prozesioa, "Santu Bizixak", Oñatin hola hitz eitten dan, oiñez Brinkolatik Oñatia prozesioa ikustea. Ta danok izaten gendun dirue batek ez bestek. Ta hari, tiakin eta tiokin bizi zan eta harek: "Yo no tengo pues dinero", kakauesen batzuk erosteko izango zan gurea're baiño. Ta beti hari partitzen; ta eun baten akordatzen naiz esan ziun: "Hoy ya tengo dinero, e". "Sí?". "Sí". "Qué raro!". "Porque mi tía ha comprado el pan y se le han olvidao los cambios encima del armario y yo le he cogido". Oseake gu baiño okerrago're bazeren besta batzuk.

- Lagun artean erdaldunak ere bazittuzuen?

- Hura, horixe. Bestela euskeldunek giñan danok, e

## 1.6. Esnearen inguruko gaiztakeriak

- **Hizlaria(k):** Iñurritegi Errasti, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-056/008
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:14:44. **Bukatu:** 00:16:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Lehen, esnea herrian saltzean, ez zieten eskupekorik ematen. Behin gaiztakeria egin, eta errieta egin ziotenekoa gogoan du. Lehen orain baino errazagoa zen esnari ura botatzea, baina beraiek ez zuten egiten.

### Transkripzioa

-Propinarik ematen al zuten?

-Bai... Propinaik? Bronka bai. Sekretarioa zan lehenao, Enparantza Legazpin, eta haren etxea eamaten gendun. Ta andrea zan ta zeon pasillo luze bat sukaldea juteko eta andrea zan beti... Gu, klaro, umek giñen arten, eta esaten ziguk: "Kontuz eaman litroko ontzie, tantona bota baik pasillon". Eta ni gaiztoa nitzen eta askotan itten non lurrea bota paretei neuken tantona...

-Gero errita saioa aitu behar.

-Hurrengo akordatzen zanen: "atzo're bota zendun eta". "Ez, deskuidau eingo nitzen eta, ez det uste eroi zanik" eta.

-Orduan ere gaiztakeriak egiten ziren.

-Bai, ordun'e gaiztok.

-Eta sekula esnari urik eta botatzen al ziozuen? Ba omen zien ba orduan.

-Ordun errexao zan oin baiño botatzen, e, oin ia beiratu itten da baiño. Ez, ez, urik eta ez genion, ordun ez zeon hainbeste malizi.

## 1.7. Donostiako aisialdia

- **Hizlaria(k):** Iñurritegi Errasti, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-056/034
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:53:35. **Bukatu:** 00:54:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Donostian, denbora librea zeukanean, Txomin Eneara joaten ziren dantzara arratsaldetan.

### Transkripzioa

-Esan dezu Donostin paseatzeko ta denpora libre izaten zendula. Zer egiten zendun? Nora joaten zinen?

-Ba lagunekin. Txomin Enea ta hola jutun giñen.

-Bazenituen Donostin lagunak?

-Bai. Hemengok'e bazeren gehia're Zeraingok eta ezaunek baneuzken eta.

-Eta Txomin Enea jutun zineten?

-Bai.  
-Eta zer egiten zenuten?  
-Dantza ta, hantxe. Mutillekin kontuk esan eta.  
-Zer egoten zan, bandan bat edo?  
-Bai, han fieste a egoten zan Txomin Enen.  
-Zer zan, taberna bat?  
-Tabernea zeon eta musikea; barrio bat zan Txomin Enea hori; taberna bat eta hola. Donostittik kanpora. Han gere modukok eoten zien eta han ibiltzen giñen.  
-Baina gauz joaten zineten?  
-Ez, ez, ez, atsalden. Ordun gauz ez zeon ibiltzeik.

## 2. Ohiturak eta bizimodua

### 2.1. Lehengo hainbat kontu

- **Hizlaria(k):** Olabide, Dionixio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Solana, Eneko
- **Erref:** LGA-014/003
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:01:54. **Bukatu:** 00:03:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Gurrutxaga, Aitor
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak  
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Gerra garaian, sei-zazpi urte zituen. Eta gose galanta zegoenez, katuak eta trikuak jaten zituzten. Bere ustez, Legazpiko euskarak Zumarraga eta Urretxukoarekin du antza handiena. Legazpi txikia zenez, fabrikara bizikletaz joaten zen (Brinkolakoak autobusez). Barrakak festetan bakarrik etortzen ziren.

#### Transkripzioa

Gerra garaian sei urte neuzken, sei ta zazpi; ta gosea galanta zeon ordun, da katuk harrapau ta haik igual jaten gendutzen, trikuak e bai. Nola neuzken sei urte, ez naiz gogoratzen hortik aurreagoko gauzakin. Nik uste det Legazpiko hizkuntzakin Zumarraga ta Urretxuk daukela antza. Legazpi oso txikie zan. Ta fabrika ta danea bizikletan ibiltzen giñen, ta Brinkola aldeko autobuse zeon, Brinkolako autobuse. Barrakak etortze zien festata, ta plazan boladore bat o hola ibiltzen zan ta beste txiki bat umendako; besteik ez zan hemen izaten garai haitan.

### 2.2. Esaerak, txistea eta bertsoa

- **Hizlaria(k):** Olabide, Dionixio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Solana, Eneko
- **Erref:** LGA-014/005
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:04:16. **Bukatu:** 00:05:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Gurrutxaga, Aitor
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak,

kontakizunak

Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak

Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

- **Laburpena:** Esaera batzuk esaten ditu, txiste bat kontatzen du, eta kanta batzuk abesten ditu.

### Transkripzioa

Esaera batzuk: haudi, hodi. Eon hai lo ta jango dek me. Hau da txiste bat: Ataunen soldaduska jun ta sarjentu batekin han izandakoa.

“ Terzien,  
jakin izan bano zer zien,  
nere hanka hezurrik ikusiko ez zien”

Hanka motzak ein omen du  
Apostu korrika  
Ta beso motza berriz  
Atzetik harrika  
Mutua hor da junik  
Jendiai dedika  
Itsua barrez lertzen  
Begira jarrita

Oingo berso hau da Gesaltzako Grazianon bersoa. Hari jarri zion `Baxerri´k puntuba:

Zenbait metro daude lurretik zerura?  
Hori jakin ez arren  
Bate ez zait ardura  
Nere poltsikutikan  
Metrua galdu da  
Barrerik ez dezu ingo  
neronen kontura

### 2.3. Anekdotak bat

- **Hizlaria(k):** Zumarraga, Anita; Zumarraga, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gurrutxaga, Aitor
- **Erref:** LGA-016/001
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Emakume alfer bati buruzko anekdota kontatzen dute.

### Transkripzioa

M: Nundik hasten gea? Nun eon zan kriada?

A: Nun eon zanan ba? Maanttonina ez gendunan esan ezta? Ez dakiñat [...].

M: Oso jatorra tokau zikon ta.

A: Jaiki behar izaten zon oso goizago, eunero-eunero, goizeko ordu bitan, o lenau igual, eta gaztaiñak'e egosi behar baldin bazittun, gaztaiñak egosi behar izaten zittun, sua egin, eta gero erre behar bazittun, erre.

M: Haik jaikitzeako.

A: Nausi etxeoandrak jaikitzeako

M: Ta lenengo, haik tapau ohera junda. Haita jun jaikitakon, eta pipak eman bieirretzeko.

E: A bai e? Pipea eman?

M: Bai. Eta gero, ba, sua ein eta gero hasi behar zon bere lanak eitten. Hori egunero e?

A: Eta gaiñea jun behar izaten zon errota, egunero ez, baiño iriñeta.

M: Noizik peiñetan.

A: Ogia eitteko. Eta behin jaiki zan beti bezela, ta sue ein zon eta bazeon suondon holaxe ta aittu zittun ordu bik.

M: Zeon erdi lotan, ez, arten ez.

A: Tan-tan! Eta ordu bik. Eeeene! "Ondio goize dek. Nik oaindik beste lo pixkat iñatio lanak ingo tuat pa!" pentsau omen zun. Ta holaxe, ze in do? Lo hartu pixkat. Eta geo [...] txinpartea erori zako belauenen gaiñea.

M: Eta erretzean akordau.

A: Erretzean akordau, berotu zionen. Eta ordun dana bertan bera utzi eta lanak itten hasi.

M: Loa kentzeko modue ein zikon hari!

A: Eta hola. Eta gero besta baten, ai men zien lanak itten gure ama eta nagusie, nausie, eta andrek men zon izena Maanttoni, Maanttoni. Eta umea men zeukien.

M: Joxepatxo.

A: Eta esaten men tzion gizonak: "Anttoni, jatsi zitzu ardi horik, guk haxe akabatzeako. Guk haxe in ber deu, ta haxe akabatzeako jatsi zitzu ardi horik".

M: Esan ta esan ta kasoik ez zion iten.

A: Hartu men tzion umea ta: "Joxepatxo, ja-jai!" itten men zion. Eta berriz'e handik gerotxoa, berriz'e esaten men zion: "Anttoni, eizu gaixo horrek esandakoa! Ardik, ardik jetsi izu gaixo horrek! Ardi jetsi eizu gaixo horrek guk haxe itteako!" Ta beste "Joxepatxo!" "Ja-jai!" [...] Ta hortan, . Ta halako baten, esanen-esanen, ba, hasi zako ardik jeixten. Ardik jeixten ai da ontzira.

M: Ta gizona eusten.

A: Eez! Gizona ta ama lanen. Eta ardi-jeixten bea. Baiño ze in dio ardi batek? Ostikadea ein ta...

M: Esnea bota!

A: Ontzin zeuzken esnek danak bota eta pixkan bat utzi. Enda hue jun, ta gizonai baldea bota eta: "Muin iok oin heuk!" esan ta alde ein.

M: Danak botata seuro, dana bustita.

A: Dana esnekin goitti bera, tximatatik bera dana esnia dariola geau men zan gizon hori. [...] Ke ba, hoixe aindu ziolako, ta ez ziola ondo erten. Oso alperra men zan andrea e?

## 2.4. Anbotoko dama

- **Hizlaria(k)**: Agirre, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gurrutxaga, Aitor
- **Erref**: LGA-017/003
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:03:55. **Bukatu**: 00:04:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Anbotoko damari buruz hitz egiten du: askotan ikusi izan du, baina ez aspaldiko garaietan. Zer kolore zuen, eta non egoten zen azaltzen du.

### Transkripzioa

"Han Anbotoko Dámea nun dijón", nik hori Aizkorri parén altxafuégó bat balitz bezélaxe pasatzen askótan ikusi det; oin aspaldiko urte hóetan ez. Gure amándrek esaten zon: "han, Anbotoko dámea": su-kólorea bezélaxe edó izaten zan. Jenéralen Aloña aldetik Aizkorria. Amandrek esaten zon: "han, badatorré Aizkorria. Eon behar do Anboton kueba bat eta hemen bésta bat. Akáteiko kueba". Fenómeno hori nik ikusi det, behin baiño géhiautan..

## 2.5. Lainoa nola lehertu zen; uholdea; kalteak

- **Hizlaria(k)**: Urzelai, Silbestra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Armendariz, Axun
- **Erref**: LGA-018/002
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:00:10. **Bukatu**: 00:02:30
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: 1915ean Legazpin uholde izugarria izan zen. Zoritxarreko egun hartan bizi izandako pasadizoak kontatzen ditu Silbestrak.



### Transkripzioa

Laiño bat pasa zan Aizkorrin, ta hura lertu zan, jende dana elizan zeon funtziora junda, kalen ez personaik, dana elizan, ta bateon bat akordau zan hure zertu zala ta Aizkorrin pasau zala zerbaitt. Laiño mordo bat zala, hure lertu izango zala, eta gero ure gehitzen ta gehitzen zijon errekan; ta Larrea zanak, bikario zanak, funtzio danai utzita kurutzea etaa zon, bi buelta ein zien elizatarin, danok letanik errezatzen, eta ure hasi zan bajatzen bajatzen. Baiño Legazpiko kalea dana udetan. Papelerea´re dana eraman zoon; rolo danak aiden jun zien udetan. Beko fabrika´e zerbaitt eiñik izan behar zoon; goizen porlanakin hartuta zeak bai, baiño lehertu ein zien udek eta erramintak handik eta(ra); han jun zien danak fuera. Baserritan´e, ene! arbola osok jun zien errekan, ganaduk´e bai, Aizkorrin zeren ganaduk izango zien haik. Eta ikusten zien nola zijoazen bera, pertsonaik baiño ez zan ikusten behintzet.

Bikiñan ta, Olaberriñ ta, Xan Mielen da... Motxorron gaizki; bi aldetati sartu ziten ude, Santa Mañako aldeko udek. Ta etxe barrua sartu ziten ude, ta beste paretea ja ta bota zon, ukullukoa, ta ganaduk juxtu-juxtun eta(ra), eta erak´e bai. Motxorron ein zala kalteik haundiana ta, jendea han ibili zan brozak etatzen, arbola osok eta, Motxorroko Polonin etxen gaizki ibili zien oso, oso gaizki´re!

## 2.6. 1915eko uholdearen kalteak

- **Hizlaria(k)**: Urzelai, Silbestra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Armendariz, Axun
- **Erref**: LGA-018/004
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:03:00. **Bukatu**: 00:06:00
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: 1915eko uholdea Jesusen Bihotzaren egunean gertatu omen zen. Uholdearen eraginez Legazpiko Plazaolan eta Musakolan izan ziren kalteak. Musakolako mutikoari gertatutakoa.

### Transkripzioa

- Ta Plazaolan?  
- Plazaolan ude etxeaiño, Itxetoretik´e auzon zan ta; gero haik´e goiko udek´e bai hor goiti, presakok, eta Aizelekuko udek kañun beheraiño. Ixtillu gorrik, ixtillu gorrik zien hor.  
- Eta baserri gehio kaltetuak izan ziren?  
- Ez, bastante sano, bastante sano. Hor, San Migelen ta Mirandaolan ta Elorregin ta... hoitan oso gaizki. Oso.  
- Erreka ondoan daudenak.  
- Erreka ondon darenak; oso gaizki´re.  
- Eta hori, ordun, Jesusen Bihotzaren eguna zan?  
- Bai, Jesusen Bihotzen euna, bai.  
- Uda alden?  
- Uda alden, bai. Bai, udea zan; guk bedarrak genduzken zelaien, anaie Juan ta biok. Bestek eliza jun behar zuela eta gu jun be ez giñela geatuko; hari buelta eman eta jungo giñela. Ta anaiei esan nion: "Aizkorriko laiño horik ez dakiat ze in behar duen hor; itxura txarra daukik oso". Halaxe etxea etorri giñen buelta emanda bedarrai. Gertau ta eliza jun giñen. Eliza

jun ta behalaxe zan ur hori. Hor lertu zan; hodai mordo bat eon zan.

- Aizgorri paren. Ta Zegaman ta hola kaltek izan zien?

- Ez det uste han izan zanik hainbeste. Hemen minatan, hor lertu zan.

Istillu edarra bazan hemen orduntxe.

Musakolan´e gaizki ibili zien. Haik´e ganadu danak etaa ta. Ordun fabrikea ez zeon haundie arten, hasi berrie eo hola zan ta. Alde harta ekarri zittuen ganadu danak. Besta baten izan zan edurre o; ez, edurre ez zan ordun, udea zan, udalditxo bat izan zana. Eta Musakolako motikoa eaman zon, Konstantiñan-ta anaie, txikiñana. Umea falta ta... Ze pasau zako? Ume hori udei beira jarri da ta beak tirau! Bera beida daola, hartu ta eraman zon, ta Zurrantei paren eta(ra) zuen, Zurrantei baiño goraxeon, zubie baiño goraxeon. Fabrikako Xeundok eta(ra) zon, haretzek eta(ra) zon mutiko hori librauta. Ipurdi zuztarren baten eo erantsita zeon, bai; bea eraman ez zonen pozik!

## 2.7. Tximistak jota gizona hil zen Antzuolan

- **Hizlaria(k):** Urzelai, Silbestra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Armendariz, Axun
- **Erref:** LGA-018/006
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:06:45
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Soroan lanean ari zela tximistak jota hil omen zen gizon bat Antzuolan.

### Transkripzioa

- Tximistakin norbait hilda dao Legazpin?

- Ez naiz akordatzen ni, tximistak ittota. Antzuolan bai, soron ai zala, segatan edo ez dakit ze, bedarra ebaitzen ai zala gizona galdu zala, oñaztarrakin, hori aittuta nao. Baiño hemen ez, hemen ez naiz akordatzen.

## 2.8. 1915eko uholdeak eragindako kalteak

- **Hizlaria(k):** Urzelai, Silbestra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Armendariz, Axun
- **Erref:** LGA-018/008
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:10:40
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** 1915eko uholdearen inguruko kontuak.

### Transkripzioa

-Gu´re etxera jun giñen, da ukulluko aten holaxe zeon ure, sartuko ez sartuko. Etaa ein beharko deu, etaa ein beharko dittuu behiek, eta holaxe [...] bajatzen hasi zan. Errotatxoneko estazion azpiko soro hura goitxoraiño zeon iota. Lehen elizatarin, berriz, zea zan, labaderoa, eta labaderotik hola gorago gorago, goran, ude. Abaden etxea ´re dana udetan.

- Abadeana´re bai?

- Bai! [...].  
- Ta elizea?  
- Elizea berriz ondo. [...]. Eugenia ta haik gaizkigo, erreka izkiñan dao ta. [...] Danen gaizki. [...]. Brinkolako goiko tabernakok gaizki ibili zien; hura´re nola daon errekatik hola postei helduta. besten ze esanik ez! Etxek marka han eduki zon, makiñat denporan eduki zon, bentana barrun eta gorago´re bai. Brinkola alden leku askotan gaizki. [...]

## 2.9. San Migelgo gurutzea

- **Hizlaria(k)**: Urzelai, Silbestra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Armendariz, Axun
- **Erref**: LGA-018/009
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:10:40. **Bukatu**: 00:12:15
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena**: San Migelgo gurutzearen inguruko kontuak.

### Transkripzioa

Udalako(??) altu horretan dauku santue. Estuasunen santue nola ekarriko da ba ordun haundie? Hori hemen ondo zeon kurutze santue, guk hor ezautu deu. Near gootik ein gendun guk, santue eraman Leazpittik! Berriz´e izaten bada holako estuasuna, zer eta(ra) behar da? Hor dao ordekoa, bai, ordekoa dao baiño hure da santue, hangoa zan baiño hona ekarri zuen lekuik ez zaukelako! Ointxe Xan Mielen izan nitzen, nere denpora guztin aspaldi jun baik eta San Miela jun behar gendula eta “Ene, hemen san Miel falta den; santuik ez zeon hamen, hemen ez zeonan exerre!” Bazitunan albotatik, bat San Lorentzo eta bestea ez dakit zein santu izango zan. Ume danak eraman nitun aurrexeo. 80 kedu errezau behar ziela; Muruko Brigida zanak hartu zittun umek, danak ezautze zittula eta nik mundu(??) guztiti eraman in behar umek. “Bueno ba, jungo ga.” Eta atsalde baten halaxe jun giñen. Ordun San Miel berta eliza jun giñen.

## 2.10. Baltseoa bekatu mortala

- **Hizlaria(k)**: Urzelai, Silbestra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Armendariz, Axun
- **Erref**: LGA-018/011
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:12:28. **Bukatu**: 00:15:00
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Baltseoan dantza egitea bekatu omen zen. Bikarioaren sermoia.

### Transkripzioa

Xeguraneko señora zarra balkoian miradorea einda; han zan jendea baltseon. Baltseon eitea pekatu haundie zan. Geo Santikutz ondoren eiten zuen, santikutzetati hurrengo jaira, kongregazio, juntea. Geo zinta zurikin batzuk izaten zien pillarakok, eran zinta zurikin... Bikario zana, Larrea zana, eskuk ipiñi hola mahien gaiñen ta: “Zeiñek intentau baltseon, zeñek in do plazan baltseon?” Ta danak ixilik; han bazeren pekatun zerenak, baiño... ez

zon iñok esan. Zinta zurie zeukienak han zeren larri. Jendek bildur harenai, harek agintzen zola Legazpin ta; fiestatan ta, fiestak ez zienen ´e bai. Baltseon ikusi! Jesus, Maria! pekatu mortala zala ta, mutillei hola ibiltzea, hori jun zeikela idea txarren neskena. Hura gaiztoa zan, señora gaiztoa, Xegura zanan señoraea, Mondragokoa, bigarren andrea Xegurana, tokorra zan oso. Señorita Eugenia ´re ezkontzeko ibili zan. Pianoa jotzen ibiltzen zien señorita bik, Eugenia ta obixpoa. Etortzen zan gizonezko bat sonbrerokin, kaballero bat, eta ama horrek ez zion utzi ezkontzen, ez zon oso gogokoa amak. Hala geatu zien bi ahizpak.

### 2.11. Emakumeak buruan "solkia" (sorkia) jarrita

- **Hizlaria(k):** Urzelai, Silbestra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Armendariz, Axun
- **Erref:** LGA-018/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:19:40
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua
  - Euskara » Lexikoa
  - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Lasto-argiarekin jaisten ziren baserritarrak goizeko seiretarako mezatara. Emakumeek buru gainean "solkia" (sorkia) jarrita eramaten zituzten kalean saltzeko gaiak. Ura ere buru gainean ekartzen zuten "erradetan".

#### Transkripzioa

- Eta igandetan lehenengo meza ze ordutan zen?  
- Xeiretan.  
- Arrolatik jeisteko...  
- Bai, lasto-argikin jeixten zien, eta nolako bidea! Ez dakit nola etortzen zien. Goizago etortzen zien; gu eliza jute orduko han eoten zien hak eta. Aztiritti ´re alargune, andrea hil zikon, zahartuxe. Hoi en ama ta bi ahizpak, eran xestok beson zittuela, asteko arrautzak, solkie ipiñi burun ta, burun puntan zittuela. Haikin iten zittuen errezok eliza junda, atea itxita, goizago etorrita. [...]  
- Solkie?  
- Solkie. Badakizu zer dan hori? Borobill hori. Buru puntan ipiñi ta... Lehengo andrak burun bazuen indarra. Nik baiño gehiao.  
- Nere amapuntako oso artista izan behar [...], aitek esaten zon, ure ekartzen zola ontzi batzutan eta horren izena errada edo ez dakit nola zan.  
-Erradak. Erradak izaten zien, hiru erroka zittuela, egurrezkoak. Gure anaia zana ´re [hautza] jun zan morroi; han gauen ohera jun da, ta goizaldera andrea amesetan ai dala jaiki da eta erradea hartu do ta jun da itturria ude ekartzea goizaldera.

### 2.12. Elizako funtzioak

- **Hizlaria(k):** Urzelai, Silbestra
- **Elkarrizketatzailea(k):** Armendariz, Axun
- **Erref:** LGA-018/014
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:22:00

- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Elizako funtzioak.

### Transkripzioa

Errealak ez dakit zer zanean hurre; suelta sartu behar poltsa gorriin, ez giñen allatzen, merkeena iten gendun, ta gero ondorengo egunetan´e eliza funtziora. Jaune agirin eitten zanean, bezperak. Gero eliza ta handi irtendakon beti beste gordetzen ta hola. Ostiela guzitan misererea kantatzen zanean, kurutze santun aurren; prozesioik ez zanean itten ordun. Ostegun santun eta Ostiela santun bai, oain baiño hobetogo errespetatzen zanean, hoitan bai. Ostegun santu egunen soron ibiliko giñen, baiño handi aurrea batez! Ukullua ganaduk, ta oin zer? Jaie o astea zer dan antzik ez. Ondo bizi geala!

## 2.13. Lehenengo lanak Legazpin eta Burgosen

- **Hizlaria(k):** Ibargutxi Larrea , Ines
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-039/031
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:00:00. **Bukatu:** 01:01:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Maisutza ikasten ari zanean azken urtean, praktikak egin zituen Legazpiko San Ignazioko eskolan. Burgosen bost urtez aritu zanean lanean, eta han nola moldatzen zanean aipatzen du.

### Transkripzioa

- Eta eskola ematen haste hori zer moduzkoa da?  
 - Bueno, baiño azkenengo urten praktikak itten die, e.  
 - Nun egin zenituen praktikak?  
 - Hemen Legazpin in nun, Ez dakit ze eskola. Uste det Escuelas de San Ignacio uste det ein nittula praktikak. Ein behar dittuzu praktikak, azkenengo urten.  
 - Eta zer moduz praktikak?  
 - Praktikak ondo. Bai, hori gustatzen zitan. Bueno, umekin...  
 - Ze eskolatan esan dezu?  
 - Hor San Ignacioko eskolatan. Barrio San Ignacio dao hor goien eta eskola txiki batzuk zeren hor.  
 - Eta Burgosen ze edadetako jendeai ematen ziozun?  
 - Danai. Mahitxo bat neuken parbulitondako, mahitxo bat lau silla txikikin. Eta gero eukitzen nittun hamasei, hamabost-hamasei. Edade danetakok, neskak eta mutillek."De todas la edades, era complicaao, e, a cada uno tres o cuatro. Podías hacer un grupo de tres, pues eso ".  
 - Ze moduzko esperientzia zurea?  
 - Bueno, eskolea ematea berea dauke. Eta han eotea're bai, han eotea're bai.  
 - Etxera etorri gabe. Etortzen zinen tarteka?  
 - Bueno. Oporretan. Bestela ez.

## 2.14. Maisuarekin izandako kalamitateak

- **Hizlaria(k):** Agirre Mendizabal, Genaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-043/005
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:08:02. **Bukatu:** 00:10:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Eskolan non ibili zen azaltzen du. Askotan ezin izaten zuen eskolara joan. Maisua arratsaldetan mozkorra etortzen zen, jo egiten zituen umeak... Behin zigortu eta giltzapean sartu zituen eskola azpiko bodegan; baina ihes egitea lortu zuten, eta maisuak tiro egin zuten orduan.

### Transkripzioa

-Galdetu nahi nizun eskolan nun ibili zifan.

-Eskolan? Oin e, zuk jbadakizu hemen jatetxea nun daon badakizu goian hemen?

-Aztirin?

-Bai. Jatetxea ba al dakizu nun daon? Hori eskolea zan lehenao. Etxoin pixka-pixkat. Aurreraotik oin soziedade daon tokin, hue zan eskolea, apaiz etxea eta eskolea bik zeren han. Apaize han bizitzen zan. Eskolea han. Ta guri denboa gutxin ibili nintzen eskolan han. Ibiltzen giñenen ba beti izeten zan, ni nintzen zaharrena. "Gaur ez dek eskolaa juteik, gaur ardik zaittu beharra zeok, gaur itulara jun beharra zeok, gaur ez zeok eskolaa juteik". Eta juten giñenen ee apaize txiki bat zeon, Oiartzungoa, ta Don Migel zun izena, ta goizen bastante ondo eoten zan baiño atsalden mozkortu itten zan. Tabernaa juten zan, ondon, gertun zeuken ba, ta eanda etortzen zan eta geo joka ta ibiltzen giñutzen. Kristonak eitten [genituen].

-Jo egiten zizuen?

-Buuuu! Mozkor txarra zeukan ba, ta harrapatzen zuna joka ta belarrittik tireka ta ta hola ibiltzen giñutzen. Ta kastigauta... Eskolak azpin zauken bodega bezela, zulo bat, tranpeakin goien eta behean sagardok eta eukitzen zittuen zorun, eta hara sartzen giñutzen barrua! Ta egun baten sartu giñutzen hautza ni ta beste bat, Sarasola apelidua zun, Hipolito, Baztarretxekoa zan eta; ta gur amorrakin, behean lur goorra zeon eta, sagardo [botila puxkatu], ean bate ez, puxkatzen amorrakin. Ta barrenen zeon holako zulo txiki bat, ta "hortik ihes in ber diau". Ta ni lenengo, ni txikixea nitzen bestea baiño ta ni lenengo, haek bultza itten zien ta irten non nik.

-Eta noa irtetzen zon harek?

-Kanpoa! Ihes itteko, etxea ihes itteko. Ta nik irten nun eta, "oin nik nola irtengo diat ba", ta "besotik tira eingo diat".Tireka atea nun hue ta biok etxea ihesi. Ta akordau zen apaiz hori, sukaldeko leihotik: "hor nauk, hor nauk!", daunba!, daunba!, bi tiro.

-Tiroa bota zizuen?

-Bai. Baiño bastante urriña.

-Eskerrak.

-Gure eskola hola izen zan. Bate ez gendun ikesi, ezerrez.

-Eta han bodega bat zan?

-Eskolean azpin ez zeon ezerre, sagardo botillek bakarrik eoten zien.

-Eta zeinena zen bodega hue?

-Eskoleena, apaizetxeena.  
-Apaizan sagardoak izango ziren haiek?  
-Bai.  
-Gozoa jarriko zan.  
-Bera holakoa zan ba, beti ean eitten zon ba.

### 2.15. Maisuaren zigorraren ondorioak

- **Hizlaria(k):** Agirre Mendizabal, Genaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-043/006
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:10:57. **Bukatu:** 00:11:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena:** Behin maisuak ume bat zigortu nahi izan zuen, eta ika-mika hartan, apaizak mingaina zauritu zuen.

#### Transkripzioa

-Eun baten hemen beste bizitzan, bat ospizianoa zan, Santi zon izena, ta gurekin batea eskolan hue, ta eun baten kastigau edo zertzeko ta, han zuloan sartu nahi, enda holako tranpea txiki samarra zan ba, ta harek zer eitten zion, hanka sartzen zion eta ezin sartu: "Sartuko haut ba hi!", Oiartzungoa zan apaiz hori, "Sartuko haut ba hi, sartuko haut!", eta hola zebilela jotzen du burukin okotzen eta jata mingaiña ta dana bere hortzakin dana zulau zion apaizari. Hue gora jun zan odola dariola ta [...] ihesi gu. Kitto!  
Nahiko errita-saio ibiltzen zenduen ordun.  
-Gue eskola hola pasatzen zan, batez, ezerrez. Ez gendun eze ikisi.

### 2.16. Gabiriako eskolan, bai, ikasi zuen

- **Hizlaria(k):** Agirre Mendizabal, Genaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-043/007
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:11:46. **Bukatu:** 00:12:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolan urte pare bat eman zituen Genarok. Geroago, Gabiriako herri-eskolara joan zen, eta han lau hilabete egon zen. Han ikasi omen zuen dakien apurra. Gabiriako eskolako maisua oso gizon ona zen.

#### Transkripzioa

-Eskolan zenbat urtekin hasi ziñan ba?  
-Zortzi urtekin.  
-Noiz arte segi zendun?  
-Batez, handik aurrea ezer ez.

-Zenbat denbora egin zendun eskolan?  
-Nik ez dakit zenbat denboa ingo non baiño, ez dakit ba nik. Hamar urte arte edo holakon baten ingo non nik. Eta gero ez zeon, fulamentuik ez zeon eta. Gabirin zeon eskolea herrin, ta han maixue zeon, ta hantxe ibilli nintzen lau hillabeten. Hantxe ikisu non apurra ikisi non, kitto; gaiñetin.  
-Eta Gabiriara hortik?  
-Oiñez jun behar saltoka, oiñez. Lau kilometro. Ordubete behar ia, oiñez jun eta etorri eunero. Poltsa txiki baten jana hartu ta.  
-Goiz ta atsalde eukitzen zenduen eskola?  
-Bai.  
-Eta han maixua nongoa zenduen?  
-Albizturgoa. Oso ona, oso gizon ona gaiñea. Harek erakusten [zuen] apurre, ta kitto. Gue eskolea hala jun zan.

## 2.17. Gerran, anekdota graziosoak ere bai

- **Hizlaria(k):** Agirre Mendizabal, Genaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-043/016
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:32:11. **Bukatu:** 00:33:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerran, trintxerak egiten aritzen ziren, eta sukaldaria galiziarra zuten. Sukaldari harekin izandako anekdota graziosoak kontatzen du.

### Transkripzioa

-Egun baten. istori polittek'e badauzket nik.  
-Kontatu.  
-Oseake, sarjentoa, koziñeroa gendun guk gaillegoa, Sarriero zon apellidue, gaillegoa, ta kalboa zan, gu baiño zaharragoa, ta guk genduen "cabo mulero" esaten dana bizkaitarra, ta eun baten tortilla eitten, kanpo libren, holako tejabana zahar bat bezela zeon eta han lastapilla haundi bat eta han lo eitten gendun.  
-Kanpamentua bezela?  
-Garai baten ba han herritik kanpora lastoa ta eukitzen zittuen ta trilluen eitteko plazueleta haundi bat'e bazeon, lastoa garie jalgitzeko, eta han eta koziñeroa hori ta tortilla itten hori. Ta guk gerrateko garaien ez gendun goseik pasatu, gero etorri zien gosek; ta kalboa zan ta tortilla zeuken, sartaiñean baakizu ta, gora botatzen zon eta goien buelta ematen zun eta hartzen zon. Ta Juan Goikoetxea horrek ein dio bultz tortilla goien daola, goittik beherakon jo du burun, kalbon, buru dana erre dio, sartaiñe eskun dola saltoka, eta bestea gari soron behera ihesi. Ez zon harrapatu. Ta gu parrez. Egun txarrak'e... onak'e pasau [dittugu] guk. Ofizialik eta iñor ez gendun eukitzen eta ez zan ezerre pasatu.



## 2.18. Gerrako janzkera

- **Hizlaria(k):** Agirre Mendizabal, Genaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-043/037
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:16:55. **Bukatu:** 01:18:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Gerrako janzkera nolakoa izaten zuten azaltzen du.

### Transkripzioa

-Gerrako trajia nolakoa zan?

-Kaki esaten zigon. Guardiazibillen kolorekoa ez, hola kaki kolorea, zer esango dizut ba nik. Berdea're ez, kasi marroia bezela, baiño. Marroia're ez, pixkat marroia ta berde antxea eiten don holakoa zan. Kaki kolorea esaten zien.

-Zer zan goikoa eta behekoa, galtzak eta txaketa, alkondara.

-Bai, alkondarea're kaki. Alkondarea, galtzak eta txaketa. Frakak eta...

-Eta botak, militararak?

-Bota militararak, bota beltzak.

-Txapela ibiltzen zenuten?

-Gorroa esaten zikon, hiru puntako gorro bat, puntan txintxilizkako borla bat hola goittik behera gorrie. Gorroa holakoa izaten zan gurea.

-Eta eramaten zenuten brazaleten bat edo?

-Soldauk ez. Kaboak eamaten zuen ze bat, eren fletxea zer dan ezagutzeko, eta ofizialak berriz izarra eamaten zuen. Sarjentook doraue beson, franja dorao bat, eta alferezak izar bat, tenientek bi, kapitanak hiru. Komandantek bat, baiño punta gehiagokoa, ta handik geo teniente-komandantek bi izar, ta koronelak hiru. Hola izeten zien. Baiño izarrak, punta gehiagokin.

## 2.19. Eskolatik piper egiten zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Urzelai Zabaleta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-046/009
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:18:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Bizioak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Eskolan askotan piper egiten zuten, eta mendira joaten ziren. Han egurrezko kanak erretzen zituzten: kanak nondik hartzen zituzten, kea nolakoa zen...

### Transkripzioa

-Eta nora joaten zineten piper eginda?

-Mendira.

-Nora mendira?

-Hor Saletxe aldera ta, Astaola ta. Saletxe aldera. Hor mendi baten eta han

txabola bat'e bagenduken eta han erretzen gendutzen zeak, haik zer zien, zea...., zigarrok bezela, egurrezko kañak zien haik, kaña batzuk. Oain izena... Haikin.

-Nolakok zien?

-Holaxen, lapitz honetxan lodierakok.

-Luzeak zien makilla batzuk bezela?

-Bai-bai-bai. Haundik zien.

-Eta nundikan konsegitzen zittuzuen haik?

-Hura moztuta jarri ta sua ematen giñun ta sekulako kea. Min-miñe gaiñea kea.

-Eta nundik hartzen zenituzten kaña haiek?

-Mendiin, hoik mendiin zeren.

-Eta haiei sua ematen ziozuen?

-Bai. Ta erre. Haren keakin min-min-min einda. Miñe, kañe oso miñe da.

-Eta hala ere erre?

-Bai. Kea ta erre.

-Bazan erretzeko ohiturarik, zigarroa ta erretzeko ohiturarik?

-Ez, ez, zigarroik ez.

## 2.20. Purua erre zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Urzelai Zabaleta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-046/010
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:18:42. **Bukatu:** 00:19:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- **Laburpena:** Lehen ez zuten erretzeko ohitura handirik. Behin purua erretzean gertatutako anekdota kontatzen du.

### Transkripzioa

-Puruik ez. Purue baten koiñadoakin Saizabalen bazkarie Telleriarten ordun, Sanjoanetan. Sanjoanetan bazkaltzea Saizabala juten giñen gu Telleriarten, arrebana. Ta han gizona Serapio... nola zon harrek, Aranburu; Juan Pedro zan bestea. Serapio zan han baserrin lana itten zuna ta baserriako izendauta zeukena; Serapio, gure arriben gizona. Ta esan zian baten: "gaur erre behatugu [behar ditugu] ba puruk, erre [behar ditugu] puruk. Sanjoanetan bazkaldu in gendunen. Eta piztu dittu(g)u puruk eta ohittu baik purue erretzen; ni ere bai eta hura gizona edadekoa zan, hura ere bai. Ta biok botaketa, "ganbarote"! Hango ganbaraa junda bota gendun bazkari hori.

-Erretzen ohitu gabe.

-Bai, ohittu baik.

## 3. Politika

### 3.1. Erliñoari lotutako kontuak

- **Hizlaria(k):** Olabide, Dionixio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Solana, Eneko

- **Erref:** LGA-014/004
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:03:03. **Bukatu:** 00:04:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Gurrutxaga, Aitor
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- **Laburpena:** 12 urte zeuzkala, Arantzazuko komentura joan zen ikastera. Baina bi aste bakarrik egon zen han, gosea besterik ez zegoen eta. Legazpin hiru eliza zeuden. Mezak lehen zer ordutan izaten ziren azaltzen du. Apaizak zein ziren aipatzen du.

### Transkripzioa

Hamabi urte neuzkela, Arantzazuko komentura jun nitzen estudiantzea. Ta hamabost egun pasa da atzea etxea, gosea besteik ez zeon han ta. Legazpin genduzken hiru eliza: Brinkolakoa, Teilleriartekoa, Brinkola San Agustin, Teilleriartekoa, San Juan, ta gero hemen, kalen. Ta San Miel, baño hura ez zan ibili're eitten, ez zon iñok ebiltzen hura. Len, goizeko seiretan lehendabiziko meza, hurrengoan zortziretan, gero hamarretan meza nausie. Zeren apaizek lau zien: Brinkolan genduken Don Jose, Teilleriarten Teilleriarten Don Miel, ta Legazpin Don Bitor, Don Antonio bikario, Don Jose, Don Feliziano...Apaize hobeto zeon hemen!

### 3.2. Gerratik libratu nahian

- **Hizlaria(k):** Agirre Mendizabal, Genaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-043/008
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:12:53. **Bukatu:** 00:15:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena:** 16 urte zituela, gerra iritsi zen, eta orduko oroitzapenak gogoan ditu. Patrizioren fabrika militarizatuta zegoen, eta han hasi zen lanean Genaro. Hala ere, egun batean, militarrek etorri ziren eta Genaro soldadu eraman zuten beraiekin.

### Transkripzioa

-Eta gero ba hazi in giñen ta ba etxen [nola-hala] eta geo gerra zetorrela, enda hamasei urte, eta hemengo fiestak zien dieciocho de julio, eta ni akordatzen naiz [Bolaketan ordun nintzan] gudarik eo fusil haundikin bolalekuai beira nola egon zien, urdin jantzittakok lau gizon beira. "Hok gerrakok emen dittuk" eta ez dakit zer eta. Hala pasau zan. Eta gero ba fabrikan, Patricion fabrikan laneako, gure aitte zanak ezaune zon hango nausie ta, militarizau itten zittuen ba ordun soldau jun bare libratzeko, nola bonbak eta zerak itten zittuen fabrika hortan, bonban aletak-eta itten zittuen, eta han sartu nittuen fabrikan, enda hasi nintzen eta brazalete bat beson bonba forma ze batekin, eta eun baten esan zian: "Gaur militarra zetorrek ikustea, eta argi ibilli hai" enkargauak esan zian, eta ni mutil gaztetxoa, hamazazpi urte, ta. Halako baten hor datorre, altu bat, militar

altu bat. Eta ein [zidan] begiratu bat, begiratu raro bat, eta dioo!, ta alde in zon -ez zian eze esan-, alde in zon, kastillanoa zan eta. "Ño", lagunak esan zian, begiratu txarra ein dik horrek; jun beharko dek". looo! Mutiko...

-Baina zu han lanean ari bazinen, libre zinen...

-Lanen ai nitzen, baiño ni beste lan baten ai nintzen, bonbak-eta itten ez, beste lan baten.

-Horregatik zan, beste lekun batea eamateko...

-Bai ba. Eta handik zortzin bat egunea ofizinan zebillen bat etorri zitzaian eta segittun bildurtu nintzen, "ba jun beharko dek soldau, hau ta hau..." Mekauen... Tripak honaiño goraiño. Mutikok, mutikok arten. Erderaz ez [genekin] hitzik'e, hemezortzi urte in baek arten. Ta gero esan zian: "Gehio're bazijoaztek, e, hi bakarrik ez hoa, gehienak zijoaztek hemendi". Kitto. Hots in ziuén, hartu ta Estellaa.

### 3.3. Instrukzioa egitera eraman zuten gerra garaian

- **Hizlaria(k)**: Agirre Mendizabal, Genaro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: LGA-043/009
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:15:23. **Bukatu**: 00:18:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: 16 urte zituela, gerra hasi zen. Genaro instrukzioa ikastera eraman zuten Lizarrara eta Jurramendira. Han zer eta nola ikasi zuten azaltzen du.

#### Transkripzioa

- Estellara eraman zizuen?

- Intruzioa ikiste. Ta intruzioa ikisten aritu giñen bi hillebete, pasau giñuzen han. Ta jende asko, e, kuartel txiki baten; ta jana txarra ematen ziguen, oso txarra; ez zeon hango janik jateik; arrak indako babak ematen ziguen, [pentsaizu]. Ta alferrez bat bagendun aintzen zona eta geo beste bat zan tenientea, Zorrilla esaten ziena. Enda indizioa bizkarreti ematen ziuén, danei indizioa bizkarreti.

- Zertarako ematen ziuén indizioa?

- Gerra juteko. Nik ez dakit ba ze itteko ematen ziuén, ez gaixotzeko. Enda geo juten giñen instruziotaa zerea, Estellan Montejurra. Montejurra izena zuen mendi batea, han ibiltzen giñen instruziotan. Enda juten zikun ba bokadillokin-eta Estellako emakuma zar bat. "Pinpona" izena zon, "Pinpona" esaten zien, ta haek eamaten zuen sardiñak edo tortillea edo, ta limonada ta, eamaten ziuén eta, dirue puxkat, asko ez genduken baiño gendukena hala ematen giñun.

- Han instruziotan zer egin behar izaten zenduen?

- Han mendin eta? Harrie zeon asko, ta harri bana ematen ziuén, esku-bonbak nola tiratzen zien eta. Harrika ibiltzen giñen. Eta gero ba fusillekin tiroka itten. Holako zer batzuk jartzen zittuen eta harei tiro....

- Zer jartzen zizuen tiro egiteko?

- Papel txuri bat, holako papel txuri bat estaka baten puntan, eta han halako zirko bat zeon hari tiratzeko, eta guk hemen ehizeako afizioa danok genduken ba, ta gehienak txikitzen genitun papalak.

- Eta fusilla nolako zan?

- Fusil lehenaoko antigualeko fusille zan. Gera gerratekon kanbiauko zittun baiño ordun intrukzioak itteko antigualeko fusille zan. Luze bat zan, danak igualak zien, zaharrak. Auskalo noizkok izango zien, nik ez dittut ezautzen hak. Gero mosketoiak ekarri zituen, baiño hemen Oviedon-eta itten zittuen mosketoiak. Baiño egur berdekin einddakok eta okerrak eta, ez zuen ondo tiratzen, ez zuen bate balio.

- Fusilla gaiñea egunero ibilli beharko zenduen alden.

- Ez, ez, instruziorako bakarrik ematen ziu. Aiketa bandera jurau arten.

### 3.4. Gerraren amaierako kanpaiak

- **Hizlaria(k):** Agirre Mendizabal, Genaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-043/027
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:54:31. **Bukatu:** 00:55:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Gerra bukatzera zihoala bolo-bolo zebilen, eta egun batean kanpai-hotsek adierazi zuten baietz, gerra bukatu zela. Fabrikara lanera joango balira bezala joaten ziren trintxerak egitera.

#### Transkripzioa

-Gerra bukatzera zijola batek konbestazioa, komentarioa ta komentarioa. Ta gau baten herri baten lo. Ta nik mando bat ondón neukan gaiñea, ta mandón ondón ta mandón gaiñen junda ta mandón ondo ta ni lo seko ta mandok ez [nindun] hanka azpin hartu, mando [...] ondo-ondón hantxe. Ta kanpai hotsa tin-tin-taun, tin-tin-taun!, ta bukau zala gerrea!

-Ta zertara junda zinen ba mandoa hartuta?

-Mandoa behar izaten gendun ba trastek-eta eamateko. Nee ondón tokau zan mando hori, kanpoko erreja bati lotuta. Enda nee ondón tokau zan.

-Kanpai-hotsa gerra bukatu zala esateko.

-Kanpaiakin akordau giñan eta geo gerrea bukau zala kanpai-hotsakin. Ta, mekaunen, gue poza! dedio!, bueno! Ta hartan gerrea bukau zan.

Zuen artean gerraz hitz egiten zenuten? Inork ematen zizuen gerrako notiziarik?

-Ez, ezerrez, ez. Ez ziu ezeren notiziaik ematen guri. Gu, zer esango dizut ba, fabrikea lanea juten dan [bezelaxe] juten giñen gu.

### 3.5. Mendia bonbardaketa garaiko babesa

- **Hizlaria(k):** Urzelai Zabaleta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-046/033
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:59:02. **Bukatu:** 00:59:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Bonbardaketak iraun zuen bitartean, beraiek mendian egon ziren babesteko.

### Transkripzioa

-Juan, esan dezu lau orduz.  
 -Lau ordun bonbardeon Gernikan aittu zan.  
 -Eta bitartean zuek mendian?  
 -Ba guk mendia irten.  
 -Ta mendin nun egon ziñaten?  
 -Etzinda, etzinda lapitz bat (ahoa hartuta). Gui esaten ziun belarritati ude irtetzen dula bonbakin, eta hango zea genduken guk, ordena genduken lapitze edo plumeroa edo lapitze ahoan ibiltzeko; edo bestela egur bat igual, egur bat hartuta, baiño lapitze ibiltzen gendun eta hura hartu ta belarritati udik ez dula irtetzen. Belarritati ude irten ezkeo ba lehertuta geatzen zan.  
 -Eta mendin zu bakarrik egon ziñan ala bazenuen jendea inguruan jende gehiago?  
 -Bai. Gaztea dana. Ahal tzuna, jun al tzuna, dana.

### 3.6. Gernikako bonbardaketa eta haren ondorenak

- **Hizlaria(k):** Urzelai Zabaleta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-046/035
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:00:41. **Bukatu:** 01:02:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Juan mendian egon zen Gernikako bonbardaketa gertatu zenean. Bonbak nolakoak ziren gogoan du. Mendian egoteagatik salbatu zen. Bonbardaketa bukatutakoan, herrira jaitsi eta laguntzen aritu ziren.

### Transkripzioa

-Zuek ikusten zenduen abioetik bonbak botatzen ari ziren garaia?  
 -Bai.  
 -Ikusten zan nola erortzen zan?  
 -Bai, bai, dana, dana!  
 -Nolako zan?  
 -Bonbak, bonbak zien holakoxe luzeerakok, haundik'e bai, baita milla kilokok ere bota zittuen baten bat edo beste; milla kilokok ere zulo galantak itten zittuenak han. Han bazeren irik, iri-pare bat bazeon han ta haiei'e jo zien bonbek ondoren ta han dana txikituta utzi zittun haik'e. Irik'e, iri-parea.  
 -Juan, lau orduz mendin egon ziñan?  
 -Bai, bai. Eta ni bezela ibiltzeko gauza zana dana. Mendira ihes inda, handik salbau giñen gu; mendin eon giñelako.  
 -Eta noiz jetxi ziñeten?  
 -Illuntzan. Ta bueno, "ahora hay que ayudar aquí", ta jo..., hay que ayudar ta danak bildur... "Ahora que no se marche nadie de aquí, hay que ayudar al pueblo" ta. Hantxe. Launtzeko. Nik gaue pasau nun geo han. Bonbardioa einda gero gaue Gernikan pasau nuen nik, "Orden Publikoan" neon eta!

-Laguntzen.  
-Bai, laguntzen.

### 3.7. Bonbardaketa osteko zereginak

- **Hizlaria(k):** Urzelai Zabaleta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-046/036
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:02:12. **Bukatu:** 01:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gernikako bonbardaketa bukatu zenean, Juan eta beste hainbat pertsona herrira itzuli ziren. Orduan ikusitako irudiak gogoan ditu. Juan ordena publikoaz arduratzen zen, eta zer zeregin izaten zituen azaltzen du.

#### Transkripzioa

-Juan, esplikau puxkat, zuk buruan eukiko dezu imajina ta. Kalera jatsi ziñen garaien zer ikusi zendun han? Nola zegon hura?  
-Gernika? Ba dana harriz beteta, etxek oson dana tapauta. Eta han jendea, hemen dau nere ama, hemen dau nere andrea, hemen dau nere umea, eta billa hantxe harri pillan. Gora iota, harri arten gora iota; eran etxetaa junda haik, eta danak han dauzkela barrun familikok, kontatzen, hori ikusi gendun nik han. Hori han ikusi nun nik hori.  
-Herioa.  
-Zuk "Orden Público" zinen, zertan aritu zinen? Gorputzek ateratzen?  
-Orden Público ba, guardia in behar izaten du, guardie ein, guardien ein behar izaten dittu, ta gau guztin'e han fusillekin. Karabinak, fusillek ez, karabinak genduzken guk. Eta hantxe gardin gauen.  
-Toki baten ala kalean?  
-Kalen, kalen. Kalea zaitzen. Ta geo kastigo haundie zeuken orden publikok.

### 3.8. 'Cara al Sol'en beste bertsiio bat

- **Hizlaria(k):** Gereñu Odria, Iñaxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-051/004
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:05:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** Gerra ostean, eskolan ere euskara debekatu egin zuten, eta Cara al Sol abestera behartzen zituzten. Ume batzuek, baina, kantaren hitzak aldatu zituzten.

#### Transkripzioa

-Esan dezu "Cara al sol" kantatu behar izaten zenuela.  
-Bai, eskolaa sartuta lenengo "Cara al sol" kantatzen gendun. Ta gero

mutiko batzuk listok'e bazeren eta etaa zuen alrrebes: "Cara al sol con la camisa rota me puse al fuego antes de ayer. Me hallará la muerte si me llega sentado en un café" ta. Bazeren mutiko listok! Bai. Eta hola, hola zien gure kontuk.

-Gerra garaian euskeraz...

-Ez ziuen uzten, prohibittu in zuen. Bai. Debekau in ziuen. Ta erderaz, dana erderaz in behar izaten gendun. Bueno, guk geure artean euskeraz eitten gendun eta etxen euskeraz, baiño bestela eskolan eta hola debekauta eon zan. Zenbait denporan? Ba ez dizut esango, ez naiz akordatzen zenbait denpora. Baiño hori bai.

-Beldurrez ibiliko zineten.

-Honbre.

### 3.9. Goserik ez, baina beharra bai

- **Hizlaria(k):** Gereñu Odria, Iñaxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-051/009
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:11:33. **Bukatu:** 00:12:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerra ostean, ez zuten goserik pasa; ama baserrikoa zen, eta horri esker laguntza izan zuten. Goserik ez, baina beharra bai: batzuek mandarina jaten zutenean, beraiek inbidiaz egoten ziren. Behin Iñaxi eta anaiak taloak egin zituzten beren kabuz.

#### Transkripzioa

-Goserik pasatu zenduen?

-Goseik prezisamente, nezesidadea. Goseik ez. Taloa ez bazan ogie. Gero gure ama baserrikoa zan, ta beti launtasun pixkan bat. Baiño gosea gosea... Gerore boniaton garaien eta ordun pixkat, baiño gosea esateko... Honbre, akordatzen naiz gu ya eskolan ba ez dakit ba zortzi, zazpi-zortzi urte eta. Lagun batzuk diru gehiagokok izaten die leku guztitan eta batek mandarinea jaten zijoan, eta gure enbidie, guk mandarinaik ez, guk ez gendun jaten mandarinaik eta hola ta; haren usaiekin amorratzen hura jateko. Hori bai, baiño gosea-gosea... Eta behin gure anaie gaztena Oñatin bizi da ta, atsalden ama jun zan nunbaittea ta etorri zanen talo eitten harrapau gendutzen amak. Nunbait meriendatzeko gogoa euko gendun eta beste ezer ez zan eongo. Sekula ez gendun eingo baiño ordun talo eitten harrapau gendutzen amak.

-Eta zer esan zizuen?

-Ze esango ziuen, "bejondaizuela! Aindu banizue ez zenduen eingo ta. Hola.

### 3.10. Gerra garaiko giroa kalean

- **Hizlaria(k):** Iñurritegi Errasti, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-056/043
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 01:10:30. **Bukatu:** 01:11:08



- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerra garaian, giro tristea zegoen kalean: beldurra, mesfidantza...

#### Transkripzioa

-Eta garai hartan kalean zer giro zegoen?  
 -Kalen? Bueno. Trixtea. Ez zeon nik uste det konfiantzaik ez iñokin eta bildurre haundie; bildurre zeon ordun haundie. Hitz eitteko ta.  
 -Etxean esaten zizuen ez hitz eitteko jendekin?  
 -Kontu eukitzeko eta etxen, bueno... Aitte ta beti: Kontuz e, zer esaten badezue ta, nola ibiltzen zeaten eta. Beti hola.

## 4. Euskara

### 4.1. Brinkolako euskara

- **Hizlaria(k):** Agirre, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gurrutxaga, Aitor
- **Erref:** LGA-017/001
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Brinkolako euskararen ezaugarriei buruz hitz egiten du: inguruko herriekin dituen antzak eta aldeak.

#### Transkripzioa

Nik zer esango dizut ba, Brínkolako euskérea beste gaiñántzekok bezélaxe berdín-berdíñe; hízketan baiño gehiau éuko do tónun. Oin, Oñatikoa ez, Oñátikoa oso diférentea da, eta Leázpikokin baterez berriz, ez do eukíko. Hemétik hor behin Tolósaldea diférentzi haundíe dauké, baiño hemen góikok ez, hemen Goiérri, Uróla aldékok ez háinbeste, gero beste Ória aldekok Idiázabal, Segúra... horrek bai, dauké gáíñea diférentzie hízzen bátzutan ée bai, baiño géhientsu bat tónun... badaukét eta zea luzégoa píxkatxo bat.

### 4.2. Araiaiko langileen etorreraren ondorioak

- **Hizlaria(k):** Ibargutxi Larrea , Ines
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-039/017
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:27:51. **Bukatu:** 00:29:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Araian fundizio-fabrika itxi zutenean, Patrizio Etxeberria hasi zen fundizioan. Orduan, Araiatik Patriziorenera etorri ziren lanera,

eta bertakotu egin ziren. Eskolan, haien umeez ez zekiten euskaraz, baina maistrak euskaraz egiten zuen.

### Transkripzioa

-Etorri zien Legazpira, ni ondio [...] nebilela, edo eztakit. Aspaldiko kontue da. Araian itxi zan "una fundición de Ajuria"; itxi zan fundizio bat. Ajuria Enea eta, Palacio. Hori zan jauntxo bat arabarra, eta zeuken han Araian - herri txiki bat da Araia-, fundizioa zeuken. Eta berak fundizio hori itxi in zon, eta Patrizek fundizioa orduntxe estreñatzeko zeuken. Eta jente hori dana Araiakoa, hemen Leazpin dao jente asko Araiakok.

-Handikan Patrizea etorri ziran.

-Bai, eta gero Legazpiko in zien danak, hemengo in zien, hemengok balie bezela. Hori pasau zan. Eta ordun eskolan haiek ez zekien euskeraz. Hor eon tzan... Baiño Señorita Pepita horrek euskeraz asko itten ziun, zeatik zan Donostikoa; eta persona bat, bueno... Eta oso euskera politta zeuken, gurea baiño polittagoa zeuken. Oso euskera politta zeuken, Donostikoa, bai. Señorita Pepita, bai. Horrek asko, oo!, ni behiñ'e ez naiz azten berakin.

## 5. Herria, azpiegitura

### 5.1. Brinkola eta Teilarte

- **Hizlaria(k)**: Agirre, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gurrutxaga, Aitor
- **Erref**: LGA-017/002
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:01:24. **Bukatu**: 00:03:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Brinkola eta Teilarte auzoei buruz hitz egiten du.

### Transkripzioa

Eskolatik baiño nik uste det áurretik éuko zola, oseake Brínkola ta Tellárteko bi bárriok ba bere esango nuke bere bihúrritasun bat édo holáko zéan bat, eta beti esaten zitzaion Tellériartei "Madríl Txiki" eta Brínkolai "Barrio Txino". Geure bengántzea hori izaten zan, eta gere burrukak eta gere danak ba horren zéan.

Mugea eskolatik; eskolaiño Brínkola eta eskolatik bera Téllarte. Oin arte Agérrrezabal, Áiztik, Kórtak, Erráuteik in due Téllarte baiño oin Brinkolako eliza erántsita daré; San Juan zelebratzen zuen. San Juanen mézea jáiero ematen da. Brínkolan zápatu gáuen eta jáien bi mezá emango dittué. Tellárte eta Santá Mariná euko dittu bésta baték; Legázpitik ez da juten, Don Míel juten zan.

### 5.2. Dorretxearen funtzioa

- **Hizlaria(k)**: Ibargutxi Larrea , Ines
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: LGA-039/007
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:11:10. **Bukatu**: 00:12:03

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Olaetxea dorretxean jaio zen Inesen amandrea. Ingurua zaintzeko erabiltzen ziren dorretxeak lehen.

### Transkripzioa

-Dorretxe horrek ze funtzio zeuken?  
 -Hoik zien, nagusitxok itten zittuen hoiek eta asko zan bijilatzeke. Eta hori bai ikusi behar dezula. Bai, hor dare Olaetxe. Zeatik liburu bat etara zuen Leazpin eta nik hor dauket gordeta, eta zertuko dizut.  
 -Eta hori zaten zan...  
 -Bijilatzeke izaten zan hori.  
 -Ze bijilatzen zan hortik.  
 -Honbre, lapurrek edo lokesea. Nik hori ondo ez dakitt, baiño torre hoik bijilatzeke ziela bai. Zeatik e, hori eskolan, guri eskolan bastante gauza esaten ziun gauza horietaz juten giñanen eskolaa.

## 6. Ekonomia eta industria

### 6.1. Orrazi-lantegiko giroa

- **Hizlaria(k):** Gereñu Odria, Iñaxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LGA-051/021
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:32:19. **Bukatu:** 00:33:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Industria motak
- **Laburpena:** Orrazi-lantegian lana gutxitu zenean, paper-fabrikara joan zen Iñaxi lanera. Orrazi-lantegian, emakumeek egiten zuten lan gehienbat. Laneko giroaz hitz egiten du.

### Transkripzioa

-Nolatan hasi ziñan peineterian lanean.  
 -Ba ahizpa zebilen aurretik, eta harek. Eta hura gero're han geldittu zan. Gurek ba ez dakit kiebra edo ze in zon, zeozer pasau zan, eta lanik, itxi ein zan peineterie, orrazik eitten zan lekue. Eitten zuen pastak eta beste ze bazuk.  
 -Eta zuek zeundeten orrazia bera egiten zan?  
 -Orrazie, bai. Zeren makinak eta puak etaatzeko ta dana. Orrazie. Eta lanik barik /parik/ geldittu giñen eta nere anaie papeleran zebillen lanen, ta harek eskau lana. Esan zian: "Nik esango zionat Felixi aber lanik daon". Eta hurrengo egunen lanea juteko. Oin bezelako mixerik ez zeon ordun lanakin eta. Horti irten eta jun nitzen papeleraa.  
 -Inaxi, emakumeak ziñeten gehienak peineterian lanean?  
 -Bai. Gizonezkoek'e bai baiño gehiena emakumak giñen, gure saillen [lokatzatan] danok emakumak.  
 -Eta hain gaztek hamalau urtekok. Zaharragok ere izango zien ba?  
 -Bai, jesus!, bai, ezkonduk'e bai bazeren.  
 -Alde ederra egongo zan zuetatik haiengana.

-Honbre! Baiño gu dominauta eukitzen genduzten, gu gaztegek eta. "Hori ez den hola eitten" eta "gaizki ein den" eta.  
-Zeinek erakusten zizuen, zaharragoek edo nagusiek?  
-Nagusik ez, enkargauek.

## 7. Lanbideak

### 7.1. Esnea banatzeko ardura hartu zuenekoa

- **Hizlaria(k)**: Galparsoro Andueza, Maria Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: LGA-058/026
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:41:02. **Bukatu**: 00:42:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena**: Pilar esnea saltzen ibili zen 28 urtez. Bera baino lehen, esnezalea bere koinatua zen; Santu Guztien eguneko prozesioan, baina, hil egin zen. Pilarrek esnea banatzeko ardura bere gain hartu zueneko kontakatu du.

### Transkripzioa

-Pilar, zu esne saltzen ´e ibili zinen.

-Bai! Hogeita zortzi urte.

-Nun ziñela? Urretxun bizi ziñenen?

-Esne saltzen ni hemen, ezkondu ezkeo! Geroztik. Hemen pasatzen zan, lehenengo letxeroa geure koiñadoa zan. Ta hura Seguran... Parientek zeuzken haik, ta prozesioa ostirala santu egunen, famatue izaten zan. Eta geu´re han izango giñen lana tokau ez balitzaku. Koiñatak esan zigun / esantziun/: "Preparau atsaldeako ta zera ta autobusekin Segura goaz". "Ai, baiña gu ezin gaur jun" ardikin bagendun zerbait! "Zeba?" ta "Ai...", "Ba gu bagoaz ba, nahi baezue etorri prozesio ederra ikusiko dezue /ikusikoezue" ta "Bai, baiño...". Jun die, ta obran eren pariente horik, ta hori ikusten ai diela balkoi ta guzti eroi ta seko geldittu zan gizon hori. Eta haik eamaten zittuen hemen daneko esnek haik eamaten zittuen, Oñatia. Lehen-lehen zeara ematen omen zittuen, Altsasura eamaten omen zittuen hemengo esnek. Eta, gero, harek eamaten zittun; haren gizonak, jakiñe, hura diariokin zeon ta, egunero etorri behar zon, ba, harek eamaten zittun Oñatia. Baiño geldittu zien esne danak [...].

-Ta nun eamaten zittun?

-Diarioa zeon goizetik, goizen etorri zortziretan eta eguerdiko korreoa hartu eta atzea juten zan, ta ordun, bittuz-bittuz jun itten zan.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Aita hil zenetik lan eta lan (LGA-003/001)**

Felisa Arrazola Isasmendi Araotzen jaio zen 1907an. 2 urte zituela ekarri zuten Legazpira. Aita 6 urterekin hil zitzaion eta ume-zain ibili izan da beti. 11 urterekin neskame egon zen familia baten. 16 urterekin fabrika ibili zen 5 hilabetez, baina handik irten eta neskame joan zen Gasteizera. Bi urte egin ostean berriz itzuli eta fabrika jarraitu zuen lanean.

### **2. Dantza lotua eginez gero kongregaziotik kanpora (LGA-003/002)**

Lagunekin erromeriara joaten zen Oñati aldera, Brinkolara, Gabiriara... baina beti oinez. Iluntzerako ("aimetarako") etxera bueltatu behar izaten zuten. Nagusiagoak zirenean Zumarragara joaten ziren jaietara. Han dantza eginez gero kongregaziotik kanpora botatzen zituzten eta berriz kongregazioan onartzeko erreguka ibiltzen ziren.

### **3. Garizuman sokasaltoan edo kalderonketan jolasten zuten (LGA-003/003)**

Jolasak. Garizuman sokasaltoan eta "kalderonketan" jolasten zuten. Nola egiten zuten "kalderonketan". Txirikila zer den. Handi egin eta gero ere horretan jolasten ziren, arkumea nor ordainduko jokatzeko zuten. Beste jolas bat: zulo bat egin bazter baten eta intxaurrak botatzen. Tortolosean. Lehen ez zegoen aukerarik baina pozik izaten ziren.

### **4. Dantza lotua eginez gero kongregaziotik kanpora (LGA-003/004)**

Kontuz ibili behar izaten ziren dantza egiterakoan, jendea zaintzen egoten zen eta gero serorei abisatzeko. Dantza solteak ez zuen arriskurik; lotuan egitea bekatua zen.

### **5. Zumarragatik etxerakoan galdu zeneko anekdota (LGA-003/005)**

6 urte zituela, gurasoekin Zumarragara joan zen feriara. Handik etxerakoan, gurdi bati heldu zion; eta, konturatu gabe, Legazpira beharrean, Antzuolara joan zen. Legazpin ez zegoela konturatzean, negarrez hasi zen eta Antzuolako bikote batek eraman zuen Legazpiko bidegurutzera. Han, Legazpiko ezagun batzuk tokatu ziren parean eta haiek lagundu zitoten etxera.

### **6. Goizetan eskolara eta arratsaldetan ume-zain (LGA-003/006)**

6 urterekin aita hil zenean Oñatiko baserri batera eraman zuten osaba-izebenera eta bertan ibili zen eskolan. Gauza oinarrikoak ikasi zituen bertan. Itulan ere ibiltzen zen lehengusuekin. Urtebete egin zuen Oñatin eta berriz Legazpira etorri zen. Goizetan eskolara joaten zen eta arratsaldetan ume-zain ibiltzen zen.

### **7. Amaren inguruko anekdota; gogor lan egin behar izan zuten (LGA-003/007)**

Euren amaren inguruko anekdota. Bere ezagun bat harrিতa geratu zen amak zenbat lan egiten zituen batera ikusita. Ama alarguna zenez, lan egin behar izan zuten anai-arreba guztiek ume-umetatik. Anaiak 10 urte zituen aita hil zenean, eta fabrikara joan behar izan zuen lanera.

## **8. Senarra gerratik itzuli arte lan egin behar familia aurrera ateratzeko (LGA-003/008)**

Neska eta mutil ibiltzen ziren kuadrillan. 1931n ezkondu zen. Gerra etorri zenean, senarra frontera joan zen; bera 3 umerekin eta diru gabe geratu zen. Geroago, min hartu zuen berak, eta ohean egon zen hilabetez. Gizona gerratik itzuli arte lanean ibili behar izan zuen, 5 pertsona zituen etxean-eta: ama eta 3 seme-alabak.

## **9. Neke handia zuen gari-jotzeak (LGA-003/010)**

Baserritarrak izan ez arren lan ugari egin izan dute baserrian: garia erein, garbitu, jo; belarra ihartu, artoa sartu... Garia eskuz jotzen zuten. Gariarekin metak eta mutxurioak egiten ziren soroan. Gero jo behar zenean handik bizkarrean hartu eta baserrira eraman. Lanak bukatu ostean merienda ematen zieten: gazta, arroz-esnea...

## **10. Indabak jaten zituzten egunero (LGA-003/011)**

Etxean denek ontzi batetik jaten zuten. Indabak jaten zituzten egunero. Urdai zati bat sartzen zitzaion lapikoari eta hura jaten zuten gainean zatiak eginda. Postrea: sagarrak.

## **11. Alfonso XIII. ikusi zuen Amaran (LGA-003/012)**

Kanpora egin izan dituen bidaiak: Donostiara lehenbiziko aldiz lan egiten zuen etxekoek eraman zuten 12 urte ingururekin hondartza ikus zezan. Beste behin amak lan egiten zuen lekura joan zen langileekin batera Alfonso XIII. ikustera (inaugurazioa zen). Beste behin Pasaiaiko portua ikustera joan ziren bazkaria hartuta. Urolako trenan inauguratu zenean ere erregea hurbil izan omen zuten.

## **12. Oñatira egun-pasa oinez (LGA-003/013)**

Gaztetan asko joaten ziren Oñati aldera, Corpusetan, San Migelen buelta ikustera... Oinez egiten zuten joan-etorria. Bide-ertzak marrubiz josita egoten omen ziren. Bidezidorra nondik zegoen.

## **13. Apaizari emandako erantzunaren inguruko anekdota (LGA-003/014)**

Pazkoakoa egiteko txartel bat behar izaten zuten eta hura lortzeko apaizarengana joan behar dotrina ondo ikasita. Jose Antonio Larrea bikario zegamarra zegoen Legazpin garai batean eta harengana joan zen bere lagun bat. Apaizak zenbat jaingo dauden galdetu zion. Honen inguruko anekdota.

## **14. Umea izandakoan salda eta esnea emakumeentzat; oiloa senarrarentzat (LGA-003/015)**

Lehenago umea izaten zenean salda eta esnea ematen zitzaion emakumeari eta oiloa senarrarentzat. Ohetik jaikitzerakoan poliki-poliki hasten ziren, baina gero lanean hasitakoan gauza guztiak eurak egin behar izaten zituzten.

## **15. Belarren izenak; bakoitzaren erabilera (LGA-003/018)**

Santa Marina egunean egin zituen ibiliak. Pasira egin zuen Biurrainetik eta poltsakada belar (miura, milorria...) bildu zituen. Ondoren etxean lehortzen jarri zituen. Intxusa, azalbutzana, llanten, malba, kardua, iodo belarra eta asuna bost litro uretan egosita prestatzen den nahastea zirkulazioarentzat. Belar asko hartzen omen ditu. Hainbat belarren izenak eta zertarako diren.

Noiz bildu behar den belar bakoitza. Tentsioa erregulatzeko ze belar nahastu behar diren.

### **16. Errezil eta Aiarren arteko lehia (LGA-008/002)**

Errezildarrak eta aiarrak ez ziren ondo moldatzen. Bi herri horien arteko pasadizo bat kontaktzen du. Basarri bertsolari ezagunaren aita eta Joxerena lehengusuak ziren. Bere gurasoen izenak, Fermin eta Mikaela. Bederatzi senidetatik lau bizi dira.

### **17. Doktrina ikasgai nagusi (LGA-008/003)**

Eskolan denbora gutxi pasa zuen; garai hartan, doktrina ikasiz gero, nahikoa zen. Doktrina euskaraz ikasi zuen. Jaunartzea egin zuenean, eskola utzi eta lanean hasi zen.

### **18. Errezilgo Agarre baserrian jaioa (LGA-008/004)**

Errezilen probalariak asko badira ere, bere aitak ez zuen horretarako zaletasunik. Errezilgo Agarre baserrikoa da eta non dagoen azaltzen du. Bere baserritik gertu dagoen Granada tabernan eman zioten argazki zahar baten inguruan hitz egiten du. Erdoizta bailaran dago Joxeren baserria. Garai batean erromeriak egiten ziren bertan.

### **19. Soldadutzan 17 hilabete Afrikan (LGA-008/005)**

Gaztetan etxean jarduten zen lanean. Hamabost urte bete zituen gerra hasi zen eta anaia soldadu eraman zuten. Joxe justuan salbatu zen, baina gerra ostean Afrikan pasa behar izan zituen hamazazpi hilabete. Handik etorri eta Orioko gainean pasa zituen beste zortzi hilabete. 1942 ingurua zen.

### **20. 17 hilabete eta gero etxera (LGA-008/006)**

Erdaraz ez zekien, baina soldadutzara joan zenean ikasi zuen. Anaia ere Afrikan egon zen soldadu. Joxe artillerian egon zen, euskaldun asko tokatu zitzaizkion bertan. Berarekin tokatu ziren lagunak aipatzen ditu. Hamazazpi hilabete egindakoan izan zuen etxera bueltatzeko lehengo baimena.

### **21. Jende arriskutsua Afrikan (LGA-008/007)**

Hango ohiturak xebreak iruditzen zitzaizkion, gizonak gona jantzita ibiltzea, esaterako. Jende arriskutsua omen zen, kartetan eta jokoan diruarekin tranpa ugari egin ohi zuten. Droga kalean edonon aurki zitekeen eta askotan eskaini bazioten ere, sekula ez zuen probatu.

### **22. 15 eguneko baimenez, soldadutzatik etxera (LGA-008/008)**

Soldadutzatik etxera bueltatu zenean, 25 eguneko baimena zuen. Lau egun etortzen eta beste lau hara itzultzen behar zituen, ordea, eta bidaiari joaten zitzaizkion egun erdiak. Handik etxerako bidaiaren nondik norakoak aipatzen ditu. Villabonan jaisten zen trenetik eta Iturriotzik joaten zen oinez.

### **23. Ikatza egin eta kalera saldu (LGA-008/009)**

Handik bueltatu eta lehendabizi morroi egon zen egunero ikatza egiten lehengusu batekin Hernio azpian. Aita zenak ere urtero egiten zuen ikatza, gero saltzeko. Esnea eta berdura ere saltzen zuten. Ikatza egin zuten azkeneko urtean negu txarra izan zen eta etekinik atera ez zuten ikatza egiteari utzi zioten. Geroztik ez du berriz sekula egin.

### **24. Morroi egon zeneko kontuak (LGA-008/011)**

Morroi zegoenean, etxean egiten zuen lan bera egiten zuen. Basomutil bezala lan egiteko aukera bazegoen ere, bera ez zen sekula hartan ibili.

### **25. Lanean Azpeitian eta Legazpin (LGA-008/012)**

1950ean Legazpira joan zen eta bertan lanean hasi zen koinatu baten bidez. Lehenengo Azpeitiko fundizio batean aritu zen, baina diru gutxi irabazten zuen eta gero Legazpiko Patrizio Etxeberrian. Orduan diru gutxi zegoen baina lana erruz.

### **26. Bi urtez apopilo Legazpin (LGA-008/013)**

Lanean hasi zenean, apopilo egon zen bi urtez Legazpiko etxe batean. Orduan etxe denetan egoten zen apopiloren bat. Neskalguna bertan aurkitu zuen eta bi urte pasa ondoren ezkondu egin zen.

### **27. Emaztea donostiarra (LGA-008/014)**

Emaztea donostiarra zen. Bilbon negozio bat izan zuen bere familiak, baina han porrot egin eta Legazpira etorri ziren, Joxek lana egiten zuen lantegiko nagusia senitartekoa baitzuen. Urte eta erdi egin zuten nobio gisa eta gutxi ikusten zuten elkar, dirua ere neurrian izaten baitzuten.

### **28. Herriko festak (LGA-008/015)**

Herriko plazan musika banda izaten zen. Bere aitagarreba musikaria zen. Emaztearen familian oso begi onez hartu zuten. Erromeriarra San Pedroetan joaten ziren Aiako Arizterrazura Errezilen bizi zenean. Orduan festetan herrikirolak eta ahari-apustuak izaten ziren, besteak beste. Aizkolarien izenak eta joko bateko kontuak aipatzen ditu

### **29. Trikitilariak: 'Gelatxo', 'Elgeta', 'Sakabi'... (LGA-008/016)**

Orduko trikitilari ezagunak aipatzen ditu: Gelatxo, Elgeta... Elgeta lagun handia zuten. Alproja xamarra eta elizaren aurkakoa omen zen. Erretzaile amorratua zen. Herniora joandako ibilera bat kontatzen du. Maltzeta, Auntxa eta Sakabi ere aipatzen ditu. Joxek ez zuen dantzari ikasi. San Inazioetan Azpeitira ere joaten ziren inoiz, baina gutxitan. Hiru ordu behar ziren etxetik hara.

### **30. Lapikoak konpontzen eta puskatzen (LGA-019/002)**

Lapikoak konpontzeko zer egiten zuten azaltzen du. Lapiko zaharrak bildu eta jendea begira zegoela puskatzen zituztenekoa kontatzen du.



### **31. Zortziurrenetako ospakizunak eta jolasak (LGA-019/004)**

Zortziurren (Oktabario) eguneko ospakizunak eta jolasak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

### **32. Eskolan burlak eta 'Cara al Sol' (LGA-024/003)**

Bere gaztaroari buruz hitz egiten du: umetan etxetik eskolara oinez joaten ziren. Bera txikia zela, udaletxe atzeko eskola bota egin zuten. Eskolan denek erdaraz egiten zuten, eta beraiek euskaldunak zirenez, burla egiten zieten. Eskolan erdaraz ikasi zuten, eta tarteka Cara al Sol abestu behar izaten zuten.

### **33. Eskolan erdaldundu, gerora euskararekiko kontzientzia hartu (LGA-024/004)**

7 urterekin, fraideen eskolan hasi zen. Autobusez hasi zen joaten orduan Brinkolatik eskolara, 4. batxilerrera arte. Gerora, Urretxun eta Oñatin ikasi zuen. Ikasketa guztiak erdaraz egin zituen. Bitarte hartan, nahikotxo erdaldundu ziren beraiek ere. Hala ere, egoeraz jabetu, eta euskara berreskuratzen hasi ziren.

### **34. Euskararen aldeko borrokalaria (LGA-024/005)**

Behin antzerki bat ikustera joan ziren Bilbora, eta El Corte Inglesen euskarazko bi gramatika-liburu erosi zituen, lotsatuta baitzegoen bere orduko euskararen mailarekin. Orduetik euskararen alde aritu da.

### **35. Emaztearekin euskaraz bizitzen (LGA-024/006)**

Arrondotar batekin ezkondu zen 1989an. Hasiera-hasieratik euskaraz egin izan du emaztearekin.

### **36. Garai bateko Lepazpi (LGA-024/008)**

Garai batean Legazpi nolakoa zen azaltzen du: eraikuntzak, posta, tabernak...

### **37. Legazpiko euskara eta euskara Legazpin (LGA-024/011)**

Legazpiko eta inguruko euskarari buruz hitz egiten du. Oñatiko eta Donostiako euskararekin alderatzen du Legazpiko euskara. Legazpiko eta Brinkolako euskarari buruz hitz egiten du. Euskararen egoera Legazpin oso txarra dela esaten du.

### **38. Hikako formei buruzko hausnarketa (LGA-024/015)**

Hikako formen gaineko hausnarketa egiten du, eta aitarekin bizitako anekdota ekartzen du gogora.

### **39. Eskolako kontuak (LGA-026/001)**

Asko gustatzen zitzaion eskolara joatea. Eskolako kontuak kontatzen ditu: nola joaten zen, bazkaritarako nola moldatzen ziren...

### **40. Brinkola eta Zegama arteko tunela (LGA-026/006)**

Brinkolatik Zegamara dagoen tunelari buruz hitz egiten du: duela 130 urte inguru egin zen; eta tunelaren ingeniari arduradunak, obra bukatu baino lehentxeago, bere buruaz beste egin omen zuen, obra gaizki egin zela uste zuelako. Langileei nola ordaintzen zitzairen ere azaltzen du.

#### **41. Herriko pertsonaiak eta kultur giroa (LGA-026/010)**

Martin Pipasen, Brinkolako artzainaren, bizimoduari buruz hitz egiten du. Don Felipe Barandiaran apaizari buruz ere hitz egiten du: harekin ekintza ugari egiten zituzten. Umetan kantuan eta antzerkian ibiltzen ziren Brinkolan.

#### **42. Mendira joateko ohitura (LGA-026/015)**

Lehen ere mendira joaten ziren belarretara eta garotara. Urtean behin Arantzazura joaten ziren erromes. Otañora ere joaten zen, baita gaur egun ere.

#### **43. Lehengo sineskerak eta mitoak (LGA-026/016)**

Akategiko damari buruz hitz egiten du. Umetan soroan lan egin behar izaten zutenean, etxeok ez zieten beldurtzen Zaldi Zuria etorriko zela esanez; izan ere, nahitaez joan behar izaten zuten bestela ere lanera.

#### **44. Garai bateko Brinkola (LGA-029/004)**

Garai bateko Brinkola nolakoa zen azaltzen du. Gerora, kanpoko jendea etortzen hasi zen.

#### **45. Brinkolako euskara (LGA-029/006)**

Brinkolako euskara aldatu egin da, ikastolak edo kanpotik etorritako jendearen euskara desberdina baita.

#### **46. Inguruetako animaliak (LGA-029/010)**

Inguruetako mendietan ikusten diren animaliak: orkatzak, basurdeak... Basakatuak desagertu egin ote diren. Azeria, berriz, gero eta gehiago. Satorrei "asturianos" deitzen omen zien bere aitak. Hegaztiak.

#### **47. Gregorio Argarate "Plaentxi" (LGA-029/012)**

Brinkolara bizitzera etorritako Gregorio Argarate "Plaentxi".

#### **48. "Tunelaundi"ko lanak eta ingeniari italiarrari gertatutakoa (LGA-029/013)**

"Tunelaundi"z entzun izan duena. Bi aldeetatik ibili omen ziren lanean, Brinkola aldetik eta Zegama aldetik. Ingeniaria italiarra omen zen. Bi aldeetako taldeek zein egunetan topo egingo zuten aurreikusi omen zuen, baina esandakoa ez zela bete ikusi zuenean, bere buruaz beste egin omen zuen.

#### **49. Aizkorritik hartu zen ura Legazpirako (LGA-029/015)**

Garai batean Aizkorritik hartu zen ura Legazpiko herrirako. Ur-biltegi batzuk egin zituzten eta hodi bidez eramane zen ura herriraino.

#### **50. Mendi ibilaldiak Brinkola inguruan (LGA-029/016)**

Brinkola aldean non egin daitekeen mendi-ibilaldia. Armuño mendira joateko bidea.

### **51. Artzain ibilitakoa (LGA-031/003)**

Berrogeita hamar ardi inguru izaten zituzten, arkumetarako eta gazta egiteko. Etxe inguruko mendietan ibiltzen ziren gehienetan. Anaia zaharragoak fabrikara lanera joaten ziren, bera aritzen zen artzain lanetan.

### **52. Hemezortzi gari anegako errenta (LGA-031/005)**

Bi bizitzako baserria zen. Jabeak eta Klaudiaren familia bizi ziren han, azken hauek errentan. Baserri zaharra zen, nagusien zatia gainera handiagoa. Gainontzeko baserrien itxura berekoa, ganbara eta ukuiluarekin. Errenta garestitu zietenean Brinkolara etorri ziren, Eguzkitza baserrira.

### **53. Goldea eta laiak lurra lantzeko (LGA-031/006)**

Garia lantzeko prozesuaz ari da. Behiekin goldatzen zuten lurra. Laiekin ere aritzen ziren eta nola erabiltzen zen azaltzen du.

### **54. Artoa eta gariaren arteko desberdintasunak (LGA-031/007)**

Artoa eta garia lantzearen arteko desberdintasunaz ari da: noiz eta nola erein, jaso, etab

### **55. Gariaren inguruko lanak (LGA-031/009)**

Lehenengo garia lotu eta metak egiten ziren. Hura lehortutakoan jo egiten zen eta garbitutako lehenengo garia nagusiari eramaten zioten. Etxerako gelditzen zena kutxetan gordetzen zen.

### **56. Artoa ganbaran (LGA-031/010)**

Artoa jaso eta ganbaran lagatzen zen lehortzen. Eguraldi txarra zegoenean zuritu eta aletzeko aprobetxatzen zuten. Etxerako eta ganaduentzako izaten zen.

### **57. Baratzeko lanak ilbeheran hobe (LGA-031/013)**

Ilargiari begiratzen zioten baratzeko lanak antolatzeke orduan.

### **58. Arrautzak sei errealetan (LGA-031/014)**

Arrautzak eta kapoi emeak saltzen zituen amak azokan eta etxerako fruta erosi egin behar izaten zuten

### **59. "Anilloa" zuena zigortzen zuten mojek (LGA-031/015)**

Ordu beteko bidea zuten eskolaraino. Mojak ematen zizkieten eskolak eta hitz egiteagatik zigortzen zituzten baina ez zituzten sekula jo.

### **60. Abarkak eta gonatxoa (LGA-031/018)**

Erabiltzen zuten oinetako eta arropaz hitz egiten du: kalerako eta baserrian lanerako. Haurrek erabiltzen zuten arropa ere desberdina zen orduan.

### **61. Pelukeriarik ez (LGA-031/019)**

Trentza erabiltzen zuten buruan. Pelukeriarik ez eta etxean konpontzen zuten ilea. Zorriak ugari, hauek kentzeko orrazi estuak erabiltzen zituzten.

## **62. Txakur handi bat karta-jokorako (LGA-031/020)**

Legazpiko lagunekin elkartzen ziren jaietan karta-jokoan aritzeko. Beste joko batzuk aipatzen ditu. Jostailurik ez zutenez jokoan ala kontu-kontari ibiltzen ziren lagun artean.

## **63. Abisuak nola pasatzen zituzten (LGA-031/022)**

Telefonorik ez eta abisuak nola pasatzen ziren kontatzen du. Seinaleak jartzen ziren, kanpaiak erabili, umeak enkarguarekin bidali eta horrelakoak

## **64. Erlijioa, lehen gehiegi eta orain ezer ere ez (LGA-031/025)**

Goizeko zazpietako meza entzuten zuten ordu beteko bidea eginda. Mezara ez joatea burutik pasa ere ez zitzaien egiten. Artajorran ari zirenean amak bost misterioko arrosarioa esaten zuen.

## **65. Otorduetan zegoenetik jan behar (LGA-031/026)**

Hamabiak aldera bazkaltzen zuten eta kanpoko lanak amaitu orduko berriz afaldu. Nolako otorduak izaten ziren deskribatzen du.

## **66. Gabonetako ohiturak (LGA-031/027)**

Gabonetan familia elkartzen zen eta horrelakoetan zer jaten zuten azaltzen du. Oparirik ez zuten jasotzen.

## **67. Tximistei aurre egiteko bedeinkatutako kandelak (LGA-031/029)**

Trumoia eta tximistei aurre egiteko bedeinkatutako kandelak pizten zituzten.

## **68. Etxean urik ez (LGA-031/030)**

Etxean ez zuten urik. Kanpoan zegoen iturburutik hartzen zuten ura eta arropak garbitzera, hilabetean behin, erredera joaten ziren. Nola egiten zen azaltzen du. Norbere burua nola garbitzen zuten ere kontatzen du.

## **69. Kandelak eta petrolioa argiztatzeko (LGA-031/031)**

Argindarrik ez zuten etxean. Kandelak erabiltzen zituzten eta baita petrolioa ere.

## **70. Osasun kontuak (LGA-031/032)**

Medikua zaldiz etortzen zen etxera Oñatitik. Agindutako botikak farmazian erosten zituzten eta norberak ordaintzen zituen. Ebakuntzak egiteko Arrasate edo Gasteizera joan behar izaten zuten, umeak etxean erditzen zituzten.

## **71. Kanpaiak nola jo (LGA-031/034)**

Berrogeita zazpi urtez serora lanak egin ditu. Bere eginkizuna zein zen kontatzen du: garbiketa, kanpaia jotzea eta horrelakoa. Kanpaiekin abisuak nola pasatzen ziren azaltzen du.

## **72. Seroraren eginkizunak (LGA-031/036)**

Serora izateagatik gari platerkada bat jasotzen zuen soldata bezala. Aurrerago ezer ere ez. Azken bi urteetan baino ez du dirua jaso ordainetan. Bere eginbeharrak zeintzuk ziren azaltzen du

## **73. Brinkolako eliza (LGA-031/039)**

Brinkolako eliza deskribatzen du, bertan zeuden irudiak, pulpitua, eta abar. Loreak bere baratzetik eramaten zituen eta ez zuen dirurik kobratzen. Elizan jasotako dirua meza emateko jantziak egiteko erabiltzen zen.

## **74. Ikasketak (LGA-032/002)**

Eskolan Legazpin ibili zen, eta zer irakasle izan zituen aipatzen du. Euskara debekatua zegoen orduan, eta zekiten erdara gutxiarekin moldatu behar izaten zuten. Eskolatik ofizioa ikastera joan zen fabrikara.

## **75. Legazpiko dendak eta tabernak lehen (LGA-032/004)**

Legazpin lehen zer denda eta taberna zeuden aipatzen du.

## **76. Legazpiko euskara eta inguruko hizkerak (LGA-032/007)**

Legazpiko euskararen ezaugarriei buruz hitz egiten du: inguruko hizkeretik aldeak eta antzak.

## **77. Zer-nolako bizimodua izan zuen Legazpin ume zenetik nagusitu arte (LGA-033/002)**

Gaztea zenean, Legazpi nolakoa zen azaltzen du. Legazpiko hizkerak inguruko zer hizkerarekin duen antza aipatzen du. Plazako eskolan ikasi zuen lehenbizi, eta gerora beraiek inauguratu zuten ikastola orain dagoen lekua. Eskola bukatutakoan, aitzurrak egiten hasi zen lanean. Geroago, lanbide-eskolara joan zen. 27 urtera arte Patrizio Etxeberrriaren lantegian ibili zen lanean, eta orduan bere kontura jarri zuen lantegia.

## **78. Legazpiko tren-geltokiko kaxetan jaioa (LGA-035/001)**

Bere burua aurkezten du. Brinkolako Gureitegi auzoko treneko etxetxoan jaio zen. Aita eta aitona trenbideetako langileak izan ziren, eta ama treni bidea ematen aritzen zen. Aitona izan zen lehenengoa erretiroa kobratzen.

## **79. Tren-geltokiko etxetxea (LGA-035/003)**

Bere jaiotze-lekua deskribatzen du. Amak farola edo eta banderaz treni seinaleak egiten zizkien. Komun eta urik gabe egon ziren denbora luzez.

## **80. Arropak garbitzeko lixiba (LGA-035/004)**

Arropak garbitzeko lixiba nola egiten zuten azaltzen du. Hamabostean behin egiten zuten, eta xaboa etxean egin ohi zuten garai hartan seboarekin. Arropak erreka harrien kontra astindu eta xaboiu egiten zituzten.

### **81. Brinkolako eskolan 14 urtera arte (LGA-035/006)**

14 urtera arte Brinkolako eskolan ibili zen. Neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten. Apaiza izan zuten lehenengo maisu, eta gerora maistra izan zuten. Erdaraz ikasteagatik "baleak" deituriko sariak ematen zizkien apaizak. Euskaraz ikasten zuten, etxeokoez ez zekiten erdaraz. Maistraren aipamena egiten du.

### **82. Etxetxoan bizitzeagatik trenan dohainik (LGA-035/008)**

Brinkolako eskola utzi eta gero, Zumarragako mojetan ikasi zuen. Trenez joaten zen, tren-geltokiko etxetxoan bizitzeagatik dohainik zuten trenan.

### **83. Jaunartzerako prestaketak eta ondorengo ospakizuna (LGA-035/009)**

Mojekin askotan errezatu behar izaten zuten. Jaunartzea egiteko, Legazpiko bikarioarengana joan behar izaten zuten doktrina ikastera. Jaunartzeko ospakizuna nolakoa izaten zen azaltzen du.

### **84. Umezain Legazpiko Nikasiorenean (LGA-035/010)**

14 urterekin Legazpiko Nikasioren harategira joan zen; bertan, umeak zaindu eta etxeoko garbiketak egiten zituen. Legazpiko garbitegiaren aipamena eta arropak eramateko zinkezkako ontziak.

### **85. Jolastokirik ez eta apeaderoan eta plazan umezain (LGA-035/012)**

Neskame egon zen lekuan bi ume zaindu zituen. Geraleku aldera eramaten zituen umeak eta han entretenitzen zituen; ez zegoen jolaslekurik, eta plazan elkartzeko ziren. Zaindu zituen haurrak jaiotzen ikusi zituen.

### **86. Fardelaren ordezkari trapua (LGA-035/013)**

Garai hartan ez zegoen haurrentzako fardelik eta trapuekin edota Frantziatik ekartzen zuten plastikozko beste sistema batekin moldatzen ziren.

### **87. Haurren garbiketa arraska eta baldeetan (LGA-035/014)**

Umeak baldeetan bainatzen ziren; Anixetak, haurrak izan zituenean, terrenan garbitzen zituen, arraskan jarrita. Lehenengo garbigailua haurrak izan zituenean erosi zuen, eta makina hark xaboiu bakarrik egiten zuen.

### **88. Brinkolatik Legazpiko orrazi-lantegira lanera oinez. (LGA-035/015)**

Neskametza amaitutakoan, Legazpiko orrazi-lantegian hasi zen lanean. Lantokia deskribatzen du, oinez joaten zen lantokira Brinkolatik. Lantegiko nagusiaren aipamena. Lantegian lan gutxi zenean, nagusiaren etxera joaten zen lanera.

### **89. Orrazi-lantegiko zereginak (LGA-035/016)**

Orrazi-lantegian "esnelit"ezko plakak egiten zituzten, eta horrekin orraziak eta botoiak egiten zituzten, besteak beste. Azidoarekin lan egiten zuten eta ez zuten inongo babesik izaten. Legazpiko botoi-lantegira eta kanpora saltzen zituzten produktuak.

### **90. Orrazi motak (LGA-035/017)**

Orrazi mota ugari aipatzen ditu. Kolorea emateko, kimiko batek egiten zituen nahasketak. Etxetik eramaten zuten bata erabiltzen zuten arropa ez zikintzeko.

### **91. Lan-istripuak zirenean, zer? (LGA-035/019)**

Lantokian izandako istripu txiki baten aipamena egiten du. Ez zuten botikinik eta zerbait gertatuz gero, Patrizio Etxeberriarenera eramaten zituzten. Lantokia deskribatzen du.

### **92. Diru gutxi irabazi, baina hura etxean entregatu (LGA-035/020)**

Orrazi-lantegian, neskame izanda baino gehiago irabazten bazen ere, soldata baxua izaten zuten. Irabazitako dirua etxean entregatzen zuen.

### **93. Sakamantekasen kontuak (LGA-035/023)**

Etxean sarritan kontatu ohi zizkieten ipuin eta pasadizoak, eta horietako bat "Sakamantekas"en ipuina zen. Beldurtzeko kontatzen zitzairen.

### **94. Hiru-lau tren egunean zehar (LGA-035/024)**

Egunean zehar 3-4 tren pasa ohi ziren, jakinekoak izaten ziren. Errail bazterretik joaten ziren oinez etxera, eta Zegamara joateko tunela oinez pasatzen zuten. Trenak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Oñatik lagunduta jarri omen zen estazioa Brinkolan.

### **95. Brinkola eta Oñati arteko autobusa (LGA-035/025)**

Autobusa izaten zen Brinkola eta Oñati bitartean; esnea saltzera eta mandatari-lanetara joaten zirenentzat ondo etortzen zen.

### **96. Klase ugaritako tren-txartelak (LGA-035/026)**

Treneko txartelak, klasearen eta diruaren arabera desberdinak izaten ziren. Tren ugari aipatzen ditu. Treneko ateen krisketa eta eserleku gogorak, egurrezkoak, izaten zituzten. Txartelak zulatzen txartel-zulataileak ibiltzen ziren.

### **97. Tren-istripuak (LGA-035/027)**

Aita treneko errailak konpontzen aritzen zen. Gertatutako istripuak aipatzen ditu.

### **98. Brinkolako baserriak (LGA-035/028)**

Brinkolako baserrien aipamena, izendatu egiten ditu.

### **99. Errazionamendua, ogi-gosea eta gerrako ihesa (LGA-035/029)**

Gerra garaian ogi-gosea izan zuten; errazionamendua zegoen. Nazionalak herrira sartu zirenean, lagun batek ihes nola egin zuen kontatzen du. Herritik jende ugari ihes egin zuen.

### **100. Irin-zakuak trenetik bota inork ez konfiskatzeko (LGA-035/030)**

Ama baserrietara joaten zen eta lagunek garia eta artoa ematen zizkioten, besteak beste. Estraperloan joaten zen ama irina eta beste zenbait jaki etxera eramateko. Geltokira iritsi aurretik irin-zakuak trenetik botatzen zituzten ez konfiskatzeko.

### **101. Festetako "gonbidautza", erromeriak eta zinema (LGA-035/032)**

Brinkolako jaiak San Agustinetan izaten ziren eta baserrietan "gonbidautza" egiten zen. Zinemara Zumarragara joaten ziren. Mendiko erromerietara oinez joaten ziren, Santa Marinara, besteak beste.

### **102. Brinkolan, zentro errepublikanoa eta batzokia (LGA-035/033)**

Brinkolan bi taberna zeuden: goikoan, zentro errepublikanoa zegoen; eta behekoan, batzokia. Ikurrina jarri nahian borrokan ibili zirenekoa kontatzen du.

### **103. Arrosarioa errezatzea ezinbestekoa (LGA-035/034)**

Brinkolan San Agustin eta Telleriarten San Juan zituzten santuak. Arrosarioa errezatzera joaten ez baziren, bekatu larria izaten zen, baita dantza-lotua ere. Anekdota bat kontatzen du.

### **104. Brinkolako hizketa eta euskara batua (LGA-035/037)**

Brinkolako hizketa eta gaur egungo euskara batuaren aipamena. Anai-arreba eta lagunekin hika hitz egiten zuten. Ohitura handia izaten zen hizketan erdal kutsuko hitzak sartzea.

### **105. Baserriko jeneroa herrira (LGA-036/003)**

Baserrian behiak eta ardiak zituzten eta behi-esnea kalera saltzen zuten eskolara joan aurretik. Eguraldi txarra zenean, baba eramaten zuten denda batera, eta bertan bazkaltzen zuten.

### **106. Ibarrolako soroak (LGA-036/004)**

Ibarrolan soroak zituzten eta laborantza egiten zuten: garia, artoa, baba, erremolatxa... Lurra nola lantzen zuten eta zer tresna erabiltzen zituzten azaltzen du.

### **107. Goldea eta uztarriak (LGA-036/005)**

Behiak lotzen zizkioten goldeari soroko lanetarako; uztarria nola lotzen zen azaltzen du. Auzoan baziren uztargileak.

### **108. Soroko urte-sasoiak eta tresnak (LGA-036/006)**

Arearen eginkizuna aipatzen du. Soroko gaiak erein eta jasotzeko urte-sasoiak aipatzen ditu. Garia igitaiaz biltzen zuten, eta gero sortatan lotu.

### **109. Garia lantzeko prozesua (LGA-036/007)**

Garia lantzeko, hasieran harrian jotzen zuten; geroago, galbahean garbitu eta kutxan gordetzen zuten. Galbahea nolakoa zen eta prozesua azaltzen du.



### **110. Irina eta errota (LGA-036/008)**

Garia Zumarragako Bengolea errotara eramaten zuten eta bertan irinaren hainbesteko bat kentzen zieten. Irina nola neurtzen zuten azaltzen du.

### **111. Etxeko ogia (LGA-036/009)**

Etxean ogia nola egiten zuten azaltzen du. Ero-mahaian egiten zuten ogi masa.

### **112. Gari-jotzea (LGA-036/010)**

Gari-jotzea auzolanean egiten zuten, etxe gehienetan egoten zen gari-jotzeko makina.

### **113. Legazpiko eta Zumarragako azokak (LGA-036/011)**

Legazpira joaten ziren azokara eta arrautza eta oiloak saltzen zituzten, frontoian izaten zen. Jakiak beso-saskian eramaten zituzten. Zumarragan igandetan egiten zen azoka.

### **114. Izarak eta arropak garbitzen (LGA-036/013)**

Izarak garbitzeko lixiba egiten zuten, xaboa erabiltzen zuten. Bi harri izaten zituzten; eta busti eta xaboiu ondoren, ontzi berezi batean jarri eta ur-berotan edukitzen zituzten egosten. Kolorezko jantziak ez ziren lixibatan garbitzen.

### **115. Gorputza eta arropa garbitzeko moduak (LGA-036/014)**

Arropak eta gorputza garbitzeko, xaboi berdina erabiltzen zuten; baina, gehienetan, ura bakarrik. Gorputza garbitzeko, ura ontzietan berotzen zuten.

### **116. Etxerako bidea egiten (LGA-036/015)**

Etxera biderik ez zegoen garaia aipatzen du. Neska eta mutil aritu ziren bidea egiten, baita Francisca bera ere.

### **117. Eskolako oroitzapenak (LGA-036/016)**

Eskolan Legazpin ibili zen, plazako eskolan. Maistra euskaldunak zituen, erdaraz ikasten bazuten ere. 7 urterekin hasi zen eskolan, baserriko umeak ez ziren parbulariora joaten. Eskolara hasi zenerako, bazekien irakurtzen. "Katona" liburua ipamena eta anekdota bat.

### **118. Eskolako materiala (LGA-036/017)**

Eskola deskribatzen du. Mahai gainean tinteroak edukitzen zuten. 13 urtetara arte ibili zen eskolan.

### **119. 13 urterekin ume-zaintzaile (LGA-036/018)**

13 urterekin eskola utzi eta ume-zaintzaile joan zen auzoko Urtatza baserrira. Umeak entretenitzeko, jolasak egiten zituzten, tortolosean nola jolasten zuten azaltzen du.

### **120. Etxeko garbiketarako egiteko tresnak (LGA-036/019)**

16 urterekin neskame joan zen Legazpiko maistraren etxera; eta, bertan, 8 urte eta erdi egin zituen. Garbiketarako eskuz egiten zituzten. "Arenatzeko"

zepiloaren aipamena (zorua garbitzeko erabiltzen zen). Argizaria ematen zioten zoruei, etxe askotan ziren erlategiak eta argizaria erraz lortzen zen.

### **121. Erlezaintzan aritua (LGA-036/020)**

Auzoan, erlategi bat baino gehiago zegoen; Franciscak etxe ondoko estalpe batean zituen. Ekainean, erleak tokiz aldatzen zirenean, orduan zaintzen zituen; urtean behin, umeak jartzen zituztenean, kaxatik ateratzen ziren eta ura botatzen zuen han gera zitezten. Egurrezko kaxak izaten ziren, ezta egiteko prozesua aipatzen du.

### **122. Erleen umeak (LGA-036/021)**

Erleek umeak udan izaten zituzten; eta, orduan, umeak jartzera kanpora ateratakoan, hainbat kaxatan banatzen zituzten. Erle erreginarean aipamena egiten du.

### **123. Ezkondu osteko bizimodua (LGA-036/025)**

Neskametzta amaitu zuenean, Urtatzara ezkondu zen eta 10 seme-alaba izan zituen. Seme-alaba denak etxean izan zituen, medikua Legazpitik joaten zen, ez zegoen emaginik. Bere umeen aipamena.

### **124. Umea garbitzeko eta zaintzeko erak (LGA-036/027)**

Umeak garbiontzian ura hartuta garbitzen zituzten. Paketerik ez zen izaten eta zapiak jartzen zitzaizkien. Umea sehaskan edukitzen zen.

### **125. Koltxoiak garbitzeko moduak (LGA-036/028)**

Ilezko koltxoiak izaten ziren orduan; eta haiek garbitzeko, ileak atera, tela garbitu eta ilea astindu egiten zuten. Egunero ematen zitzaion buelta koltxoiari.

### **126. Etxeko janaria (LGA-036/032)**

Gosaritan, esne-zopak eta taloa jaten zituzten. Igandetan, kafesnea eta garbantzuak izaten zituzten. Etxean ereiten zen jakia izaten zen otorduetako jakia.

### **127. Txerria hil osteko banaketak (LGA-036/033)**

Neguan txerria hiltzen zuten etxean, eta urte osorako jana izaten zuten. Udan, apaiza soroak bedeinkatzera joaten zenean, oilaskoa ematen zitzaion. Etxean odolkiak egiten zituzten eta etxekoen artean banatzen zituzten.

### **128. Mezako ohiturak (LGA-036/034)**

Mezara joatea derrigorra izaten zen, eta ordu erdiko bidea egiten zuten Legazpiko elizara joateko. Meza latinez izaten zen eta, aldare nagusiaz gain, beste 5 aldare zeuden alboetan. Egun berezietan alboko aldareetan ematen zen meza.

### **129. Argazkilaritza gertutik ezagututakoa (LGA-036/037)**

Francisca neskame egondako etxean, nagusia argazkilaria zen eta etxean hari laguntzen aritzen zen, argazkiak errebelatzen. Errebelatzea nola egiten zen azaltzen du. Argazkiak txuri-beltzean izaten ziren. Nagusiak Patrizioarenean argazki asko ateratzen zituen; bertan arotz-lanetan aritzen zen.

### **130. Gozo-dendan lan egin zuenekoa (LGA-036/038)**

16-17 urterekin, neguan Legazpiko gozo-dendan aritu zen sukaldean ikasten.

### **131. Telleriarteko eskola (LGA-038/003)**

Aurrena, etxe batean zegoen eskola. Maistra nor zen azaltzen du. 13 urtera arte ibili zen eskola horretan. Auzoko umeak eta Brinkolakoak joaten ziren eskolan. Gero, eskola berria egin zuten; bi negu egin zituen han. Maistra nor zen azaltzen du.

### **132. Auzo-eskolan, neskak eta mutilak aparte (LGA-038/005)**

Eskolako kontuak. Neskek eta mutilek aparte ikasten zuten. Bi maistra izan zituzten. Legazpin "hermanotako kolegioa" egin zutenean, mutil gehienak hara bidaltzen hasi ziren.

### **133. Gerra aurretik, erdaldun gutxi (LGA-038/008)**

Gerra ondorenean, Telleriartera jende erdaldun asko joan zen bizitzera. Brinkolako tren-tren-geltokian bi "guardaguja" (erraitzain) egoten ziren: erdaldunak ziren, eta haien umeak Telleriarteko eskolara joaten ziren.

### **134. Brinkolako tren-geltokia (LGA-038/010)**

Brinkolako tren-geltokiari buruzko azalpenak. Merkantzia-trena. Oñatin saskiak, besaulkiak... egiten zituzten, eta handik Brinkolako tren-geltokira eramaten zituzten, kanpora bidaltzeko. Oñatirako jeneroa ere trenez iritsi ohi zen. Garai batean, "Brinkola-Oñate" izena omen zuen tren-geltokiak.

### **135. "Guardagujak" eta tren-geltokia (LGA-038/012)**

Brinkolako tren-geltokian bi "guardaguja" (erraitzain) zeuden. Haien eginkizuna zein zen azaltzen dute. Treneko txartela estazioko nagusiak ematen zuen. Brinkolako tren-geltokia nolakoa zen azaltzen dute.

### **136. Ama eta neskamearekin bizi (LGA-038/015)**

Angelak zazpi hilabete zituela hil zen aita. Ama eta neskamearekin bizi izan zen baserrian. Nongo neskameak eduki zituzten aipatzen du. Gerra denboran, berriz, mutil kozkorrak edukitzen zituzten etxeko mandatuak egiteko, jan truke. Lau anaiak etxetik aterata zeuden jada (ezkonduta, mikelete, "hermano maristatan"...).

### **137. Elorregierrota baserria (LGA-038/016)**

1960 urtera arte eduki zuten errota baserrian, etxearen erdia erre zen arte. Aurretik, etxea nolakoa zen azaltzen dute: logelak, ganbara, ukuilua, sukaldea, errota...

### **138. Sotamayor dukea (LGA-038/019)**

Elorregierrota Sotamayor dukearena zen. Legazpi aldean 12-13 etxe omen zituen duke horrek. Etxea erre zen arte erreterroak izan ziren.

### **139. Errotari buruzko azalpenak (LGA-038/020)**

Errotari buruzko azalpenak. Bi errota zituzten. Errota batean, ogia egiteko garia ehotzen zuten. Beste errotan, berriz, artoa, garagarra, ilar beltza...

ehotzen ziren. Errotarriak: garia ehotzeko, harri bigunagoa; artoa-eta ehotzeko, harri gogorra.

#### **140. Errota I: errotarriak (LGA-038/021)**

Errotari buruzko azalpenak. Errotarriak. Garia ehotzeko harria Trebiñutik ekarritakoa omen zen: biguna eta zuria. Papeleran makinak jarri zituztenean, handik erosi zituzten artoa ehotzeko harriak.

#### **141. Errota II: turtujoia (LGA-038/022)**

Errotaren funtzionamenduari buruzko azalpenak. Errotak erreka uraren indarrarekin ibiltzen ziren. Turtujoia: errotapean dagoen gurpila. Urak gurpil hori biraka jartzen du, eta, gurpil horrek, aldi berean, ardatza eta ezpataren bitartez, gaineko errotarria martxan jartzen du.

#### **142. Errota III: aldaparoa (LGA-038/023)**

Errotaren funtzionamenduari buruzko azalpenak. Erreka eta errota non zeuden. Aldaparoa: errotara doan ubidea, depositoa. "Ogi-harria" eta "artoharria". Ehotzen ari zen bezala, irin bakoitza bere askara erortzen zen.

#### **143. Errota IV: danborra (LGA-038/024)**

Errotaren funtzionamenduari buruzko azalpenak. Danborrak estaltzen du errotarria. Alea nondik botatzen den, irina nondik ateratzen den... Pentsua egiteko garagarra, "txidarra" (ilar beltza), arbi-jana (nahastea)... erabiltzen ziren, eta ehotzerakoan hauts handia ateratzen zuten.

#### **144. Ganaduarentzako pentsua (LGA-038/025)**

Errotan ez zuten salerosketarik egiten: baserritar bakoitzak bere uzta eraman eta hura ehotzen zuten. Ganaduarentzako pentsua egiteko garagarra, "txidarra" (ilar beltza), arbi-jana (nahastea), pulpa... erabiltzen ziren. Artoa eta garia, berriz, etxeko jakietarako.

#### **145. Errotako lana (LGA-038/026)**

Errotako lana. Egunez egiten zuten lana: ura gutxi zegoenean, aldaparoa bete arte egon behar izaten zen. Errota martxan dagoenean, norbaitek egon behar izaten zuen hura zaintzen. Errotariak errota bakarrik martxan utzi eta ale gabe geratuz gero, harriak sua aterako arriskua legoke. Alea bota, zakuak bete eta irina pisatzen zituen errotariak. "Hamarretik bat" errotariarentzat izaten zen.

#### **146. "Hamarretik bat" errotariarentzat (LGA-038/027)**

Errotak ehotzerakoan hots bat atera ohi zuen. Hark 10 kolpe ateratzen zituenean, hamargarrena etxerako (errotariarentzako) izaten zen. Askotan, baserritarrek nahiago izaten zuten portzentaje bat ordaintzea. Errotariei egin izan zaizkien kritikak...

#### **147. Gorrina (LGA-038/029)**

Gorrinari buruz hitz egiten du: zeri eragiten dion (patata), zer itxura duen, nondik datorren, zer erabiltzen den hari aurre egiteko...

#### **148. Errotako martxa (LGA-038/030)**

Errotako lana. 40-50 kiloko gari edo arto zakuak ehotzen zituzten. Baserritarrak errotan zain egon behar izaten zuen, hura eho bitartean.

Baserritarrak etxera eramaten zuen gari-irina berak eramandako gari alearena izaten zen beti; artoarena, ez. Gari eta arto klaseei buruzko azalpenak.

#### **149. Errota eta ura (LGA-038/031)**

Elorregierrota erreka urarekin ibiltzen zen. Uraren indarren arabera mugitzen da errotarria; harri horrek indarra galtzen badu, aldaparoa hustu den seinale izaten da (eta errota itxi egin behar). Urtegia egin zutenean, hara sartzen ziren urak, eta hor etorri zen errotaren gainbehera.

#### **150. Errenta (LGA-038/033)**

Elorregierrota Sotamayor dukearena zen. Uda partean, dukeak hilabete pasatzen zuen Oñatiko jauregian, eta hara entregatu behar izaten zituzten oilasko pareak, oilo bat eta bi dozena arrautza.

#### **151. Inguruko errotak (LGA-038/034)**

Inguruko errotak: "Baxkartiko" errota, Bikuñarrieta, Olaberri, Azpikoetxe, Bengolea... Errotarien arteko harremana.

#### **152. Irin ona egiteko sekretuak (LGA-038/035)**

Irin guztiak ez dira berdinak izaten. Errota bateko eta besteko irinaren artea ba omen zen aldea. Harriak, alea emateko moduak (pixkanaka bota behar izaten da)... eragina dute azken emaitzean; irinean, alegia. Elorregierrotan arto-irin ona egiten omen zen. Oñatitik ere joaten ziren errotara taloa egiteko irin bila.

#### **153. Errotarria: kalitatea eta mantentze-lana (LGA-038/036)**

Ibilian-ibilian errotarria gastatu egiten da, eta kanalak atera eta pikatu egin behar izaten da. Kanalak ateratzeko tresna: bujarda. Harria pikatzeko tresna: "kutxilla". Angelak behin bakarrik ezagutu du harria aldatzen. Paper-lantegitik ekarri zuten harria.

#### **154. Errotak itxita (LGA-038/037)**

Gerra denboran, udaberritik udazkenera errotak zigilatuta egoten ziren. Jendea larri ibiltzen zen orduan. Guardia zibilak joaten ziren errota ixtera, eta zainketa lanak egitera. Beldurra pasatzen zuten.

#### **155. Nazionalak sartu zirenekoa (LGA-038/038)**

Gerra denborako oroitzapenak. Inguruko nazionalistak eta errepublikazaleak Ormakio mendi aldera joan ziren. Nazionalak Telleriarten sartu zirenean, ama eta Angela bakarrik zeuden etxean; neskamea jaiotetxera joana zen. Auzoko batzuen etxean pasatu zuten gaua. Gogoan du soldaduei merienda eman ziela.

#### **156. Aita Ondarretan preso (LGA-038/040)**

Gerra denborako oroitzapenak. Joxe Mariren aita abertzalea zen, eta herriko jauntxo batek salatu egin zuen. Ondarreko kartzelan egon zen preso. Aita salatu zuen gizonarekin izandako elkarrizketari buruz hitz egiten du Joxe Marik.

### **157. Etxejabea, administraria eta errenta (LGA-038/042)**

Etxejabeari, Sotamayor dukeari, buruzko kontuak. Uda partean joaten ziren O&ntilde;atira etxejabearen administrariari errenta ordaintzera. Errentaz gain, urtean zazpi egunean aritu behar izaten zuten haren lurretan basolanean: zuhaitzak sartzen, basoak garbitzen... Udana eta O&ntilde;ati aldeko lurrak dukearenak ziren.

### **158. Mote baserria eta eskola kontuak (LGA-038/048)**

Garai batean, "eskola handiena, doktrina jakitea" zela dio Joxe Marik. Gerra aurretik, euskaraz idatzi eta irakurtzen zuten Mutrikuko eskolan. Gerraostean, euskaraz egitea galarazi zuten. Ibiri bailarako Mote baserrian bizi zen aitona-amonekin.

### **159. Olatzen morroi (LGA-038/051)**

15 urte zituela morroi joan zen. Olatz auzoko bi baserrian ibili zen morroi. Haietako batean oso gustura egon zen: harreman oso ona zuen nagusiarekin.

### **160. Soldadutzako kontuak (LGA-038/052)**

Soldadu denborako kontuak. Nondik nora ibili zen soldadutzan. "Artillería costa"n ibili zen aurrena. Gero, teniente koronelak Castro Urdialesera (Kantabria) eramane zuen lorezain moduan. Bilboko Areatzan desfile ugari egiten zituzten. Artilleriatik infanteriara aldatu zuten. Lesakan ere egon zen soldadu.

### **161. Eibarren jaio zen Ines (LGA-039/002)**

Aita Ubidekoa zen, eta ama Legazpikoa. Ezkondu zirenean, Eibarren jarri ziren bizitzen, aita Eibarren egiten baitzuen lan, armagintzan grabatuak egiten. Ines Eibarren jaio zen; baina 3 urte zituela, aita hil egin zen. 4 senide ziren.

### **162. Olaetxe dorretxea lehen eta orain (LGA-039/006)**

Olaetxe dorretxea lehen nolakoa zen azaltzen du. Lehen eta orain ez du egitura bera.

### **163. Dorretxearen historia (LGA-039/009)**

Inesen amandrea Olaetxea dorretxean jaio zen; amandrearen gurasoek jauntxo bati erosi zioten dorretxea. Izan ere, askotan jauntxoek ondasunak saldu behar izaten zituzten, beren gastuak ordaindu ahal izateko.

### **164. Aitona dotorea (LGA-039/011)**

Aitona-amonei buruz hitz egiten du. Aitona oso gizon dotorea zen. Bai aitona, bai amak Patrizioarenean egin zuten lan.

### **165. Ama Patrizioarenean lanean (LGA-039/012)**

Amak Patrizioaren fabriketan egin zuen lan; nagusia atzean edukitzen omen zuen, eta behin bere etxean lan egiteko eskaini zion, han neskame izateko.

### **166. Ama Patrizioren etxeko neskame ibili zenekoa (LGA-039/013)**

Ama Patrizioren etxean aritu zen lanean, neskame. Orduko lan-baldintzak gogoan ditu Inesek: hasieran, Patrizioren etxean bazkaltzen zuen, baina gerora, bere etxean bazkaltzeko baimena eskatu eta lortu zuen.

### **167. Eskola txikia eta eskola nazionala (LGA-039/014)**

Lehenengo, eskola txikia zegoen, hiru urte inguruko umeentzat. Eskola hura ordaindu egin behar izaten zen (bi zilarrezko pezeta hilean). Eskola euskaraz eta erdaraz izaten zen. Sei urte zituztela, eskola nazionaletara pasatzen ziren. Se&ntilde;orita Pepita izan zuen maistra eskola txikian. Oso andere&ntilde;o ona zen, oso gustura ibiltzen ziren harekin.

### **168. Señorita Pepitarekin eskolan (LGA-039/015)**

Se&ntilde;orita Pepita izan zuen maistra. Harekin zer jarduera egiten zituzten aipatzen du: jolasak, kantak... Eskolan erabiltzen zituzten liburuak aipatzen ditu: entziklopedia (hainbat maila).

### **169. Euskarari buruzko iritziak denboran zehar (LGA-039/019)**

Eskola nazionalean, do&ntilde;a Felicitas O&ntilde;atibia maistra euskalduna izan zuten. Gerora, erdaldunak etorri ziren. Araiako fundiziotik etorritako jendeak ez zekien euskaraz; baina haien artean, mutilek gehiago ikasi zuten euskaraz neskek baino. Erdaraz hitz egiteak kategoria ematen zuela uste zuten neskek orduan. Euskarari buruzko iritziak aipatzen ditu.

### **170. Eskola nazionaleko baldintza onak (LGA-039/021)**

Eskola nazionalean ikasi zuen 5-14 urte zituen bitartean. Eskolan berogailua zeukaten, eta ondo egoten zen.

### **171. Irakasle izateko ikasten (LGA-039/026)**

Valladoliden errebalida egin eta gainditu ostean, maisutza ikasi zuen. Matematika, fisika eta kimika gustatzen zitzaizkion gehienbat. Karrera nola ikasi zuen azaltzen du.

### **172. Hainbat hizkuntza ikasitakoa (LGA-039/027)**

Inesek etxetik ikasi zuen maisutza. Hala, hainbat hizkuntza ikasi behar izan zituen: gaztelania, frantsesa, alemana, latina eta greziera.

### **173. Karrera bukatu eta Burgos aldera lanera (LGA-039/030)**

Lehenengo lana Patrizio Etxeberriaren bitartez lortu zuen, eta Burgosen egon zen 5 urtez eskola batean lanean. Han zer baldintzatan bizi izan zen azaltzen du.

### **174. Hika eta berorika egiteko ohitura gutxi (LGA-039/038)**

Hika egiteko ohiturarik ez du izan Inesek. Berorika medikuari eta apaizari egiten zioten. Parrokoari "Berori" deitzen zioten, hori bere izena zelakoan.

### **175. Elkarrekin bizitzeko moduak (LGA-040/005)**

Lehen, bikoteak ezkontzen zirenean, bietako bat etxera ezkontzen zen; eta denen artean ondo konpontzea zaila zen. Beste bikote batzuk beste familia batzuekin jartzen ziren bizitzen, "derecho a cocina" tratua zeukatela. Ezkongabeak apopilo egoten ziren familietan, eta horri esker, hainbat familiak bizimodua ateratzeko modua izaten zuten.

### **176. Hainbat lekutan bizitzakoak (LGA-040/006)**

"Konfiteroaren etxetik" "Elizondora" pasa zirenean, errentero ziren. Lehengo eta oraingo bizimodua alderatzen ditu.

### **177. Gutxi izan, baina denen artean banatzeko ilusioa (LGA-040/007)**

Mariaren senarraren familian, 12 senide ziren. Gozokiak erosten zituztenean, senideen eta auzokoen artean banatzen zituzten, ilusio izugarria egiten zieten.

### **178. Tabernan ematen zuten janaria (LGA-040/010)**

Lehen tabernan zer jaten zen aipatzen du: baba gorriak, dilistak, aza, azalorea, garbantzuak, paella, arroz-esnea, haragi gisatua, oilaskoa... Gogoan du oilaskoak hiltzera dedikatzen zen emakumea.

### **179. Sukaldeko lana, lehen mimatuagoa (LGA-040/011)**

Lehen sukaldeko lana gehiago mimatzen zen. Santikutz egunean, goizeko 5etan meza bat egoten zen, sukaldarientzat bereziki. Urteko okasio berezietan, familia osoa elkartzen zen. Batetik eta bestetik etortzeko, senideak nola moldatzen ziren azaltzen du Mariak. Egun horietan, biribilkia saltsan eta mingaina jaten zuten.

### **180. Ekonomikak pizteko ikatza (LGA-040/013)**

Ekonomika pizteko, ikatza erabiltzen zuten. Ikatza nondik ekartzen zuten azaltzen du.

### **181. Tabernako ordutegia eta gauzaina (LGA-040/016)**

Tabernako lana goizean goiz hasten zen, eta gauean berandu bukatzen zen. Gaueko 11etan erronda egiten zen: gauzaina egoten zen orduan, eta atean bastoiaz jotzen zuten. Julian Ojanguren zen gauzaina.

### **182. Txikiteoko ohiturak (LGA-040/018)**

Lehen txikiteorako joera handia zegoen: lana bukatu ostean izaten zen, eta kuadrillatan elkartzen ziren; ardo beltza edaten zuten, kristal lodi-lodizko edalontzi astunetan. Zahatoa ere ekartzen zuten batzuek, eta beraiek ardoz betetzen zieten; izan ere, 1944an, Mariaren senarrak ardoa saltzeko lokala ireki zuen. Zahatoan ardoa bakarrik sar daiteke, bestela, materiala hondatu egiten da-eta.

### **183. Tabernatako karta-jokoak (LGA-040/019)**

Tabernan ohitura handia zegoen musean egiteko. Baina emakumeak ez ziren sartu ere egiten tabernatan. Lehen gizonak tabernatan zer karta-jokotan aritzen ziren aipatzen du.



#### **184. Eskolan Primo de Riveraren garaian (LGA-040/021)**

1929an, Primo de Riveraren diktadura zela, eskolako sarreran letra handiekin jartzen zuen "Miguel Primo de Rivera, Marqués de Estella"; goiz batean, ordea, tapatu egin zuten protesta gisa.

#### **185. Eskolak maistrari buruzko oroitzapen txarrak (LGA-040/023)**

Eskolako maistra bat gogorra zen; beti erdaraz egiten zien. Gaur egun, uste du haurdun zegoelako, ez zela ondo egongo; eta horregatik zigortzen zituela umeak arrazoirik eta errukirik gabe.

#### **186. Josten ikasten aritu zenekoa (LGA-040/025)**

13 urte zituela, eskola utzi zuen Mariak. Bitartean, josten ikasi zuten Bikuña kalean, maistra Carmen Urkiola zuela. Josten eta makinaz bordatzen ikasi zuen. Gerora, Mariak bere kabuz jarraitu zuen josten ikasten.

#### **187. "Singer" josteko makinak (LGA-040/027)**

Lehen, josteko makinak "Singer" markakoak ziren. Pedalari emanda funtzionatzen zuten; Mariak altzari bat sortu zuen makina jasotzeko.

#### **188. Josteko pausoak eta garai hartako estiloak (LGA-040/029)**

Jantziak josteko, hainbat pauso zeuden: lehenengo, neurriak hartu; gero, tela ebaki; orduan, albaindu; eta azkenik, probatu (oro har, bi aldiz). Aldizkarietatik hartzen zituzten arropak josteko ereduak. Orduko estiloak aipatzen ditu. Eskoteak lehen nolakoak ziren azaltzen du.

#### **189. Besaburuko betegarriak (LGA-040/030)**

Lehen ere erabiltzen ziren besaburuko betegarriak; nola egiten zituzten azaltzen du.

#### **190. Lehengo eta oraingo janzeraren arteko aldeak (LGA-040/031)**

Normalean, blusek mahuka luzeak izaten zituzten lehen. Lehen emakumeek ez zituzten erabiltzen kamiseta tirantedunak eta galtzak. Gorputz motaren arabera, galtzek zer eragin duten aipatzen du.

#### **191. Material desberdina egunaren arabera (LGA-040/032)**

Lehen zer arropa mota eramaten zuten aipatzen du: material batzuk egunero erabiltzeko, eta besteak jaietarako.

#### **192. Beltzaran egoteagatik, lotsatuta (LGA-040/033)**

Azala zuria eramaten zuten; baserritarrek azala beltzarana izaten zuten. Baserritar batzuek, lotsatuta, lixibarekin garbitzen zituzten besoak.

#### **193. Gaztetako aisialdia (LGA-040/035)**

Lagun kuadrillak herrian bertan ibiltzen ziren; gainerakoan, zer jaitara joaten ziren azaltzen du. Orduko aisialdiko planak aipatzen ditu.

#### **194. Umetako jolas batzuk (LGA-040/036)**

Umetan jolasean ibiltzen ziren, eta jolas haietako batzuk azaltzen ditu.

#### **195. Kalderon jolasa (LGA-040/039)**

Kalderon jolasa azaltzen du. Haren bidez, meriendako arkumea jokatzeko zuten.

#### **196. Kalderon jolasa (LGA-040/041)**

Kalderon izena du aurretik azaldutako jokuak.

#### **197. Dendan ardoa saltzen eta gordetzen (LGA-040/044)**

Beraien dendan, ardoa nola saltzen eta gordetzen zuten azaltzen du.

#### **198. Mezaren osteko anisa eta berriketa (LGA-040/046)**

Lehen anisa edaten zen gehienbat. Baserritarrak mezara etortzen zirenean, anisa edaten zuten meza entzun ostean, eta kontu-kontari aritzen ziren.

#### **199. Gerra hasieran Legazpitik ihes egin zutenak (LGA-040/048)**

Gerra garaia ezagutu zuen Mariak: batzuek herritik alde egin zuten, eta beste batzuk herrira sartu ziren; orduan, Mariaren gertuko hainbat gizonek ihes egin zuten Frantzia aldera. Ihesaldian, tiroketa izan zen; baina, zorionez, ez zitzaizkien ezer gertatu.

#### **200. Falangeko milizianoentzako trajeak josten (LGA-040/050)**

Mariak gerrako trajeak josten zituen Falangeko milizianoentzat; beste jostun batzuk ere horretan aritu ziren.

#### **201. Garai bateko Brinkola (LGA-041/002)**

Bera umea zen garaian jaiero soinua egon ohi zen eta jendea trenez joaten zen Brinkolara. Bi taberna zeuden eta izendatu egiten ditu. Brinkolan San Agustin dute Santu eta haren inguruan entzundakoak kontatzen ditu.

#### **202. Toki ezean garia nekez (LGA-041/004)**

Seme bakarra da familian. Garai hartan Brinkolan 30 bat baserri inguru ziren, denak behiak zituztenak eta labrantzatik bizi zirenak. Gariak ez zuen urik nahi izaten eta Paxkualen etxe ondoan umela zenez komeriak izaten zituzten. Urola erreka.

#### **203. Beleen eraginez gari-artoa ereiteari utzi behar (LGA-041/005)**

Garia eta artoa ereiteari utzi behar izan zion, beleek artoa ondotik ateratzen zutelako. Amutxandako terrenoari Belategi izena jarri zioten garai batean.

#### **204. Zalkea, ilar beltza eta oloa (LGA-041/006)**

Garia eta artoa ereiteko lurra nola jorratzen zuten azaltzen du. Auzokoa etortzen zen ordainduta, lurra goldatzera. Zalkea eta ilar beltza garitan igoz gero garia erori egin ohi zen. Oloa berez jaiotzen zen gari artean eta atera egiten zuten.

#### **205. Garia eskuz jo eta dornuan garbitu (LGA-041/007)**

Garia eskuz jotzen zuten, lasta-azaoak egin eta harriaren kontra jotzen zuten. Gari-jotzeko makina auzotarren artean erositakoa zen, hauts izugarria ateratzen zuen. Tornua deiturikoari eskuz eragin eta garia garbitzen zuen.

#### **206. Garia kutxan eta artoa ganbaran (LGA-041/008)**

Garia, egurrezko kutxetan gordetzen zuten ganbaran. Gaztak ere gari artean gordetzen ziren hobeto kontserbatzeko. Artoa ganbaran uzten zen lehortzen, lokotxa sutarako erabiltzen zuten.

#### **207. Ilar beltza, alpapa, pagatxa eta ailorbea (LGA-041/010)**

Ilar beltza, alpapa eta pagatxa landatzen ereiten zituzten soroan, ganaduarentzat egiten ziren. Behiei ailorbea ematen zitzaaien eta esnari azkar sumatzen zitzaion haren gustua.

#### **208. Gari buruak jotzeko, idaurra (LGA-041/011)**

Gari buruak 4 hortzeko eskuare batekin batzen zituzten eta idaurrarekin jotzen zen. Idaurra nolakoa zen azaltzen du, etxean egiten zuten.

#### **209. Ormakio mendiko bordan aitonarekin artzain (LGA-041/012)**

10 urte zituenera arte etxean ardiak izan zituzten, aitona zena artzaina zen. Eskuz jezten ziren. Garbitasun urria izaten zen garai hartan. Ardi mutur-gorri eta mutur-beltzak. Ormakio mendian, Zegamako mugan zuten borda eta han izaten zituzten ardiak. Txilarrez egindako koltxoia eta arta-lastozko burukoa izaten zuten.

#### **210. Bordatik etxera esne marmitak astoan hartuta (LGA-041/014)**

Pikotxean jarrita jezten zituzten ardiak, lehenengo ontzi batera eta gero marmitetara, astoan hartuta eramaten zuten etxera.

#### **211. San Juan ondoreneko ardi-moztea (LGA-041/015)**

Ardi ilea mozteko guraize bereziak erabiltzen zituzten, San Juan ondorenean mozten zitzaaien. Ilea sasoi hotzean moztuz gero ardia hiltzeko arriskua egoten da. Ardi-ilea traperoari saltzen zitzaion, O&ntilde;atikoak joaten ziren Brinkolara.

#### **212. Uztarria babesteko ardi-narrua gainean (LGA-041/016)**

Ardi-larrua idi-uztarriari jartzen zioten gainean, beroarekin ez pitzatzeko. Telleriarteko uztargilearen aipamena, bertako tabernak uztarri izena zuen. Uztarriak pago egurrez egiten zituzten.

### **213. Ardi eta behorak sail batetik bestera bereizteko seinaleak (LGA-041/017)**

Ardiek ipurdi gainean seinale bat izaten zuten beste artaldeetatik bereizteko eta belarrietan akatsa deiturikoa, ebaki bat izaten zen. Behorrei burdin guri batekin egiten zitzaien seinalea.

### **214. Esne-biltzaileak eta etxez etxeko emakume erosleak (LGA-041/018)**

Esne-behiak izan zituzten aurrenean, emakumeak joaten zitzaizkion egunero esnea erostera, sobratzen zen esnea esne-biltzaileek eramaten zuten, haien aipamena.

### **215. Behi askak eta ardientzako artxarak (LGA-041/020)**

Behi askak etxean eginak izaten ziren, porlanezkoak izaten ziren. Ardienak egurrezkoak ziren eta artxara deitzen zitzaien, aitona zenak urritzezko estakekin egiten zituen belar-onduentzat. Pentsua emateko oholezko askatxoak izaten ziren. Gatzezko harria jartzen zen zintzilik ganaduak miaztu zezan.

### **216. Brinkolako eskolan urritzezko makilakadak (LGA-041/021)**

Brinkolako eskolan ibili zen sei urterekin hasita, eliza ondoan. Neska-mutilak bereizita ikasten zuten, Franco garai hartan dena zen bekatu. Maistra bertan bizi zen, gogorra zen eta zigorrak jarri eta urritz makilaz nola jotzen zituzten aipatzen du. Erdaraz ikasten zuten.

### **217. Legazpiko kolegiara berandu kromoak zirela eta (LGA-041/022)**

Brinkolako eskola utzi ondoren, Legazpiko kolegiara joan zen ikastera. Eskolan sartu orduko meza izaten zuten eta Basaberen dendan geldineua egin eta berandu joaten ziren kromoak ikusten aritzeagatik. 6 gradu zeuden eta 4.ean utzi zuen eskola, Patrizio Etxeberriak jarritako eskola zen.

### **218. Antzerkigintzan Brinkolako Don Miel apaizarekin (LGA-041/023)**

18 urterekin antzerkigintzan hasi zen Brinkolako eskolan Don Miel apaiza eta bere arrebarekin. Antzerkigintzan hastearen zergatia aipatzen du.

### **219. Lehenbiziko antzerki obra ikustera amarekin Brinkolara (LGA-041/024)**

Don Felipek eta bere ikasleek egiten zuten aurretik antzerkia eta Paxkual amarekin hura ikustera joana zen aurrez. Legazpin antzerkian aritzen zirenen aipamena. Euskaraz izaten zen eta jakineko datak izaten ziren taularatzeko. Bere lehen obra aipatzen du, jantziak Bixenta zenak egiten zizkien.

### **220. Lehenengo antzerki obra, 'Garbiñe' (LGA-041/026)**

Garbiñe antzezlanaren aipamena. Antzerkiak ikusmin handia zuen garai hartan, ez zegoen ez irrati ez telebistarik, eta zinemak ere gerora egin ziren Legazpin.

### **221. Doilorra eta beste zenbait antzezlan (LGA-041/027)**

Ibaiondo zineman "Doilorra" obra antzeztu zuten eta Paxkualen papera zintzen azaltzen du. Errezitatu beharreko pusketaren bat ahaztuz gero don Migel apaizak esaten zien ondotik. Beste antzezlan batzuen aipamena.

### **222. Brinkolako apaizak (LGA-041/028)**

Brinkolako apaizak alde egin eta Don Migel joan arte antzerkigintza kenduta egon zen Brinkolan. Lehenengo apaizaren aipamena, Don Jose Juaristi. Paxkualek monagilo harekin ikasi zuten.

### **223. 'Beaiñola' antzerki-taldea (LGA-041/029)**

Urtean antzerki bat egiten zuten, eta entseguetan eta paperak ikasten denbora luze egiten zuten. Beaiñola taldea zuen izena Paxkualen taldeak. Herritik kanpo ere antzeztu zuten, eta autobusez joaten ziren Brinkolatik. Borondateko lana zen, eta ez zuten xoxik irabazten.

### **224. 'Osaba' antzerki obraren pusketa bat (LGA-041/032)**

Osaba eta Doilorra antzezlanen aipamena eta antzerki obrako pusketa bat errezitatzen du.

### **225. Politikak antzerkia desegin zueneko (LGA-041/033)**

Brinkolako antzerki-taldeak egin zuen azken obran, ez zuen parte hartu. Politika zela-eta, antzerki-taldea desegin egin zen. Erljioarekin lotutako gauezko bilerak egin ziren Larraitzen;haien aipamena.

### **226. Tenporen pasadizoa (LGA-041/037)**

Eguraldi kontuetan zaletua da eta bere amonaren tarteko batengandik datorkio. "Miel Brinkola". Tenporen aipamena egiten du eta pasadizo bat.

### **227. Tenporak eta laino mota ezberdinak (LGA-041/038)**

Tenporak noiz izaten diren aipatzen du. Lainoen norantzaren arabera antzematen du eguraldia.

### **228. Haize motak eta berezitasunak (LGA-041/039)**

Haize mota ezberdinak eta bakoitzaren ezberdintasunak; alda-haizea, hego-haizea, ipar-haizea etab.

### **229. Euri motak (LGA-041/040)**

Euri motak eta berezitasunak.

### **230. Urriko ilbehera eta ilberria zuhaitzak botatzeko (LGA-041/041)**

Ilargiaren arabera botatzen zen egurra. Urriko ilbehera izaten da onena zuhaitzak botatzeko.

### **231. "Urriko ilberri elurra Aizkorri" (LGA-041/042)**

Esaera zaharren aipamena egiten du.

### **232. Elur mota ezberdinak (LGA-041/044)**

Elur mota ezberdinak, izotz beltza, txingorra, txingor xehea eta abar.

### **233. "San Migelen zahagik, aurretik o atzetik" (LGA-041/046)**

San Migeletan esan ohi den esaera baten aipamena; San Migelen Zahagiak.

### **234. Auzoaren laguntasuna, etxe aldaketa egiteko (LGA-042/003)**

Andoaindik Legazpira bizitzera joan zirenean, kamionean eraman zituzten trasteak. Gero, Egialde auzoko jendeak karga eramaten lagun zien idi eta gurdiekin.

### **235. Iztueta dorretxea eta inguruak (LGA-042/004)**

Andoainean, Iztueta dorretxean bizi ziren. Dorretxea lau bizitzatan banatuta zegoen, eta bizitza bakoitzak bere ganadutegia eta lurrak zituen. Bizitza bakoitzari nola esaten zioten: Batistana, Zinko (Ramonen familiarena), Txakonena eta Itsua. Tranbia etxe ondotik pasatzen zenean, jendeak leihoa ireki eta mahats-parratik mahatsa hartzen zuela gogoratzen du.

### **236. Esnezalea eta al baitaria (LGA-042/005)**

Andoainean bizi ziren garaian, Villabonako Txokolo esnezalea joaten zen esnea biltzera. Esnezaleak Batista bizilagunaren etxean egiten zuen lo, eta hurrengo egunean eramaten zuen esnea zalgurdian. Noizean eta behin, "beterinarioa" (al baitaria) joaten zen esnea analizatzera. Esnea kaltetuta egonez gero, al baitariak botarazi egiten omen zien.

### **237. Andoaindik Legazpiko Arrolara (LGA-042/006)**

Andoaingo Iztueta dorretxetik Legazpiko Arrolara joan ziren bizitzera. Arrola San Millango markesarena zen. Andoaindik Legazpira nolatan joan ziren azaltzen du. Errenteroak izan ziren 1941era arte: dirutan pagatzen zuten errenta.

### **238. 13 senide, bi aitarenak eta bi amarenak (LGA-042/011)**

Familiari buruzko azalpena. 13 anai-arreba ziren, bi aitarenak eta bi amarenak.

### **239. Umezurtzei bularra ematen (LGA-042/012)**

Ramonen amak, bular asko zuenez, umezurztegitik haurrak hartzen zituen bularra emateko. Trukean, aldunditik dirua jasotzen zuen. Behin haurrak pare bat urte egin edo gurasoak bila joaten zirenean, entregatu egiten zituzten.

### **240. Apaizari "Hi!" esan zionekoa (LGA-042/015)**

Andoainean bizi zirenean, gazteei hi eta helduei berori esan ohi zien. Legazpira bizitzera joan zirenean, ordea, asko kostatu zitzaion zuka egiten ikastea. Apaizaren aurrean, belauniko jarri, txapela jaso eta "Ave Maria Purísima" esan behar izaten zen. Behinola, aitarekin artajorran ari zela apaizari "Hi!" esan zioneko pasadizoa kontatzen du.

#### **241. Sarramendiko eskolara (LGA-042/016)**

Bederatzi urte zituela hasi zen Oñatiko Sarramendiko eskolan. Arrolatik Oñatira bi orduko bidea zuten, eta Legazpira, berriz, hiru ordulaurden. Berez, Legazpira joan behar zuten eskolara, baina Sarramendira zergatik joaten ziren azaltzen du: eskolatik etxerakoan mendiko ardiak beraiekin eramaten zituzten. Paraje horretan ardi eta artzain asko izaten zen. 11 urterekin utzi zuen eskola. Maisua nafarra zen.

#### **242. Mutikotatik ardi zaintzen (LGA-042/018)**

Mutikotatik ardiak zaintzen ibili izan zen Ramon. Ardiei zauriak sendatzen zizkien. Beste artzainekin nolako harremana zuen kontatzen du. Lo egitera etxera joaten zen.

#### **243. Eskolako eginkizunak (LGA-042/019)**

Sarramendiko auzo-eskolan 25-30 ume inguru biltzen ziren. Inguruko baserritarrekin ezagupide handia zuen Ramonen familiak. Eskola 08:30ean hasten zen. Eskolan bertan bazkaltzen zuten: nesken ardua zen bazkaria zaintzea (babarrun zopa); bitartean, mutilek egur-sortak eramaten zituzten basotik eskolara. Egur handiak auzoak eramaten zituen behi edota idiekin. Egurra eskola ondoan pilatzen zen, negurako.

#### **244. Sarramendiko maisua (LGA-042/021)**

Sarramendiko maisua nafarra zen. Maisuak auzoan pasatzen zuen astea, etxerik etxe. Maisuaren mantenuaren truke etxe horiek ez zuten eskolarik ordaintzen. Ramon familiak eskola ordaindu behar izaten zuen ez zelako auzokoa, baina etxeko ospakizunetara gonbidatzen zuten maisua.

#### **245. 11 urterekin, basora (LGA-042/022)**

11 urterekin eskola utzi eta basoko lanetan hasi zen aitarekin, 15 urtera arte. Gerora ere asteburuetan aitari laguntzen aritzen zen. Bergarako labe garaietarako eta Orbegozorako egiten zuten ikatza.

#### **246. Ikazkintza I: egur-botatzea (LGA-042/023)**

Ikatza egiteko prozesua. Lehenengotik, egurra bilatu eta txikitu egin behar izaten da. Ramonek eta aitak ez zuten urrutira joan beharrik izaten egurra lortzeko: txalia, pegoa, haritza... izaten zen inguruetan. Egur-botatzea: aizkoraz edo trontzaz. Tresna horien deskribapena egiten du.

#### **247. Ikazkintza II: txondorra egiteko tokia aukeratzea (LGA-042/024)**

Ikatza egiteko prozesua. Egurra bota eta txikitutakoan, txondorra non egin kalkulatzea. Txondorra kargatzeko ura beharrezkoa da: txondorra toki hezean egiteko kontuan hartu beharrekoak.

#### **248. Ikazkintza III: txondor-zuloa egitea (LGA-042/025)**

Ikatza egiteko prozesua. Txondor-zuloa egiteko neurriak nola hartzen zituzten. Neurri desberdinetako txondorrak egiten ziren.

#### **249. Ikazkintza IV: suetxea (LGA-042/026)**

Ikatza egiteko prozesua. Txondor-zuloa jarritakoan, egurra bildu eta suetxea egin behar izaten da. Suetxea nola egiten den azaltzen du.

#### **250. Ikazkintza V: inguruan egurra jartzea (LGA-042/027)**

Ikatza egiteko prozesua. Suetxea egindakoan, haren bueltan egurrak jarri behar izaten dira. Zer neurritako egurrak eta nola jarri behar diren aipatzen du.

#### **251. Ikazkintza VI: garoa edo orbelarekin tapatzea (LGA-042/028)**

Ikatza egiteko prozesua. Txondorra egurrekin inguratu ondoren, garoarekin edo orbelarekin tapatzen da, eta, gero, gaineratik lurrarekin estaltzen da. Lurra nola zabaltzen zuten azaltzen du.

#### **252. Ikazkintza VII: su ematea (LGA-042/029)**

Ikatza egiteko prozesua. Behin txondorra lurrarekin tapatuta, su ematen zaio. Arnasa hartzeko zuloak. Egunean behin edo bitan bete behar izaten da txondorra. Goialdean hasten da ikatza egiten. Txondor gainean ibiltzeak dituen zailtasunak... Denborarekin, txondorra nola zabaltzen den aipatzen du. "Egurrak ez du erre behar, egosi egin behar du" dio Ramonek.

#### **253. Ikazkintza VIII: ikatza ateratzea (LGA-042/030)**

Ikatza egiteko prozesua. Egun eta gau egon behar izaten zuten txondorra zaintzen. Garbitzea: lurra eta harri kozkorak kentzea. Ikatza ilunetan ateratzen zuten tartean edukitzen duen sua ikusi ahal izateko.

#### **254. Ikazkintza IX: ikatza egiteko egurra (LGA-042/031)**

Ikatza egiteko prozesua. Ikatza egiteko egur mota bat baino gehiago nahasten zituzten. Egurrik onena: pagoa. Gaztainak txinpartak ateratzen ditu. Egurrik dotoreena: altza (egur arina, hotsa ateratzen du, kolore berezia hartzen du...).

#### **255. Ikazkintza X: txondorraren lurruna (LGA-042/032)**

Ikatza egiteko prozesua. Egurra erdi egosten denean, lurraren izardiarekin edota euria egindakoan txondorrak lurruna botatzen du. Txondorraren lurruna (kea) osasungarria zela esaten omen zen.

#### **256. Ikazkintza XI: ikatza ateratzea (LGA-042/033)**

Ikatza egiteko prozesua. Ikatza ateratzeko txondorrak hilabete behar izaten zuen egosten, tamainaren arabera. Ikatza nola ateratzen zuten azaltzen du. Txondor berriak egiteko lehenago erabilitako txondor-zuloak "gauza ederra" dira. lur gozoa behar izaten da.

#### **257. Legazpi aldean, txondor asko (LGA-042/035)**

Garai batean, Legazpi aldean txondor asko zegoen. Ataundik, Nafarroatik... kuadrillak joaten ziren ikatza egitera. Ikatzaz gain, egurra ere saltzen zen inguruko lantegietara: Legazpiko teilerian, esaterako, egur asko hartzen zuten.



### **258. Kargalekuak (LGA-042/036)**

Ikatza idi edo behiekin gurdian jaisten zuten menditik. Kargalekua non zegoen azaltzen du. Bergarako labe garaietarako eta Orbegozonerako izaten zen ikatza.

### **259. Ikazkintza XII: ikatza biltzea (LGA-042/037)**

Ikatza nola biltzen zuten azaltzen du. Ikatza biltzeko "astoa" nola egiten zuten azaltzen du; gero, "astoa" bizkarrean hartzen zuten ikatza bertan biltzeko. Ikatz-zakuak.

### **260. Ikazkintza XIII: ilintxa (LGA-042/038)**

Ilintxa: txondorraren azpialdean behar bezala egosi gabe gelditutako egur edo ikatz pusketa. Oso ona sua pizteko, lehor-lehorra.

### **261. Egurra, okindegi eta teilerietarako (LGA-042/039)**

Okindegietara eta teilerietara saltzen zuten egurra. Berogailuetarako ere erabiltzen zen egurra.

### **262. Ikazkinak eta basomutilak (LGA-042/041)**

Ikazkin eta basomutil asko zen inguruetan. Ikazkin eta basomutilen arduradunak.

### **263. Mendiko batzarrak (LGA-042/043)**

Gaztetako ibilerak eta lagunartea. Mendiko batzarretan ibiltzen zen lagunekin. Ramonek soinua jotzen zuen. Antzuola, Oñati eta Bergara arteko muga zegoen baserri batean erromeria egiten zen. Arratsalde biltzen ziren, eta "aimariatako" kanpaiak jotzen zuenerako etxeratu behar izaten zen. Soldadutza ondoren, beranduago erretiratzen hasi ziren.

### **264. Bere kasa soinua jotzen ikasi (LGA-042/044)**

Bere kasara ikasi zuen soinua jotzen gaztetan. Legazpin bazen Elgoibarko soinujole bat, eta harengana joan zen ikastera, baina ez zuen harekin jarraitu bere erara jotzen zuelako.

### **265. Erromeriak eta dantza lotua (LGA-042/045)**

Mendiko erromerietan dantza lotuan egitea libre izaten zen, kalean ez. Kongregazioak. Erromerietan zaindaria egoten ziren jendeak dantza lotuan egiten zuten zelatatzen. Gero, haiek apaizei esaten zien nor ikusi zuten dantza lotuan: dantza lotuan egiten zutenak kongregaziotik botatzen zituzten. Neskekin zorrotzago jotzen zuten mutilekin baino.

### **266. Oñatiko barkilleroa (LGA-042/046)**

Legazpiko festetan, Oñatiko barkilleroa joaten zen herrira. Izoikia nola ateratzen zuen kontatzen du. Bi klasetako barkilloak edukitzen zituen. Lehenengotik, kaxa bizkarrean hartuta joaten zen; gerora, gurdi batekin ibiltzen hasi zen.

### **267. Limonada (LGA-042/047)**

Gaztetako ibilerak. Limonada edaten zuten. Neskatilek karameluak edo pastelak jaten zituzten. Ez ziren txikiteoan ibiltzen.

### **268. Zabaletako taberna eta bolatokia (LGA-042/049)**

Gaztetan, Santamañako Zabaleta baserriko tabernara joaten ziren. Bolatokia zegoen han: bolatokia deskribatzen du. Bolotan dirua jokatzeko zuten. Bolak eta pirlak nolakoak izaten ziren eta nola jolasten zuten azaltzen du.

### **269. Mezara joan aurretik, pilotan jokatzera (LGA-042/055)**

Gaztetako ibilerak. Jolasak: txirikiletan, tokatorrean, pilotan... Mezara joan aurretik pilotan jokatzera joaten omen zen.

### **270. 15 urterekin Patrizionera (LGA-042/058)**

1931ean hasi zen Patrizio Etxeberria lantegian lanean. Mutikotatik ezagutzen zuen Patrizio. Lantegian hasi zenean, porrak egiten zituen.

### **271. Donostiako trenean izandako komeriak (LGA-043/010)**

Gerra hasi zenean, instrukziora eraman zuten Genaro. Banderaren zina egin zutenekoa kontatzen du. Behin Donostiara joan ziren trenez; beraiekin joan zen batek, trena itsasora botako zuten beldurrak jota, bere burua bota nahi izan zuen trenetik.

### **272. Loiolan Lizarran baino askoz hobeto (LGA-043/011)**

Instrukzioak egiten zebiltzala, Donostiara eraman zituzten. Orduan izan zuten sarjentua oso ona zen. Lizarran, instrukzioan, zigorraz jotzen zituzten. Zazpi gazte hil ziren han. Donostian, beraz, Loiolako kuartelean, oso gustura egon ziren.

### **273. Loiolatik Teruel aldera trintxerak egitera (LGA-043/012)**

Behin, Loiolako kuartelean zeudela, Teruelera bidali zituzten. Han trintxerak egiten aritu ziren.

### **274. Kataluniako herri batzuen etimologia euskalduna (LGA-043/013)**

Terueldik Kataluniara eraman zituzten, Aitona herrira. Kataluniako herri askok euskal izena omen daukate. Bartzelonaren jatorri etimologikoa azaltzen du.

### **275. Trintxerak egiten zituzteneko giroa (LGA-043/014)**

Terueldik Kataluniara eraman zituzten, Aitona izeneko herrira. Han trintxerak egiten aritu ziren. Trintxerak nola egiten zituzten azaltzen du. Hala zebiltzala, izarrei begiratzeko ohitura zeukaten. Garai hartan ez zuen euririk egin, eta egarriak egoten ziren. Trintxerak egitean, aurkako bandokoekin hitz egiten zuten, eta giro ona zegoen bi bandoen artean.

### **276. Egarrria izan, eta ardoa topatu (LGA-043/018)**

Kataluniako Aitona herrian zeudela, ur bila zebiltzan batean, ardoa aurkitu zuten. Denak mozkor-mozkor egin ziren, eta gerora ardo hori saldu egiten zuten. Gabonetan, dirua zutenez, parranda egitea erabaki zuten; baina, bat-batean, Andaluziara eraman zituztenez, ezin izan zuten asmoa bete.

### **277. Andaluzian aurkitu zituzten gorpuak (LGA-043/020)**

Andaluzian zeudela, gau batean, gorpu pila bat aurkitu zituzten; gau hartan, trintxerak egin zituzten, eta eguna argitzean, gorpu haiek lurperatu egin zituzten. Gorpuak zer egoeratan zeuden azaltzen du.

### **278. Andaluziako alanbre-hesiak (LGA-043/021)**

Andaluzian zeudela, gau batean, alanbre-hesiak egin behar izan zituzten, baina aldi berean, aurkako bandokoak kentzen aritu ziren. Alanbre-hesiak nola jartzen zituzten azaltzen du. Eraso egin zieten behin, tiroketa egon zen, baina beraiek salbatu egin ziren.

### **279. UGTkoek tiro egin zietenekoa (LGA-043/022)**

Gerran gauzez egiten zuten lan, ikus ez zituzten. Behin, kanpamentura itzultzen ari zirela, UGTkoek tiro egin zieten.

### **280. Gauzez lanean, eta beti egarriak (LGA-043/023)**

Gerran gauzez egiten zuten lan, ilunpetan. Ilargiaren argiarekin ondo moldatzen ziren. Baina egarria izaten zuten beti, urik ez inon. Melokotoi-arbolak bazeuden han, eta melokotoi batzuk hartzen zituzten; horrela, egarria asetzen zuten.

### **281. Bi bandoen artean giro ona gauzez (LGA-043/025)**

Gerran gauzez egiten zuten lan, eta errekaen beste aldean aurkako bandokoak egoten ziren; elkarren artean hitz egin egiten zuten, eta musika-tresnak jotzen zituzten. Elkarren artean tabakoa eta egunkaria trukatzeko zituzten. Behin tiro egin zioten elkarri gauzez, eta bukatutakoan, zenbat hildako egon zituzten galdetu zioten elkarri.

### **282. Kriminala palio azpian (LGA-043/028)**

Francok jende asko fusilatu zuen, baina, hala ere, palio azpian jartzen zen. Gerra garaian ez zuten elkarren artean gerrari buruz hitz egiten.

### **283. Gerra hasi eta alde egin behar izan zuen jendea (LGA-043/030)**

Gerra hasieran, jende askok ihes egin zuen herritik. Herriko zenbait gizonek alde egin eta ezkutatuta egon zirenekoa kontatzen du.

### **284. Línea de la Concepción hirian kontrabandoan (LGA-043/034)**

Gerra ostean, Sevillako kuartelean, ez zegoen urik; handik Línea de la Concepción hirira eraman zituzten. Han tabakoa pasatzen zuten kontrabandoan mugaren alde batetik bestera.

### **285. Kontrabandoko tabakoa (LGA-043/035)**

Línea de la Concepción herrian tabakoaren kontrabandoa egiten zuten. Tabako hura nolakoa izaten zen azaltzen du.

### **286. Aita Patrizioren txoferra (LGA-044/005)**

Aitak Patricio Echeverriarentzat egiten zuen lan gidari bezala. Ordu asko egiten zituen lanean eta askotan lagun egitearren joaten ziren berarekin.

### **287. Urbeltz iturriak usain berezia (LGA-044/006)**

Gaur egun Aizkorri kalea den arren, izen asko izan ditu kaleak. Erreka pasa behar izaten zuten etxera iristeko eta parean Urbeltz iturria. Ustel usaina zuelako deitzen zen horrela.

### **288. Atagoitiko iturriko buztina aurpegirako (LGA-044/007)**

Atagoitiko iturrian azalarentzako oso ona zen buztina zegoen eta emakume asko joaten zen hara.

### **289. Errekan bainua eta amuarrainak (LGA-044/008)**

Erreka etxe ondoan zuten. Zubirik ez eta lau harri erabiltzen zituzten pasatzeko. Ura iturritik hartzen zuten eta garbitzera errekarara joaten ziren etxean urik ez zegoelako. Amuarrainak ere harrapatzen zituzten eskuekin.

### **290. Karramarroak harrapatzen (LGA-044/011)**

Basozaina atzetik izaten zuten amuarrainak eta karramarroak errekan harrapatzeagatik. Arrantza-tresnarik eta baimenik gabe aritzen ziren. Karramarro egosiak jaki itzela zen garai hartan.

### **291. Gerraosteko gosea (LGA-044/015)**

Gosea pasatakoa da. Gerraosteko errazionamendua zela eta zegoenetik jan behar zuten eta, erosterik ez zegoenean, lapurretan ere aritzen ziren. Perretxikoak ere jasotzen zituzten goseari aurre egiteko.

### **292. Bala-zorroetako brontzea traperoari (LGA-044/016)**

Legazpira falangistak sartu ziren eguna gogoan du. Osabak hamazazpi urterekin ihes egin nahi izan zuen baina Bilbon hil zuten. Soldaduekin berriketan aritzea joaten ziren bala-zorroak ematen zizkietelako. Bala-zorroetako brontzea traperoari saltzen zioten gero.

### **293. Soldaduak Legazpiko kaleetan (LGA-044/017)**

Jende askok egin zuen ihes Legazpitik, bi osaba tartean. Urtebete inguru egon ziren soldaduak Legazpin; hala ere, ez zuten tiro bakar bat bota kalean.

### **294. Estraperloko jakiak erosteko dirurik ez (LGA-044/021)**

Dendetan erosi zitezkeen estraperloan ekarritako gauza onak baina haiek erosteko dirurik ez zuten. Ogia bazegoen baina txarra eta gogorra. Gose handia pasatakoa da.

### **295. 14 urterekin lanera (LGA-044/023)**

Lanean 14 urterekin hasi zen. Han egiten ziren lanak deskribatzen ditu. Langile helduek gaiztakeriak egiten zizkieten mutiko gazteei. Bederatzi orduz egiten zuten lan egunean larunbat arratsaldea jai edukitzeko, "s&acute;bado Ingl&eacute;s" esaten zitzaion horri.

### **296. Langileentzako eskola (LGA-044/024)**

Bederatzi hilabete lanean egin ondoren Patriziok langileentzako antolatutako eskolan hasi zen: marrazketa, matematika eta horrelakoak ikasten zituzten.

### **297. Lantegiko martxa (LGA-044/027)**

Lan baldintzak gogorak ziren baina lankideen artean zeuden kontakatiluak ziren okerrenak. Altzairua erabiltzen zuten piezak ekoizteko eta hauen lan prozesua azaltzen du. Espainia osoan saltzen zituzten handik ateratako piezak eta kalitate onagatik ziren ezagunak.

### **298. Palak, pikatxoiak eta segak egiteko prozesua (LGA-044/029)**

Makinak zaharrak ziren baina langileen lanari esker produktua ona ateratzen zen. Pala eta pikatxoien lan prozesua nolakoa zen azaltzen du. Segak egitea zailagoa zen, nola egiten den ere azaltzen du.

### **299. Segak egiteko trebetasuna behar (LGA-044/034)**

Segak egiteko prozesuaren zailtasunaz ari da. Eskuz egiten zen lana eta trebetasun handia eskatzen zuen. Eserita egin zitekeen lan bakarretakoa zen hura

### **300. Fabrikako sail desberdinak (LGA-044/037)**

Fabrikan zeuden sail desberdinak izendatzen ditu. Hasiera batean beheko atezaindegitik behera ez zegoen ezer. Aurrerago sail berriak egin dira bertan eta garaikoetan baino baldintza hobekak izan dituzte bertan aritu diren langileek.

### **301. Arratsaldero txikiteoan (LGA-044/040)**

Serietan lanetik irten eta egunero aritzen zen txikiteoan gaueko hamarrak ingurura bitartean. Legazpin zeuden tabernak izendatzen ditu. Fabrikan ez zegoen edateko ohiturarik laminazioa eta fundizioa bezalako sailetan izan ezik.

### **302. Fabrika berria Ameriketara (LGA-044/045)**

Fabrika berria abiarazi zuten Venezuelara eta lau urtez egon zen han lanean. Diru asko irabazi zuen. Urtean behin etortzen zen etxera, Gabonetara.

### **303. Ameriketako materiala eskasa (LGA-044/049)**

Ameriketara produktu berdinak ekoizten zituzten baina materiala txarragoa zen. Langileak ere alferragoak ziren han. Bizimodu ona izan zuen han baina segurtasunik ez zegoen batere.

### **304. Soldata bikoitza Venezuelara (LGA-044/058)**

Venezuelara Legazpin irabazten zuenaren bikoitza irabazten zuen, hala ere beldurra pasa zuen askotan segurtasun faltagatik.

### **305. Elortza jauregira esnea ematera (LGA-045/003)**

Zaldutxiki baserrian, esne-behiak zituzten, eta Legazpin saltzen zuen esnea. Jesusa Elortza jauregira joaten zen esnea partitzera; egunean bi alditan ere joandakoa da esnea ematera. 16 urte inguruan eraman zuen esnea jauregira. Oinez joaten zen herrira, 20 litroko marmitak hartuta.

### **306. Behiak jeztea (LGA-045/004)**

Jesusak behiak jezten zituen. Behiak jezterakoan zer gorabehera izaten ziren kontatzen du.

### **307. Zaldutxiki baserria eta inguruak (LGA-045/006)**

Zaldutxiki baserri zaharra zen, eta Jesusaren familia errentero gisa bizi zen bertan. Baserritik aurrera joanda, treneko kaxeta bat zegoen, eta trena baserritik gertu pasatzen zen. Bideak ere baziren baserri inguruan. Auzoko baserriak aipatzen ditu: Mantxokola, Goitiei, Mendizabal...

### **308. Santa Luzi egunean errenta ordaindu (LGA-045/007)**

Zaldutxiki baserriko nagusia Idiazabalgoa zen, eta Santa Luzi egunean ordaindu behar izaten zioten errenta. Jesusaren aita joaten zen ordainketa egitera; dirutan ordaintzen zuten.

### **309. Behien kulpak, itulariak (LGA-045/008)**

Eskola garaian, "piper" ugari egiten omen zuen baserrian lan egin behar izaten zuelako; itulan aritu behar izaten zuen. "Behien kulpak itulariak izaten" zituela dio. Baserriko tresnak aipatzen ditu: uztarria, sardea, area, alperra... Area erabiltzen zuten alperrari karga ipintzeko. Alperra, berriz, zokorrak apurtzeko erabiltzen zen.

### **310. Uztarria lotzea (LGA-045/009)**

Umea zela, behiak nola uztatzen zituen kontatzen du. Udazkenean, aita basoan garotan zela, Jesusak bakarrik uztartzen zituen behiak. Etxeko atarian egoten zen egurrari "trangeroa" esaten zioten; haren kontra jartzen zuen uztarria, eta behiak lotzen zituen. Gero, behi-parea hartuta basora joaten zen gurdia jasotzera. Gurdia kargatu eta etxeratutakoan ere lanean jarraitu behar izaten zuen.

### **311. Gurdia (LGA-045/010)**

Baserrian zeukaten gurdiak burdinazko gurpilak zituen. Bide txarrak izaten ziren; harri libre asko izaten zen. Gurdia hartuta basora joan ohi zen aitari garoa kargatzen laguntzera.

### **312. Zuhatzak, garoa pilatzeko (LGA-045/011)**

Garoa erabiltzen zuten ganaduari azpiak egiteko. Basotik ekarritako garoa zuhatzetan pilatzen zuten. Zuhatzak urrian egiten ohi ziren, eta nola egiten zituzten azaltzen du.

### **313. Egurra eta beheko sua (LGA-045/013)**

Jesusaren aita egurretan ibiltzen zen basoan. Baserrian, beheko sua zuten; gero, jarri zuten ekonomika. Ez zitzaion beheko sua gustatzen; ontzi guztiak erori egiten omen ziren.

### **314. Hika, zuka eta berorika (LGA-045/016)**

Etxean, euskaraz egiten zuten. Gurasoekin zuka hitz egiten zuten. Gurasoek seme-alabei hika hitz egiten zien, eta anai-arreben artean ere hika hitz egiten zuten. Apaizari eta medikuari berorika hitz egiten behar izaten zitzaion. Apaizaren aurrean, gizonezkoek txapela kendu behar izaten zuten.

### **315. Elortzaneko paper-lantegia (LGA-045/019)**

Elortzaneko paper-lantegian lanean aritu zen denbora batez, ezkondu zen arte. Elortza jauregira esnea ematera joaten zen, eta harreman horren bidez lortu zuen lana paper-lantegian. Zer lan egiten zuen azaltzen du.

### **316. Militarrentzako oiloak hil behar (LGA-045/025)**

Gerra denborako oroitzapenak. Militarrek Cara al Sol kantatuz trenaren karriletik goitik behera jaisten ziren. Jesusaren familia handik gertu bizi zenez, militarrek etxera joan eta jana konfiskatzen zien. Oiloak hil eta jakia prestatu behar izaten zien.

### **317. Militarrek Legazpin sartu zirenekoa (LGA-045/026)**

Militarrek Arrasate aldetik sartu ziren Legazpin. Zaldutxiki baserriko leihoetan koltxoak jarri zituzten, ez zedin tirorik sartu. Menditik jaitsi eta tren karriletik joaten omen ziren kantuan.

### **318. Aita trenbide azpiko zubian gordeta (LGA-045/028)**

Gerra denborako oroitzapenak. Tiroak izaten zirenean, ihes egiten zuten ahal zuten tokira. Hala ere, aita atxilotuko ote zuten beldurrez egoten ziren. Soldaduak inguruetan ikusten zituztenean, Jesusaren aita trenbide azpiko zubian ezkutatzen zen; behin, soldaduak agertu zitzaizkion. Etxetik tiro hotsak entzun zituzten, baina aitari ez zitzaion ezer gertatu.

### **319. Zortzi egunerako ogia eta errazionamendua (LGA-045/031)**

Ogia labesuan egiten zuten. Zortzi egunerako ogia izaten zen; "zortzigarren egunerako hortz onak behar izaten ziren". Errazionamenduko ogiaz hitz egiten du. Hasieran, ogi marroi bat ematen zien; asko papurtzen zen. Gero, ogi beltza egiten hasi ziren, eta bestea baino hobea zen. Errazionamenduko ogia zahiarekin egiten zen.

### **320. Labesua eta ogia (LGA-045/033)**

Ogia nola egiten den azaltzen du. Pago-egurra erabiltzen zuen labesurako, brasa egiten zuelako. Labesua arbi hostoekin garbitzen zen. Ogia "eromaian" (ore-mahaian) gordetzen zuten.

### **321. Jatorduetako jakiak, etxekoak (LGA-045/035)**

Jatorduetan zer jaten zuten aipatzen du. Jakiak etxekoak izaten ziren: patata, arrautzak, indabak, esnea, ogia...

### **322. Morokila (LGA-045/036)**

Morokila nola egiten den azaltzen du.

### **323. Haragia eta txerrikia (LGA-045/038)**

Lehen, ez zen gaur egun adina haragi jaten. Txerrikia urte guztian izaten zen baserrian. Urtean, txerri bat hiltzen zuten.

### **324. Txerri-hiltzea eta txerrikiak (LGA-045/039)**

Txerri-hiltzeari buruz hitz egiten du. Gizon bat ibiltzen zen baserriz baserri txerri-hiltzen. Egindako lanagatik hainbesteko bat ordaintzen zitzaion.

Txorizoak oliotan sartzen zituzten, kontserbatzeko. Txerri-odolkiak auzoan banatzeko ohitura zuten. Txerriak kontserbatzeko harrizko txerri-askan gordetzen zuten, gatzetan. Gero, txerriak lehertzeko piper-hautsa ematen eta zintzilika jartzen zuten.

### **325. Igandetako bazkaria eta gozoa (LGA-045/041)**

Gozo gutxi jaten zuten: aldian behin, arroz-esnea izaten zen. Igandetan, garbantzua txorizoarekin jaten zuten. Etxean, lau anai-arreba eta gurasoak ziren; mahaian, bakoitzak bere platera izaten zuen.

### **326. Zumarragara, zinera (LGA-045/043)**

Gazte garaian, auzoko lagunekin ateratzen zen. Zumarragara joaten zirenean; oinez egiten zuten joan-etorria. Zumarraga "beti gehixeago" izan dela dio. Zumarragako zinera joaten ziren; tranbia egonagatik oinez bueltatu behar izaten zuten zinea bukatu ondoren ez zelako besterik egoten.

### **327. Sokasaltoan, txirikiletan eta tortoloxetan (LGA-045/045)**

Ume garaiko jolasak: sokasaltoan, txirikiletan, tortoloxetan... Txirikiletan nola jolasten den kontatzen du: "kalderon, jo eta bertan egon!". Tortoloxetan nola jolasten den azaltzen du.

### **328. Santamañako erromeria, dantza eta alpargatak (LGA-045/046)**

Erromeriatan, filarmonika eta "txanbolina" (txistua eta danbolina) izaten zen. Amorratua zen dantza sueltoan egiten. "Santamañako" (Santa Marinako) erromeriarako alpargatekin joaten ziren. Alpargatei pasta zuri bat ematen zien, kare antzekoa. Euria egiten zuenean, "hura txokolatea hura" egiten zena.

### **329. Dena bekatu (LGA-045/049)**

Lehen dena bekatu zen: "agarrauan" dantza egitea, gona altxatzea... Beti izaten zen norbait erromeria zaintzen.

### **330. Bezperetara, derrigorrez (LGA-045/050)**

Arratsaldetan, bezperetara joan behar izaten zuen; arrosarioa erreztatzen. Derrigorrez joan behar izaten zuen, bestela ez zioten kalera irteten uzten.

### **331. Brinkolara, mezara (LGA-045/052)**

Brinkolara joaten ziren mezara. Jesusaren aurrekoak Aztiriara joaten omen ziren, baina berak ez du hori gogoratzen. Goizeko sei eta erdietako mezara joaten ziren.

### **332. Eskoteak, goma motzak eta prakak (LGA-045/057)**

Jesusaren gazte garaian, ezin zen edozein arropa jantzi. Eskoteak, goma motzak, prakak... galarazita zeuden neskontzat, dena bekatu zen. Lehen, ez zuten pentsatzen apaizek prakak jantzen zituztenik.



### **333. Arropa garbitzea (LGA-045/061)**

Lixiba nola egiten zen azaltzen du. Arropak errekan urberritzen zituen. Arropa jotzeko harri bat zuen erreka bazterrean, aitzak jarria. Arropa etxetik errekarera eramateko, arropa-sarea erabiltzen zuen. Alanbrean esekitzen zituen arropak, ondo lehortzeko.

### **334. Argindarra baserrian (LGA-045/062)**

Zaldutxiki baserrian argindarra zuten. Argi gabe geratuz gero, farola eta kandelekin moldatzen ziren. Ez zuten kinkerik erabiltzen.

### **335. Teila buru gainean jarrita (LGA-045/070)**

Haurra jaio eta bi egunen barruan bataiatu behar izaten zen. Eta amak ezin zuen elizan sartu arte (eliza sartzea egin) etxetik atera, teilatu azpitik. Baratzera joateko, emakume batek buru gainean teila jarri zuela kontatzen du.

### **336. Umeak, besoetan (LGA-045/072)**

Lehen, umeak besoetan eramaten zituzten; izara batean bilduta. Sorora lanera joaten zirenean, umea manta gainean lagatzen zuten.

### **337. Ezkondu aurretik, doktrina galdetu (LGA-045/076)**

Ezkondu aurretik, doktrina ikasi behar izaten zuen. Gero, apaizarengana joan eta hark galdetu egiten zuen. Derrigorra zen ezkontzerako doktrina jakitea. Doktrina euskaraz ikasi zuen.

### **338. Arto-zuriketa eta arrosarioa (LGA-045/078)**

Etxean, arrosarioa erreztatzen zuten arto-zuriketari aritzen ziren bitartean. Lo hartzen zuenari, artoarekin jotzen omen zioten.

### **339. Esnea saltzeko tranpak (LGA-046/003)**

Esnea oso merke saltzen zen lehen. Bezeroak beti etxe beretakoak ziren. Esnearekin egiten ziren tranpak aipatzen ditu: ura botatzen zuten batzuetan. Esnea saltzeko tranpak nork erakutsi zizkion azaltzen du.

### **340. 12 urterekin fabrikari lanean (LGA-046/013)**

12 urte zituela, paper-fabrikari hasi zen lanean; orduan zer zeregin izaten zuen aipatzen du. Paper-fabrikari lan-prozesuei eta makinei buruz hitz egiten du.

### **341. Paper-fabrikari lana (LGA-046/015)**

Paper-fabrikari, 6etatik 6etara egiten zuen lan. Gizonek eta emakumeek egiten zuten han lan; bakoitzaren zereginak aipatzen ditu. Langintza gogorra zen hura.

### **342. Patrizonari joateko trikimailuak (LGA-046/018)**

Askotan izan zuen Patrizonari fabrikari joateko gogoak, baina paper-fabrikari ez zieten uzten hara joaten. Azkenean, jendeak trikimailuak egiten zituen Patrizonariari joateko.

### **343. Bizikletak eta automotoak (LGA-046/020)**

Gaztetan bizikleta bazeukaten, eta Deskargara joaten ziren bizikletan buelta ematera. Bizikleta zaharra izan arren, ondo zaintzen zuten. Anaiak automotoa zeukan; eta nolakoa zen eta nola zaintzen zuten azaltzen du.

### **344. Egunkaria haizearen kontra (LGA-046/022)**

Mezara bizikletaz joaten ziren; eta egunkaria bularrean jartzen zuten, horrela, ez hozteko haizeagatik. Sasoi ona zuten garai hartan, eta zer bidetatik ibiltzen ziren aipatzen du.

### **345. Asturiasko alfereza (LGA-046/028)**

Diziplinazko soldaduak zigortuta zeuden. Asturiaskoa zuten alfereza, eta zer eginarazten zien azaltzen du.

### **346. Gernikako bonbardaketaren lekuko (LGA-046/031)**

Lesakatik Gernikara eraman zituzten; eta, herria bonbardatu zutenean, han zegoen Juan. Egun hartako giroa eta ihesa gogoan du.

### **347. Gerrako eskapadak (LGA-046/039)**

Juan kartzelan egon zen gerra garaian. Behin eraso egin zioten, baina zortea izan zuen, eta onik atera zen.

### **348. Gerra lehertzean aita lorezain lanetan (LGA-047/003)**

Amak etxean egiten zuen lan. Aita mendian aritzen zen lanean, gerra lehertu zen arte. Gerra lehertzean jende askok alde egin zuen, ihesi, eta Patricio Etxeberria langile gabe geratu zen lantegian, aita lorezain ipini zuen enpresan.

### **349. Artzaintzari lotutako bizimodua (LGA-047/005)**

Maiatzaren lehenetik ekainaren azkenera arte mendian izaten zituzten ardiak, bordaren bat ere bazutelako mendian. Gainontzean etxe inguruan izaten zituzten ardiak. Ardiak jetzi, eta arkumeak saldu egiten zituzten, batzuek etxerako ere gordetzen zituztelarik. Saltzeko zituzten ardi eta arkumeak azokara eramaten zituzten, edo bestela harakinari saltzen zizkioten.

### **350. Azokara Zumarragara (LGA-047/006)**

Zumarragako azokara joaten ziren baserriko produktuak saltzera, ardiak eta arkumeak, batez ere, eta igande eguerditan izaten zen. Legazpiko azokan ez zegoen ohiturarik animaliarik saltzeko, arropak eta barazkiak bai, ordea.

### **351. Ganadua zintzarriekin mendian (LGA-047/007)**

Bazkarako larreak itxiturekin itxita egoten ziren, baina bestela ez zegoen arazorik ganadua mendian askatzeko, lurra pribatuak izan, ala udalarenak izan. Ganadua markatu egiten zuten, belarrietan zuloak edo markak eginaz, zulo horietako batzuei 'laiabegi' deritze. Ardi eta behorrei zintzarriak edo dunbak jartzen zitzaizkien, zintzarrien mingainak erosi edo etxean egiten zituzten, behien adarrekin, esaterako.

### **352. Gaztak ketzen (LGA-047/008)**

Ardiak jeizteko kajarik ez zen orduan, marmitak erabiltzen zituzten esnea eramateko, egurrezko kaikuak erabiltzeko ohiturarik ez zuten. Gazte ere

egiten zuten sukaldean, lehertzeko maindire bat ipini eta mahai gainean lehortzen zituzten. Gaztak ketzeko joera ere bazegoen, aitik armairu txiki bat prestatu zuen horretarako, apaletan gaztak jarri eta azpian sua, horrela ketzen zituen gaztak. Ke asko ateratzen zuten egurrak erabiltzen zituzten su hura egiteko, altza edo gaztain arbolaren adarrak, asunekin nahastuta.

### **353. Gatzura txerrientzat (LGA-047/010)**

Gazta egiteko ontziek zuloak izaten zituzten, gazte ahalik eta lehorren geratu zedin, estutu egin behar izaten zen, zuloetatik gatzura irteten zelarik. Gatzura txerrientzat izaten zen, noizbait jan ere egin zuten. Gaztak etxerako eta saltzeko egiten zituzten, saldu partikularrei saltzen zieten.

### **354. Eskolara Zumarragara (LGA-047/011)**

Eskolan Legazpin hasi zen, nazionaletan, gerra lehertu zenean, ordea, Zumarragara joan behar izan zuten eskolara, La Sallera. Oinez joaten ziren eskolara baso bidetik, kaleko jendea bizikletaz joan ohi zen.

### **355. Eskolatik baserriko lanetara (LGA-047/013)**

13 urterekin eskolako lanak amaituta, baserriko lanei ekin zion. Denetik egiten zuen, ardiak zaindu, jorra lana... Gaztaina arbolak lehortu egin ziren guztiz ia Gipuzkoa osoan, gaixotasunen bat-edo izan zuten zuhaitzek. Haritza, pagoa eta gaztaina izaten zen gehien inguruetan. Pinuak ere hasiak ziren. Trontzaz eta aizkoraz mozten zuten egurra, ondoren saltzeko, askotan bakarrik ibiltzen zen basoan lanean.

### **356. Izebaren etxerako egurrak (LGA-047/014)**

Izeba-eta etxea egiten ari ziren Legazpin bertan, eta egur asko euren jaiotetxeko basotik ekarri zituzten. Aita eta biak joan ohi ziren basora aizkora eta trontzarekin, etxe hura egiteko zuhaitzak moztera. Ondoren, behiekin edo idiekin garraiatzen zituzten egurrak.

### **357. Ikazkintza eta txondorrak (LGA-047/015)**

Ikazkintza langintza gogorra dela dio, orduan ikazkinak asko ziren, ikatza asko erabiltzen baitzen. Erremintak berotzeko-eta egur ikatza erabiliko zen gehiago, harri ikatza beroagoa zen ordea. Txondorrak basoan egiten zituzten, lan handia eskatzen zuen, egurrak moztu puska txikietan, kono forman pilatu behar izaten ziren erdian tarte bat utziz sua egiteko.

### **358. Txondorrak (LGA-047/017)**

Txondorrari behin forma emanda, orbelekin estali behar izaten zen, haizerik har ez zezan egurrak. Ondoren sua egiten zen erdian utzitako zuloan, eta egurrak egosi egiten ziren, erre beharrean, egurrak egosi egin behar izaten zuen. Zortzi egun inguru pasatzen zituen sutan txondorrak, eta azpi-azpiko egurrak ez zirenez egosten, ilintxa deitzen zitzaaien haiei, etxera eramaten zituzten, sutarako.

### **359. Zuhatzak (LGA-047/018)**

Garoa eta orbela bildu behar izaten zuten, txondorrak estaltzeko eta ganaduen azpiak egiteko. Garia igitaiarekin mozten zuten, eta gero gurdian ekartzen zuten etxera, behiekin edo idiekin. Leku askotan egiten zituzten zuhatzak, eurek ganbaran gordetzen zuten. Zuhatzari forma eman behar izaten zitzaion, eta ondo estali, euria sartuz gero goitik-edo belarra usteltzeko arriskua izaten baitzen.

### **360. Soldadutzan Gasteizen (LGA-047/019)**

Soldadutzan Gasteizen egon zen, 1947an, gerratu amaitu eta gero. Hiru talde egon ziren: 'Artillería pesada', 'Artilleria 25' eta 'Infantería'. Harriak inguruko harrobitik bizkarrean garraiatu behar izaten zituzten, ura ere zisternatan eramaten zuten, eta edaten bakarrik ematen zieten ura. Zadorra ibaira joaten ziren aurpegia garbitzera, kapitainen bat bisitan joaten zenean. Hiru hilabete eman zituen kanpamentuan, gero kuartelera mugitu zituzten, han baldintza hobeetan egon ziren.

### **361. Soldadutzako ibilerak (LGA-047/020)**

Kuartelean denetik egitea egokitu zitzaion, 'kabo' ere izendatu zuten, galoi eta guzti ibiltzen zen. Euren adineko gehienak euskaldunak ziren soldadutzan.

### **362. Gerra Legazpin (LGA-047/021)**

Hamar urte zituela lehertu zen gerra. Legazpiko jende asko ihesi joan zen herritik, beldurrez. Behin amak enkargutara bidali zuen, baina menditik tiro hotsak entzun zitezkeen eta herriko jendeak etxera itzultzeko esaten zionez, enkargurik egin gabe itzuli zen etxera. Politikaz ez zuten gehiegi hitz egiten etxean. Gerrak askotariko ondorioak izan zituen, herritik ihesi asko, atxilotuak... hala ere, Legazpin ez omen zen gertakari esanguratsu handirik gertatu.

### **363. Gerraren eragina Legazpin (LGA-047/022)**

Suhiltzaileen parketik gorantz, laurehun metro ingurura zegoen leku batean fusilatzen zuten jendea Legazpin. Egun bakarra egon ziren herrian, tiroka iritsi ziren herriko plazaraino, jendeak korrika alde egiten zuen bitartean.

### **364. Arrasatera garia ehotzera (LGA-047/024)**

Patrizioarenean egiten zuen lan aitak, Arrasate aldeko irin fabrikari ehotzen zuen hark garia, eta beste asko prezintatuta zeudenez, aitaren bidez berauek ere garia Arrasatera eramaten hasi ziren, ehotzeko. Bera joaten zen idi parearekin Arrasateraino, goizeko ordu txikietan aterata.

### **365. Patrizioarenetik zapata dendara (LGA-047/026)**

Patrizioarenean hasi zen lanean, orduan lantegietan sartzea erraza zen. Lehenengo "matxinoetan" ibili zen, eta gero zapatagintza ikasi zuen, Aldasoro legazpiarra izan zuen irakaslea. Emaztea jostuna zen, eta etxe azpian zapata denda txiki bat jarri zuten. Zapatak eskuz josi behar izaten ziren, gomazko zoruak eta abar, makinekin manipulatu zituen. Neurritan ere egiten zituen zapatak, larruzkoak eta gomazkoak. Konponketak ere egiten zituzten dendan.

### **366. Zapatagintza (LGA-047/027)**

Zoru berriak egiteko biltegira eskaria egin behar izaten zen, materiala garraiolariekin bidaltzen zutelarik. Takoiak askotarikoak zeuden, gero plastikozkoak ere iritsi ziren, barrua hutsik zutenak. 'Lijak' eta 'kardeak' erabiltzen zituzten zoruak berdintzeko.

### **367. Patriziorenean askotariko lanak (LGA-047/028)**

Patriziorenean 'uhalgile' lanak egiten omen zituen. Makinentzat larruzko korreak egiten zituen, baita polainak ere. Larruzko mantalak, gomazkoak... horiek denak eskuz egiten zituzten, beste zenbait gauza josteko makinekin. Era askotako lanak egiten zituzten, eta beharrezko materiala lortzeko "bale" batzuek zituzten.

### **368. Sastre galiziarra (LGA-047/029)**

Galiziar brigada bat etorri zen Legazpira ferrokarrila egitera. Horietako bat sastrearen zen, eta Legazpin bertan jarri zuen denda.

### **369. Arropak neurrira, baita zapatak ere (LGA-047/030)**

Ohitura handiagoa zegoen arropak neurrira egiteko, erosteko baino. Zapatak neurrira ere egiten zituen berak, nola egiten zuen kontaktzen du eta horretarako erabili ohi zuen materiala ere erakusten du. Emakumezkoen artean 36-37 neurriko hanka zen ohikoena, gizonezkoen artean, aldiz, 41-42.

### **370. Zapatagintzarako materiala (LGA-047/031)**

Larrua erabiltzen zen asko zapatak egiteko, txarolezkoak ere egiten zituen ordea. Zapatak garbitzeko ere material desberdinak zeuden, koipea mendiko botinentzat, "lustreak"...

### **371. Ezkontzean udaletxe aurrera bizitzera (LGA-047/032)**

Ezkontutakoan udaletxe aurreko etxe batera joan ziren bizitzera, emazteak han zeukan josteko lokala. Beheko solairuan josteko lokala eta sukaldea zuten, atarian komuna eta goian logela. Bi urteren buruan gutxi gorabehera, etxez aldatu eta bi seme izan zituzten.

### **372. Ilunpetan lanean aritzeagatik errekarara (LGA-048/003)**

Kaleak ilunpetan egoten ziren garai hartan. San Joan elizaren aldamenean zegoen auzoko kale-argi bakarra. Etxea, gauez, ilunpetan, eraikitzen ari zela bere aita errekarara erori zenekoa kontaktzen du.

### **373. Telleriarteko eskolan gustora (LGA-048/006)**

Aztiria auzoko neska-mutilak ere Telleriarteko eskolara joaten ziren. Ikasle gutxi zirela du gogoan. Erizainari txertoa jartzen ez ziola utzi kontaktzen du.

### **374. Militarrek eraikuntzarako materialak lapurtzen saiatu zirenekoa (LGA-048/007)**

10 urterekin etxe berriaren eraikuntzan laguntzen hasi zen. Militarrek eraikuntzarako materiala lapurtzen saiatu zirela kontaktzen du.

### **375. Gerra zibila Telleriarten (LGA-048/010)**

Gerra garaiko aeroplano eta automobil blindatuak gogoratzen ditu. Telleriartetik pasa baino ez ziren egin.

### **376. Abere denak soroan libre (LGA-048/014)**

Itxiturarik ez zuten baserrian. Oilo eta behiek jaten zituzten soroetan landatutakoak, libre ibiltzen zirelako. Antolaketa eskasa zutela aitortzen du.

### **377. Bertako bi harrobiak (LGA-048/015)**

Betidanik ezagutu du Telleriarteko kaminoa. Aitaren harrobitik ateratako harlauzak erabili ziren bidea egiteko. Harria eta area ateratzen zuten bertatik. Lanerako prozesu gogorraz hitz egiten du eta baita ateratako materialaren erabileraz ere. Harrobiaren mantentze-lana oso garestia zenez ez zuen etekinik ematen.

### **378. Garai hartako Telleriarte (LGA-048/016)**

Garai hartako Telleriarte nolakoa zen deskribatzen du: eskola, eliza eta bi taberna zeuden. Gaur baino baserri gehiago zeuden orduan.

### **379. Altzolako izebaren etxera morroi (LGA-048/019)**

Hamaika urterekin Altzolako (Aiako auzoa) izeba baten etxera bidali zuen aitak morroi. Apaizak lagundu zion bertaraino. Negarrez geratu zela kontatzen du.

### **380. "Sitxe" zer den (LGA-048/026)**

"Sitxe" (satsa) zer den azaltzen dio elkarrizketatzaileari.

### **381. Pinaburuak jasotzera basora (LGA-048/029)**

Pinaburuak jasotzera bidaltzen zuen osabak basora. Nikolasek sarri pentsatu izan ohi du ezer pasa izan balitzaio, inor bila etorri ez eta bertan geratuko litzatekeela.

### **382. Hamahiru urterekin, osabari okindegian laguntzera (LGA-048/031)**

Hamahiru urterekin, osabaren okindegira laguntzera joan zen Zumarragara. Hiru klase desberdinetako ogia nola egiten zuten kontatzen du. Bost urte egin zituen bertan.

### **383. Eibartik Zumarragaraino egunero ogia eroatera (LGA-048/033)**

Eibarko emakume bat Zumarragaraino joaten omen zen ogia eroatea. Karabineroek atentzioa deitu eta ez omen zen gehiago agertu. Negozioa egiten zuela pentsatzen du Nikolasek.

### **384. Errazionamenduko ogia (LGA-048/034)**

Zumarragan saltzen zuten ogia eta baita Brinkolako baserrietan ere. Errazionamendu garaian pisu jakin batera iritsi behar izaten zuen ogiak.

### **385. Jesuitengana morroi, hura bizimodua! (LGA-048/038)**

Loiolako jesuitengana joan zen 1945. urtean morroi. Hamasei behiren ardura zuen Nikolasek.

### **386. Soldadutzatik nola libratu zen (LGA-048/043)**

Soldaduska Loiolan (Donostiako auzoa) egin zuen Nikolasek. Jesuita baten bitartekotzari esker, laster libratu zen soldaduskatik. Orduko kontuak ditu hizpide.

### **387. Loiolatik Getariara egunero-egunero. (LGA-048/044)**

Loiolatik Getariaraino joan behar izaten zuen oporretan zeuden jesuitei enkarguak eramatea.

### **388. Txahalak eta esnea bizimodua irabazteko (LGA-049/003)**

Behiak, astoa, idiak zituzten baserrian. Esnea saldu eta txahalak hazten zituzten bizimodua ateratzeko. Olatzagutiara saltzez zituzten txahalak. Esnea berriz, marmita eta guzti Legazpitik trenean etortzen zen emakume bati saltzen zioten. Gerora "La oñatiarra" autobusa egunero etortzen zen Brinkolara eta hari esker egiten zen esnearen banaketa.

### **389. Etxeko esnea eta ogia gosaritarako (LGA-049/006)**

Emakumeek esnea eta ogia gosaltzen zuten. Garia ere etxean izaten zutenez larunbatero egiten zuten ogia. Etxean behi esnearekin gaztarik egiten ez zuten arren, bazegoen ohitura.

### **390. Kanean erositako opil bigunak nahiago (LGA-049/007)**

Astero-astero hamar dozena ogi egiten zituzten etxerako. Inoiz, txanponik bazuten, kanean opila erosi eta gogoz jaten zuten ogi biguna.

### **391. Ogia egiteko prozesua (LGA-049/008)**

Ogia nola egiten zuten kontatzen du. Labeari ere puntua hartua zioten: pareten koloreari begiratzen zioten ogia noiz sartu jakiteko. Laberako egurra basotik ekartzen zuten. Pago egurra izaten zen aiproposena.

### **392. Idiak baino behiak lanerako (LGA-049/010)**

Egurra garraiatzeko behiak erabiltzen zituzten gehienetan, baita laborantzarako ere. Etxe inguruko lursail handietan artoa, garia, patata eta indabak egiten zituzten normalean. Lurra lantzeko lanak deskribatzen ditu.

### **393. Itulan (LGA-049/011)**

Itulan egitea ere tokatzen zitzaion sarritan. Nola egiten zen kontatzen du.

### **394. Orduko oiloek arrautzak udaberrian (LGA-049/013)**

Artoa oiloei emateko egiten zuten. Etxean oiloak itxita egoten ziren arren, beste bi oilategietan libre ibiltzen ziren. Batez ere udaberrian egiten zituzten arrautzak. Legazpi eta Ordiziako azokan saltzen zituzten.

### **395. Donostiatik "rekarderak" ordiziako azokara (LGA-049/014)**

"Rekarderak" etortzen ziren trenez Donostiatik Ordiziara. Azokan salgaiak erosi eta Donostian edo Irunen saltzeko eramaten zituzten.

### **396. Hamar dozena arrautza saskian eta Ordiziara (LGA-049/016)**

Arrautzak saskian eramaten zituzten. Gaur egingoak baino azal gogorragoa izaten omen zuten ez baitziren puskatzen. Arrautzez gain, oilaskoak ere saltzen zituzten. Hankak lotu eta besotan eramaten zituzten normalean.

### **397. Oilalokak hogeitabi egunez etxean (LGA-049/017)**

Txitak etxean ateratzen zituzten. Hogeita bi egunez egoten zen oilaloka etxean.

### **398. Beheko sua kozinarako (LGA-049/019)**

Beheko suaz gain "ekonomika" zuten etxean. Beheko sua ere erabili izan zuten janaria prestatzeko. Nolakoa izaten zen deskribatzen du. "Treberea" lapikoa gainean jartzeko izaten zen. Etxea bero-bero egoten zen hauei esker.

### **399. Lixiba sukalde zaharrean (LGA-049/020)**

Sukalde zaharra esaten zioten gelan lixiba egiten zen garai batean. Egurrezko barrika moduko bat izaten zen lixiba ontzia eta sutako hautsa bota ohi zioten garbitzeko.

### **400. Argindarra eta ura betidanik etxean (LGA-049/021)**

Ura eta argindarra betidanik ezagutu ditu etxean. Argindarra hala ere, erraz joaten omen zen. Argizarizko "faolak" erabiltzen zituzten argindarrik ez zegoenean. Askarik ez zuten etxean, harraska eta iturria bai ordea. Nolakoa zen deskribatzen du.

### **401. Neskameak eta morroiak (LGA-049/022)**

Neska izan ala mutila izan, tokatzen zen moduan egiten zituzten baserriko lanak. Neskameak eta morroiak ezagutu ditu etxean. Morroiari mantenua eta arropak ematen zitzaizkion ordainetan, eta batzuetan, urte amaieran, txanponen bat.

### **402. Etxeko garbiketak emakumeen kontua (LGA-049/023)**

Etxeko garbiketak emakumeen kontua izaten ziren. Bazkal ostean, gizonak siestara eta emakumeek lanean jarraitu behar izaten zuten. Zikinik ez etxean baina, gaur egun baino gutxiago egiten omen zen sasoi hartan. Lanak deskribatzen ditu.

### **403. Lanerako arropak (LGA-049/024)**

Aurreko mantala beti erabili izan du. Etxean erabiltzen zituzten arropaz ari da. Emakumeek, lanerako ere, ez zuten praktarik erabiltzen bekatua zelako. Oinetan, gomazko abarkak.



#### **404. Brinkolako eskolan (LGA-049/025)**

Telleriarten hasi zen lehenengo eskolak hartzen. 1933. urtean, Brinkolako eskola eraiki zenean, etorri zen bertara. Gustura joaten zen. Alde batean neskak egoten ziren, bestean mutilak. Hura eta han zeudenak deskribatzen ditu.

#### **405. Doktrina ondo ikasitakoa (LGA-049/027)**

Ikasgaiak zeintzuk izaten ziren aipatzen ditu. Doktrinarekin gogoratzen da batez ere eta baita abadearekin ere. Zaharra eta berria, biak ikasi behar izan zituzten, bai euskaraz eta baita erdaraz ere.

#### **406. Zumarragako mojen eskolara neguan (LGA-049/029)**

Brinkolako eskolak amaituta, Zumarragako mojetara joan zen beste bi urtez. Garia ereindakoan eskolara joan (neguan) eta artoa ereiteko sasoia heldu orduko, eskolak utzi eta etxeko lanetara buelta. Idazteko makina erabiltzen ikasi zuen han.

#### **407. Korta eta "Belaiturritik" ekarritako ura (LGA-049/033)**

Kortako iturria eta "Belaiturria" aipatzen ditu. Lurrezko pitxarrean ekartzen zuten ura baina marmitan ekartzea seguruagoa zen, hura austeko arriskurik ez zegoelako. Hala ere, jatorduetarako ardoa edaten zuten.

#### **408. Bederatzi egunez "labaderoan" bainua hartu behar (LGA-049/034)**

Errekara ez zen jolasera joaten. Harraskan garbitzen zuen bere burua, uda amaieran ura epelagoa egoten zenean. Nahiz eta arrazoia gogoan ez duen, bederatzi egunez bainua "labaderoan" hartzea ona izaten omen zen.

#### **409. San Juan bezperako loreak bedeinkatzea (LGA-049/036)**

San Juan bezperan loreak bedeinkatzera Legazpira joaten ziren. Mezarik ez zen egoten; bedeinkazioa egoten zen elizan eta nolakoa izaten zen eta zein lore bedeinkatzen ziren kontatzen du. Etxean ez zuten lorerik izaten, ganaduak jaten zizkieten.

#### **410. Soroak bedeinkatzeko ura eta egurrezko gurutzeak (LGA-049/037)**

Soroak bedeinkatzeko ohitura ere bazegoen. Udaberrian Brinkolako abadeak ura bedeinkatzen zuen eta ur hori soro denetan botatzeko erabiliko zuten gero. San Juan loreekin batera egurrezko gurutzeak jartzen zituzten ate guztietan. Tximistak ekiditeko, gordeta izaten zuten bedeinkatutako ura botatzen zuten soroetan.

#### **411. Botikan prestatutakoak botilan etxera (LGA-049/038)**

Sendabelarrak ez zituen asko erabili. Legazpiko medikuak agindutakoa, botikan prestatu eta botilatxo batean ekartzen zuten etxera. Normalean medikua ibiltzen zen etxez-etxe

#### **412. Orduko gaixotasun ohikoenak (LGA-049/039)**

Orduko gaixotasun ohikoenak aipatzen ditu: gorrina, "txutxurrutxu" eztula (kukurruku-etztula), etab.

#### **413. Ermandadeari ordaindutakoak zertarako? (LGA-049/040)**

Medikuari ordaindu egin behar izaten zitzaion. Hiru hilero ermandadeari ordaintzen zioten beraiek eta horrela, botikak eta medikuaren bisitak ordainduta izaten zituzten. Ermandadearen zeregina eta noiz ordaintzen zen azaltzen du.

#### **414. Tiritak? Zauriak sendatzeko txerri-gantza (LGA-049/042)**

Zauriak sendatzeko txerri-gantza erabiltzen zuten

#### **415. Hilekoa ere bekatu (LGA-049/044)**

Gurasoek ez zioten hilekoari buruz azalpen handiegirik eman bekatua zelako hura ere. Lagun artean hitz egiten zuten zerbait gai haiei buruz.

#### **416. Erromeriak (LGA-049/045)**

Igandeetan, mezara eta doktrinara joaten zirenean elkartzen zen lagunekin. Legazpira erromeriara "Santikutzetan" baina ez zen joango. Mutilek, dantza egiteko ordaindu egin behar izaten zuten. Bildutako diruarekin soinujoleari ordaintzen zioten.

#### **417. "Aemeiko" kanpaiak (LGA-049/046)**

"Aemeikoak" deitzen zieten kanpaiak egunak noiz iluntzen zuenaren arabera, lehenago ala beranduago, jotzen zuten.

#### **418. Tabernara sartzea emakumeentzat bekatu (LGA-049/047)**

Emakumeak ez ziren tabernan sartzen, bekatua zen hura ere. Bertako leihotik ateratzen zizkieten mutilek gaseosaz beteriko basoak. Emakumeek ardorik ez zuten edaten, ezta zigarrorik erre ere. Felisaren aitak asko erre izan zuela aipatzen du eta hala ere, 94 urterekin hil zen.

#### **419. Amak bularra "fuertegia" (LGA-050/002)**

Isabelen amak bularra "fuertegia" zuen, eta, horren ondorioz, bi haur jaioberritan hil zitzaizkion. Isabel, bataioa jaso arte, Mendizabal baserrira eraman zuten han bularra eman ziezaioten. Guztira, zortzi neska eta anaia bat izan ziren. Denbora batez, hospizioko mutiko bat ere eduki zuten etxean.

#### **420. "Bularrarekin hazten ziren umeak lehen!" (LGA-050/004)**

Isabelen amak bularra "fuertegia" zuen, eta, horren ondorioz, bi haur jaioberritan hil zitzaizkion. Hortaz jabetu zirenean, gerora jaio ziren etxeo haur denak bularra ematen ari ziren inguruko etxeren batera "atera" ziren bularra hartzera. Isabel, bataioa jaso arte, Mendizabal baserrira eraman zuten han bularra eman ziezaioten. Behin bataioa jaso eta oritza (erditze ondorengo lehen egunetako esnea) joaten zenean, etxean hazten zituen amak.

#### **421. "Zegoenetik jaten genuen" (LGA-050/005)**

Baserriak ematen zuenetik elikatzen ziren, "zegoenetik jaten genuen": indaba salda, porrupatatak, baratxuri zopa, artoa eta esnea, tipularekin egindako tortila... Garaian garaiko jakiak: tomatea, piperra...

#### **422. "Bolauak" eta txokolatea (LGA-050/006)**

Isabelen amak "bolau" kozkorrak edukitzen zituen etxean, baina gerratea iritsi zenean falta izaten ziren. Umetan, "bolau" kozkorrak eta txokolatea ematen zien amak. "Bolauak" gozo-dendan erosten ziren.

#### **423. Goitegi baserria (LGA-050/008)**

Goitegi baserria non dagoen azaltzen du. Inguruko baserriak: Lekuona, Lekuona Etxeberri, Mendizabal...

#### **424. Emakumeak nagusi etxean (LGA-050/010)**

Goitegi baserrian gurasoak, aitona-amonak eta bederatzi anai-arreba, zortzi neska eta mutila, ziren (bi neska jaioberritan hil ziren). Adin tarte handia zuten senideen artean. Emakumeak eta baserriko lana: "emakumeak laganki egiten genuen lana". Baserri inguruan terreno asko zuten. Artoa eta garia labratzen zituzten.

#### **425. Eskola eta doña Flora maistra (LGA-050/011)**

Legazpin udaletxeko goiko aldean zegoen eskola. Doña Flora zen maistra. Eskolak gaztelaniaz izaten ziren.

#### **426. Doktrina aldatu (LGA-050/012)**

Doktrina euskaraz ikasi zuen. Komunio handia egin behar zuen garaian, ordea, doktrina berria sortu zuten, eta "oso gaizki" ibili omen zen. Nolako liburuxka erabiltzen zuten azaltzen du.

#### **427. Kontzejua, alondegia eta kartzela (LGA-050/014)**

Legazpiko udaletxeko goiko partean, sekretarioa bizi izan zen. Udaletxean, Kontzeju taberna zegoen, eta Pedro Urzelai zen tabernaria. Hileta ondorenetan, jendea han biltzen zen. Udaletxearen beheko partean, berriz, alondegia eta kartzela zeuden.

#### **428. Eskola berria (LGA-050/015)**

Eskolako kontuak. Udaletxeko eskolatik eskola berrira pasatu ziren. Udaletxeko eskola zegoen tokian, sekretarioa bizi izan zen. Eskola berrian zer maisu-maistra eduki zituen aipatzen du.

#### **429. Bi negutan Zumarragako mojen eskolara (LGA-050/016)**

Etxeko lanetan lagundu behar izaten zuenez, ez askotan joaten Legazpiko eskolara. Gazterik hasi zen etxeko lanetan, baina, neguan, amak Zumagarrako mojen eskola batera bidaltzen zuen, partikular. Bi negutan joan zen eskola horretara. Oinez joaten zen Zumarragara, eta izeba baten etxean bazkaltzen zuen. Nolako bidea zegoen azaltzen du.

### **430. Arropa, jostunak egina (LGA-050/019)**

Auzoko Olaetxe baserrian bizi zen Nati izeneko emakume antzuolar bat, eta hark josten zizkien arropak. Herrian ere bazen beste jostun bat: hark jositako traje bati buruz hitz egiten du.

### **431. Garaiko janzkera (LGA-050/020)**

Gaztetan nolako arropa erabiltzen zuen azaltzen du. Ehun motak: perkala, zeta... Neskek, soineko manga luzeak janzten zituzten; ez zuten prakarik janzten.

### **432. Zume-ebakitzea (LGA-050/022)**

Eskioletan bakarrik zegoen zumea. Gaztetatik joaten zen aitarekin zume-ebakitzen laguntzera hara. Eskioletakoek Zumarragako "xexteriara" (saski-dendara) saltzen zuten zumea. Udazkenean egiten zen zume-ebakitzea. Lanaren ordainetan, afaria ematen zien. Bi soro zeuden, eta zumea ebaki eta lotuta biltzen zuten.

### **433. Artoa eta indaba (LGA-050/023)**

Artoa eta indaba nola landatzen zuten azaltzen du. Artoa: lau hankako marko batekin arrastoa egin, eta ziri batekin banaka-banaka sartzen zuten. Indaba: hiru-lau ale botatzen ziren, eskuarekin.

### **434. Etxeberri jatetxean neskame (LGA-050/029)**

Zumarragako Etxeberri jatetxean neskame egon zen urtebetez. Baserriko lanetan aritzen zen nagusiarekin aste guztian. Zapatu eta igandetan mahaiak zerbitzatzen zituen. Bertan egiten zuen lo. Sagardotegian zer jende ibiltzen zen, jantokia nolakoa zen... aipatzen du. Zerbitzatzeko, bere kaleko arropa janzten zuen (soineko beltza mantal zuriarekin).

### **435. Neskame garaiko kontuak (LGA-050/030)**

Neskame egon zen denboran, ez zuen astirik izaten kalera jaisteko. Jaietan ere ez zen Etxeberritik irtetzen; jai arratsaldetan lana izaten zen. Etxekoak eta Isabel aritzen ziren jatetxean. Ez zen lan handirik izaten.

### **436. Aita, jornalean idiekin (LGA-050/035)**

Isabelen aita kanpoan ibiltzen zen idiekin, jornalean. Egurretan, soroak labratzen... ibiltzen zen hots egiten zioten tokian. Etxeko lanak Isabelek eta amak egiten zituzten.

### **437. Esnea, diru-iturri (LGA-050/036)**

Jakineko etxeetan banatzen zuten esnea. Esnea diru-iturria zen. Etxetik kanpora lanean aritu zen denboran irabazi zuen dirua berarentzat izan zen.

### **438. Zumarragako eta Legazpiko azokak (LGA-050/037)**

Armukeak, txahalak, arrautzak... saltzen zituzten Zumarragako plazan. Legazpin beranduago hasi zen azoka. Prezioak: arrautza dozena zazpi errealean saltzen zen. Baserritarrei desplanteak...

#### **439. Garia entregatu beharra (LGA-050/038)**

Gerrako oroitzapenak. Nazionalak noiz sartu ziren. Baserritarrak garia entregatzera behartzen zituzten udaletxean, baina Isabelen aitak "gogor egin" zion sekretarioari familia handia zuela esanez. Garia entregatu, eta trukean irina eta zahia eman omen zioten.

#### **440. Nazionalak Legazpin sartu zirenekoa (LGA-050/039)**

Nazionalak Legazpin sartu zireneko oroitzapenak. Aurreko egunean, basoan ibili ziren garoa ebakitzen. Mendi puntatik ikusi zituzten milizianoak Argixao aldera joaten. Auzoko bi mutil falta zirelako beldurtuta egon ziren: bat nazionaletara pasatu omen zen, eta, bestea, berriz, soldaduek mendi-bideak erakusteko beraiekin eraman zuten. Soldaduak nondik nora ibili ziren azaltzen du. Nazionalek bi miliziano hil zituzten. Hurrengo egunean, baserriko teilatu aldera balak botatzen zituzten. Milizianoak ihes egin zuten, eta nazionalak Goitegiko atari burutik pasatu ziren Legazpi aldera. Herriko jendea ihesean ikusten zuten, "kaminoa bete jendea ihesi Legazpitik!".

#### **441. Bi milizianoen gorpuak (LGA-050/040)**

Isabelen aitak ez zuen egundo ikusten, baina nazionalek hildako bi milizianoen gorpuak ikustera joan zen alaba batekin. Gorpuak gurdian kargatu eta Zumarragara eraman omen zituzten alkatearen aginduz.

#### **442. Hildakoa aurkitu bide bazterrean (LGA-050/041)**

Gerra denborako kontuak. Tirotea zen garaian, aitak argirik ez pizteko esaten zien. Igande goiz batean, Isabelen ahizpa batek, esnea partitzera zihoala, hildako baten gorpua aurki zuen bide bazterrean. Fusilatutako mutila Arrasatekoa zela esan zien bikarioak.

#### **443. Gerran hildako herriko mutilak (LGA-050/043)**

Bizkaiko frontean hildako herriko mutil batzuk aipatzen ditu.

#### **444. Gerra hasierako larritasunak (LGA-051/005)**

Gerra hasi zenean, larritasunak 8 urte zeuzkan. Gogoan du gerra hasi zirenekoa: aita beldur zen eraman egingo ote zuten. Orduko oroitzapenak kontatzen ditu: aita etxera itzuli zela, koltxoiak jarri zituztela leihoetan babesteko...

#### **445. Gerra Legazpira inguratzen (LGA-051/007)**

Gerra Legazpira inguratzen ari zen heinean, jendea beldurtzen hasi zen. Orduko oroitzapenak kontatzen ditu. Soldaduek etxeren batetik urrezko erloju bat eraman omen zuten.

#### **446. Elizakoak eta aitonari buruzko oroitzapena (LGA-051/010)**

6 bat urte zituela, etxean aitona gaixo zegoen; umeak etxetik beheko auzora bidali zituzten jolastera; bidean, Elizakoak zetozenez, lurrean lokatzetan belauniko jarri ziren. Orduan konturatu zen aitonarentzat zela hura. Elizakoei buruz hitz egiten du.

#### **447. Doktrina ondo ikasiak (LGA-051/012)**

Doktrina eskola baino hobeto ikasten zuten. Komunio handia egiteko, Legazpira joaten ziren doktrina ikastera. Doktrinako liburua gogoan du; euskaraz ikasten zuten.

#### **448. Errespetua bai, diziplina gogorra ez (LGA-051/015)**

Familian errespetua bazuten, baina ez diziplina gogorra. Behin dantzan gustura zebiltzala, etxera pixka bat beranduago joan zen; eta atea itxita aurkitu zuen. Mutilek askatasun gehiago zeukaten neskek baino.

#### **449. Orrazi-lantegiko lan-prozesua (LGA-051/020)**

Eskola bukatu zuenean, lantegiko orrazi-lantegian hasi zen lanean, orraziak garbitzen. Lan-prozesua nolakoa izaten zen azaltzen du.

#### **450. Orrazi-lantegiko zereginak (LGA-051/022)**

Orrazi-lantegian, zer zeregin izan zituen aipatzen du. Lokatzarekin egiten zuen lan. Ilaran egiten zuten lan. Orrazi motak.

#### **451. Soldata lapurtu ziotenekoa (LGA-051/023)**

Behin bere soldata lapurtu ziotenekoa kontatzen du. Etxean nahigabea hartu zuten arren, ulerkorrak izan ziren.

#### **452. Gizonek emakumeek baino gehiago kobratzen zuten (LGA-051/026)**

Somara egiten zuten lan, eta orduak nola kontatzen zituzten azaltzen du. Gizonen eta emakumeen soldaten artean aldea zegoen: emakumeek gutxiago kobratzen zuten.

#### **453. Paper-fabrikako zereginak (LGA-051/028)**

Paper-fabrikari, paperak kontatzen aritzen zen. Papera nolakoa izaten zen azaltzen du. Bobinak lotzen ere ibili izan zen lantegian, paper-fabrikari; lan hartan zer egiten zuten aipatzen du.

#### **454. Brinkolatik egiten zituzten irtenaldiak (LGA-051/031)**

Brinkolatik inguruko prozesioetara joaten ziren. Garai hartan, Sakamantekasen beldur izaten ziren. Alpagatak jaten zituzten orduan.

#### **455. Tren-geltokiko etxetxoan bizi zireneko abantailak (LGA-051/033)**

Tren-geltokiko etxetxon bizi zirenez, trenetara ibiltzeko pribilegioak izaten zituzten. Txartel-leihatilako langileei buruz hitz egiten du. Tren-gidari guztiak ezagutzen zituzten.

#### **456. "Sitx-atxurrekin" ia ijitoa jo (LGA-052/003)**

Anaiak, ganbarako belarra "sitx-atxurre" (sats-aitzurra) hartuta ukuilura botatzen zebilela, lo zegoen gizon bati sartu zion ia. Antza denez, gerraostean ijito asko etortzen zen belar-artera lotara.

#### **457. Marroketan (LGA-052/004)**

Marroketan (ezkutaketan) nola jolasten zen azaltzen du.

#### **458. Etxe inguruko jolasak (LGA-052/007)**

Trapuzko panpinekin jolasten zuten. Amandrearekin aritzen ziren jolasean, "kozinaketan". Auzoko umeek elkarrekin jolasten zuten.

#### **459. Artzain eta soroan, lana erruz egindakoa (LGA-052/011)**

Pare bat edo hiru behi, idiak eta ardiak zituzten etxean. Ahizparekin ibiltzen zen artzain eta soroan. Etxeari zegozkion terrenoak aipatzen ditu. Lurra lantzea auzolanean egiten.

#### **460. Ardi-lanak (LGA-052/012)**

60 ardi inguru zituzten etxean. Ardiak eta behiak jezten ahizparekin ibiltzen zen. Baita hauen erditzeetan ere. Prozesua kontaktzen du. Arkumeak etxerako izaten ziren, esnea saldu egiten zuten ordea.

#### **461. Makina bat ume hazi dira Muruko ardi-esnari esker (LGA-052/013)**

Esnerik ez zuten kaleko emakume guztiek nahi izaten zuten Muruko esnea. Makina bat ume hazitakoak direla dio.

#### **462. "Ipurzuriek" zigorrik ez (LGA-052/014)**

Legazpiko eskolara joan zen Rosario. Ez dauka eskolako oroitzapen onik. Eskupekoa ematen zieten "ipurzurien" senitartekoei irakasleei eta haienganako eskolan tratua ezberdina zen oso. Baserrikoa izateagatik ere iseka egiten zieten.

#### **463. Ama, Madrilen inude (LGA-052/018)**

Ume jaioberri bat hil zitzaion Rosarioren amari. Medikuak gomendatuta, Madrilerara joan zen inude seme zaharrena amandrearekin utzita.

#### **464. Arrosarioa etxez etxe errezatuz (LGA-052/019)**

Norbait hiltzen zenean Rosariori deitzen zioten arrosarioa erreza zezan. Hileta aurreko egunean, errezatzen zuen arrosarioa. Arrosarioa esaten du. Giro hura nolakoa izaten zen kontaktzen du.

#### **465. Ateak eta leihoak zabalik hildakoaren arimari joaten uzteko (LGA-052/022)**

Etxe batzuetan, hildakoaren arimari joaten uzteko ateak eta leihoak irekitzeko ohitura zegoen.

#### **466. Hildakoaren prestatzea (LGA-052/023)**

Hildakoa nola prestatzen zen kontaktzen du. Ur bedeinkatuan bustitako erramu adar batekin bedeinkatzen zen ingurua- Hilaktxak deskribatzen ditu.

#### **467. Lutoa (LGA-052/024)**

Lutoa ezinbestekoa zen. Gizonezko eta emakumeek desberdin adierazten zuten lutoa. Iraupena ere ez zen beti berdina izaten. Hil eta bederatzigarren egunean, elizkizuna egoten zen. Meza dirua etxekoentzat izaten zen.

#### **468. "Eroleak" (LGA-052/025)**

Etiket elizaraino, oinez eramaten zuten zerraldoa. "Erole" (eroalea) esaten zitzaion hil kutxa eramaten zuenari

#### **469. Sepulturak (LGA-052/026)**

Hileta elizkizuna ordaindu egin behar izaten zen. Bakoitzak bere ehorzlekua zuen eliza barruan. Pulpituaren azpian kokatzen ziren normalean. Kandela bat pizten zen ehorzlekuaren gainean bederatziruenean.

#### **470. Santu Guztien eguna (LGA-052/028)**

Santu Guztien Egunean meza berezia entzun eta loreak eramaten ziren kanposantura.

#### **471. Ze bekatu egingo genuen ba guk? (LGA-052/032)**

Apaizekiko ikuspegia. Bekatariak zirela esaten zieten baina, apaizek ere bekatuak egingo zituztela iruditzen zaio.

#### **472. "Primer viernes" (LGA-052/034)**

"Primer viernes" hilean behin izaten zen. Bezperan konfesatu egin behar izaten ziren, gero mezatarara.

#### **473. Errogatibak harria botatzen zuenean (LGA-052/039)**

Errogatibak harria botatzen zuenean egiten ziren batez ere. Kandela bat piztu eta errezo bat esaten zuten. Errezoa esaten du.

#### **474. San Juan eguneko loreak eta "errolantzeak" gurutzeak (LGA-052/041)**

San Joan egunean bedeinkatutako loreak atean jarri ohi zituzten. "Errolantzearekin" (elorri-arantza) egindako gurutzeak tximista eta trumoiengandik babesten zituztela dio.

#### **475. Ostegun Santuko prozesioa (LGA-052/043)**

Prozesioa Ostegun Santu egunez egiten zen Legazpin. Irudiak gizonezkoek eramaten zituzten bitartean, emakumezkoek errezoan jarduten zuten.

#### **476. "Egizu zuk, Maria" abestia (LGA-052/044)**

Latinez izaten ziren mezak. Euskarazko meza abestiak gogoan ditu ("Egizu zuk, Maria" abesten du)

#### **477. Martxeliren denda eta Ibaiondo zinema (LGA-052/046)**

Igandeetan lagunekin kalean egoten zela kontatzen du. Martxeliren gozoki-denda du gogoan. Etxean, egindako lanaren ordainetan emandako eskupekoarekin zer erosten zuten aipatzen du. Ibaiondo zinemara ere joaten ziren.



**478. "Juana de Arco" salbatu nahi zuen Balentinek. Jende guztia barrez! (LGA-052/047)**

Ibaiondo zinema, "Juana de Arco" filma ikusten gertatutako anekdota bat kontatzen du.

**479. Artzain Ona ikastetxean ibilia (LGA-053/005)**

Legazpiko Artzain Ona ikastetxean egin zituen ikasketak. Bost urte egin zituen ikastetxe horretan. Ikastetxe horretan sei gela ziren; 140 ikasle inguru.

**480. Marmita bat esne familiakoei (LGA-053/006)**

Eskolara joaterako, familiako batzuen etxean marmita bat esnea entregatzen zuen. Etxerako eta ezagunentzako izaten zuten esnea, gehien bat.

**481. Ostiraletako periara, arrautzak saltzera (LGA-053/007)**

Baserrian 30-40 oilo izaten zituzten, eta soberan izaten zituzten arrautzak ostiraletako Legazpiko feriara eramaten zituen saltzera Feliperen amak. Baserritik herrira oinez joaten zen, eta bi saski eramaten zituen arrautzez beteta. Ateratako diruarekin, etxerako beharrezko gauzak erosten zituen.

**482. Artzain Ona ikastetxea eta Brinkolako eskola (LGA-053/011)**

1944an hasi zen Legazpiko Artzain Ona ikastetxean. Bost urte egin zituen ikastetxe horretan. Brinkolan eskola bazen, Brinkola eta Telleriarteko umeentzat; hango eskola ume txikientzat izaten zen. Gero, Legazpin jarraitzen zituzten ikasketak.

**483. Irakasleak jo, euskaraz egiteagatik (LGA-053/014)**

Eskolako kontua. Legazpin gaztelania asko egiten zen. Eskolan, euskaldunekin elkartzten zen hasieratan; euskaldun gehienak Brinkola, Telleriarte eta Aztiriakoak izaten ziren. Euskaraz egiteagatik irakasleak jo zuenekoak kontatzen du. Zaplaztekoa eman zion maisuari buruz hitz egiten du; Azkoitiko baserri batekoa zen, eta hark ere ez omen zuen gaztelaniaz ondo hitz egiten.

**484. Eguerdietan, 'Cara al Sol' kantatu behar (LGA-053/015)**

Eskolako kontua. Diktadura garaia zen. Eguerdietan, eskolatik irteeran, Cara al Sol kantatzen zuten.

**485. Eskolan sartzerako, oinetakoak aldatu behar (LGA-053/016)**

Eskolara oinetako batzuekin joaten ziren, eta han beste alpargata batzuk janzten zituzten. Kaxoi batean gordetzen zituzten oinetakoak; mutiko bakoitzak zenbaki bat izaten zuen oinetakoak lagatzeko.

#### **486. Aitak baserriarekin jarraitzea nahi (LGA-053/017)**

Eskola egunetan, Legazpin bizi ziren izeba-osaba batzuen etxera joaten zen bazkaltzera. Bazkal ondoren, osabaren lankide baten etxera joaten zen lurra eta egurra neurtzen ikastera. Gizon hark Legazpiko paper-lantegian egiten zuen lana, eta nahi zuen Felipek ikasketak bukatzen zituenean berarekin "pintxe" moduan hastea. Feliperen aitak esan zion semearen laguntza behar zuela baserria aurrera eramateko.

#### **487. Errazionamendu ogia Mendibildik behera botaz gero... (LGA-053/021)**

Gerra ondorenean, Bidaniko mutil bat izan zuten baserrian laguntzaile moduan. Hark errazionamenduko ogiari buruz zer esaten zuen kontatzen du.

#### **488. Azeri harrapatzailea (LGA-053/023)**

Azeriak harrapatzeko zaletasun handia izan du Felipek. Aita ibili ohi zen azeriak harrapatzen, baina ez Felipe adina.

#### **489. Azeria harrapatzeko zepoa eta kutxa (LGA-053/025)**

Azeriak harrapatzeko zepoa eta kutxa erabiltzen zituen; nolakoak izaten diren azaltzen du. Kutxak berak egiten zituen; Zeraingo gizon bati ikusita ikasi zuen kutxak egiten.

#### **490. Azerien ezkutalekuak (LGA-053/026)**

Azerien ezkutalekuak ditu hizpide.

#### **491. Azeriak harrapatzeko lazoa (LGA-053/028)**

Azeriak harrapatzeko lazoa ere erabiltzen zuen; nolakoak izaten den azaltzen du. Ehizari buruz hitz egiten du.

#### **492. Azeriaren arrastoa (LGA-053/029)**

Azeriak harrapatzeari buruz hitz egiten du. Azeriaren markak antzematea, nolako arrastoa uzten duen...

#### **493. Azeriak eta oilategiak (LGA-053/031)**

Hazitako azeriak botatzen zituen, arriskua sortzen zutelako. Garai batean, baserri gehienetan oilategia izaten zen, eta oiloak libre ibiltzen ziren. Azeriek eraso egiten zien oiloei, eta, orduan, azeriak harrapatzen ziren.

#### **494. Azeria eta azkonarra (LGA-053/033)**

Azeria lepo gainetik heldu behar izaten da. Azkonarrak, berriz, azal lodiagoa izaten du, eta eskuekin heltzerakoan kontuz ibili behar izaten da.

#### **495. Azeria harrapatutakoan, eskean baserriz baserri (LGA-053/036)**

Lehen, azeria botatzea libre zegoen. Azeria harrapatzen zen garaian, mutikoak eskean ibiltzen ziren baserririk baserrira; azeriak kalteak eragiten zituelako. Baserritarrek, zerbait eman ohi zuten azeriengatik babestearren.

#### **496. Azeriaren larrua (LGA-053/038)**

Azeria nola larrutzen den azaltzen du. Larrua traperoei saltzen zien. Larruaren kalitatearen arabera erabakitzen zen haren prezioa. Larruaren kalitateaz hitz egiten du: azarotik urtarrilera bitartean larru hobea; otsailetik aurrera, berriz, azeriak ilea berritzen hasten dira, eta larruaren kalitatea ez da hain ona izaten. Prezioak aipatzen ditu.

#### **497. Azeriaren haragia (LGA-053/040)**

Ez du sekula jan azeriaren haragirik. Azeriaren pizak kiratsa botatzen du.

#### **498. Azeria larrutzea (LGA-053/041)**

Azeriak harrapatutakoan, ganbaran eseki eta larrutu egiten zituen. Larrutu ondoren, lurperatu egiten zituen. Txakurrei ez zaie gustatzen azeriaren haragia.

#### **499. Albaceteko azeri harrapatzailea Arantzazun (LGA-053/044)**

Arantzazu aldean azeri ugari ibili zirenekoaz hitz egiten du. Albacetetik azeri harrapatzailea ekarri omen zuten.

#### **500. Azeriaren eraso (LGA-053/045)**

Normalean, azeriek oiloei erasotzen die. Ardiei erasotzen die "gaizki" ikasten dutenean. Garai batean, Urbian eta Legazpiko mendietan azeriek ardiei eraso egiten omen zien. Artzainek ardian multzoan bildu, eta txandaka zaintzen omen zituzten. Azeriak lepo aldetik erasotzen zituen ardiak.

#### **501. Azeria, frutazalea (LGA-053/046)**

Azeriaren elikaduraz hitz egiten du. Azeriak fruta ugari jaten omen du. Mahatsa, gerezia, "arantximiloa", basarana, masustak, sagarra... jan ohi ditu.

#### **502. Azerien ohiturak (LGA-053/048)**

Normalean, azeriak gauez ibiltzen dira batetik bestera. Azerien ohiturei buruz hitz egiten du; animalia garbia dela dio.

#### **503. Azeria eta trikua (LGA-053/049)**

Azeria oso gaizki konpontzen da trikuarekin. Triku batek azeria kobatik bidali zueneko kontakten du.

#### **504. Azeriak usaimen ona (LGA-053/051)**

Azeriak usaimen ona du. Usaimenaz baliatzen da ihes egiteko, elikatzeko...

#### **505. Basurdeak ehizatu, "karanbolaz" (LGA-053/056)**

Lagun batekin usoak ehizatzen joan, eta lau basurde ehizatu zituzteneko kontakten du. Bularrera, burura... egin behar izaten zaio tiro basurdeari.

#### **506. Baserrirako bidea jarri aurreko bizimodua (LGA-054/004)**

Lehen biderik ez zegoen kaletik beren baserriraino joateko. Saltzaileak kalean ibiltzen ziren, baserrietara ezin izaten baitzen kotxez joan. 50. hamarkadaren

hasieran egin zuten bidea. Obrak ordaintzeko, auzokoen artean nola moldatzen ziren azaltzen du.

### **507. Eskolara autobusez joaten ziren (LGA-054/006)**

Zumarragara, maristetan ikastera, autobusez joaten ziren. Autobus hura atzera eta aurrera ibiltzen zen egun osoan. Gidarien izenak gogoan ditu. Hilean 13 pezeta ordaintzen zuten eskolara joateagatik eta autobusa erabiltzeagatik. Eskola ordaintzeko, kategoriak zeuden.

### **508. Eskola ordaintzeko kategoriak (LGA-054/007)**

Eskola ordaintzeko garaian, kategoriak zeuden. Jakintza-mailaren arabera ordaintzen zen. Eta maila jakiteko, maila-proba egiten zieten.

### **509. Ikatza egiteko prozesua (LGA-054/010)**

Aita ikazkina izan zen, eta seme-alabak hari laguntzen aritzen ziren. Ikatza egiteko prozesuaz hitz egiten du: egur mota, nola moztzen zen, noiz moztzen zen, txondorra non egiten zen...

### **510. Txondorraren funtzionamendua (LGA-054/011)**

Ikatza egiteko, txondorra nola egiten zuten azaltzen du. Txondorrean ikatza eginda zegoenean, zer egiten zuten azaltzen du.

### **511. Ikazkintzaren beherakada (LGA-054/014)**

Ikatza egiteko, egurra nondik lortzen zuten azaltzen du. Fabrikek indarra hartu zutenean, ikazkintza utzi egin zuen jendeak. Txondorrek egiteko leku egokiak zein izaten ziren aipatzen du.

### **512. Ikatza garraiatzeko moduak (LGA-054/015)**

Ikatza basotik karga-lekuetara eramaten zuten. Ikatza garraiatzeko, kableak erabiltzen zituzten.

### **513. Txondorrek eta ikatz-zakuak (LGA-054/016)**

Ikatza sartzeko zakuak nolakoak ziren azaltzen du. Txondorra zaindu egin behar izaten da, bestela su hartu eta alferrik galtzen baita.

### **514. Ikazkintzaren nondik norakoak (LGA-054/017)**

Ikatz-zakuak bete egiten zituzten, ez zituzten pisatu behar izaten. Txondorretik kea ateratzen zen zirrikituari "numera-zulok" deitzen zieten. Ikazkintzak dirua ematen zuen, bai, baina ordu asko lan egitearen truke.

### **515. Patrizioen lantegiko lan-baldintzak eta zereginak (LGA-054/020)**

14 urte zituela, 1937an, Patrizioen fabrika hasi zen lanean. Garai hartan, fabrika militarizatuta zegoen, eta orduko lan-baldintzak eta bere zereginak gogoan ditu.

### **516. Lan-istripuak Patrizioen fabrika (LGA-054/021)**

Gerra garaian, Patrizioen fabrika zer lan egiten ziren aipatzen du. Lan horiek bazituzten beren arriskuak; gizon bat hil egin zen lan-istripu baten ondorioz.

### **517. Labeko lana Patriziorenean (LGA-054/023)**

Patrizioren fabrikan, labean egiten zuen lan Pedrok. Han izaten zituen zereginak azaltzen ditu.

### **518. Labe ondoko lan-baldintzak (LGA-054/024)**

Labe ondoan egiten zuen lan Pedrok, eta bero handia egiten zuen han. Ez zuten arropa berezirik erabiltzen. Jornala pixkanaka igo zioten.

### **519. Afrikan soldadutza egin zueneko bizipenak (LGA-054/025)**

Soldadutza Afrikan egin zuen; 35 hilabete eman zituen han. 60 gradu bera ezagutu zuen Pedrok 1943an. Han sukar paludikoa ohiko gaixotasuna zen; eta haren aurkako botika oso gogorra zen.

### **520. Soldadutzako zereginak (LGA-054/026)**

Soldadutzan artillerian egon zen, eta zer egitea tokatu zitzaion azaltzen du.

### **521. Soldadutzako kanoiak (LGA-054/027)**

Afrikan soldadutzan egon zenean, hango kanoiak nolakoak ziren azaltzen du. Kanoiak biltegian egoen ziren.

### **522. Afrikako ingurua eta komunitateak (LGA-054/028)**

Soldadutzan ondo ematen zieten jaten. Afrikan egon ziren, eta inguru hura nolakoak zen eta han bizi ziren komunitateen ohiturak zein ziren azaltzen ditu. Hainbat soldadu euskaldunak ziren han.

### **523. Soldadutzan lurrean egiten zuten lo (LGA-054/030)**

Soldadutzan, lurrean egiten zuten lo, manta artean. Batzuetan, ohean tokatzen zitzaien lo egitea, baina beteranoek lehentasuna izaten zuten han lo egiteko.

### **524. Soldadutzako soldadutza (LGA-054/031)**

Soldadutzan egunean bi errealeko soldata ematen zieten.

### **525. Soldadutzako azken hilabeteak Huescan (LGA-054/033)**

Soldadutzan 35 hilabete egon zen, baina azken 8 hilabeteak Huescan eman zituen. Han gosea pasa zuten. Makiei buruz hitz egiten du.

### **526. Soldadutzako baimenak (LGA-054/035)**

Soldadutzan Huescan egon zen garaian, aletegi itxurako leku batean egoten ziren. Soldadutzan 35 hilabete eman zituen, eta 5 aldiz eman zioten etxera etortzeko baimena. Etxerako bidaia nola egiten zuten azaltzen du.

### **527. Gerra hasiera Legazpin (LGA-054/037)**

Gerran, tropak Legazpin sartu zirenean, Pedro aitarekin zebilen ikatza egiten. Gerra hasieran, Legazpin guardiak non egiten ziren azaltzen du.

### **528. Udaletzeko tabernaren arduradunak (LGA-055/002)**

Udaletxean jaio ziren bere familiako senide guztiak. Udaletzeko zati batean taberna zegoen, eta enkantean ateratzen zuten; Rafaelen familiak hainbat urtean hartu zuten hango ardura. Taberna hartan zer zerbitzu ematen ziren azaltzen du.

### **529. Udaletxetik beren etxera (LGA-055/005)**

Udaletxearen barruko egitura nolakoa zen azaltzen du. 1936an etxe hura utzi behar izan zuten, ez baitzen enkantean atera; eta orduan, gurasoek beste etxe bat egin zuten.

### **530. Eskolan gutxi ikasi ahal izandakoa (LGA-055/009)**

Rafaelen eskola oso eskasa izan zen. Bera eskolan zegoela hasi zen gerra, eta maisu guztiek alde egin zuten, don Eustakio ekarri zuten beraiei erakustera: 90 urte inguru zituen, eta ez zien ezer erakusten, eskolan eduki bakarrik baizik. Handik Zumarragara joan zen ikastera: hango ikasgaiak zeharo ezezagunak egiten zitzaizkion. Azkenean, gau-eskolan ikasi zuen gehien. Franco sartu zenean, euskara debekatu zuten.

### **531. Euskara debekatuta egon arren... (LGA-055/011)**

Francok euskara debekatu zuen garaian, kalean euskaraz egiten zen oraindik. Umeei zer erakutsi, hura hitz egiten zuten. Etxean dena euskaraz egiten zuten.

### **532. Arotz izateko bokazioa (LGA-055/013)**

14 urte betetzean, neska-mutilen janzkera aldatu egiten zen, eta lanean hasten ziren. 14 urterekin hasi zen Rafael zapatari-lana ikasten. Arotzeria izugarri gustatzen zitzaion ordurako. Kaxak bere kontura tailatzen ibiltzen zen Rafael; hori non ikasi zuen azaltzen du.

### **533. Leihotik arrantzan (LGA-055/016)**

Legazpiko plaza ingurua lehen nolakoa zen azaltzen du. Ume txikia zela, leihotik errekan arrantzan ibiltzen zen.

### **534. Umetako jolasak eta pilotak (LGA-055/020)**

Umetan plazan eta elizaren atarian aritzen ziren jolasean. Orduko jolasak aipatzen ditu. Pilotak beraiek egiten zituzten.

### **535. 14 urterekin zapatak konpontzen (LGA-055/022)**

14 urte zituenerako, lanean hasi zen. Horretan denbora asko ematen zuen. Hasiera batean, zapatak konpontzen zituen; gerora, egin egiten zituen. Osabarekin egiten zuen lan.

### **536. Batean eta bestean, lanbidea ikasten (LGA-055/023)**

Hasieran, osabarekin hasi zen lanean; eta handik Bergarara joan zen. Han zer lan izaten zuten azaltzen du. Gerora, Donostiara joan zen, lanbidea ikasten jarraitzera.

### **537. Zapatak egiteko denbora eta materiala (LGA-055/026)**

Zapatak egiteko prozesua azaltzen du. Zapata pare bat egiteko, bi egun eta erdi ematen zituen. Materiala nola lortzen zuten.

### **538. Zapatak egiteko materiala, kontrabandoan (LGA-055/027)**

Gerra ostean, Rafaelak 17 urte zituela, errazionamendurik ez zioten ematen. Zapatak egiteko, materiala kontrabandoan ekartzen zuen bizikletaz.

### **539. Kontrabandoko anekdota (LGA-055/028)**

Lehendik hona, gauzak asko aldatu dira. Kontrabandoan ibili zeneko anekdota kontatzen du.

### **540. Larrua lortu eta zapatak egin (LGA-055/029)**

Zapatak egiteko larrua Antzuolatik ekartzen zuen. Zapatak egiteko prozesuaz hitz egiten du. Larrua erosterako, tratatuta egoten zen ontze-fabrikari.

### **541. Takoia itsasteko materiala (LGA-055/030)**

Zapatari takoia itsasteko, zer material erabiltzen zuten azaltzen du. Gaur egun, zapatak konpontzeko era oso desberdina da.

### **542. Lehengo zapata klaseak (LGA-055/031)**

Lehen zer zapata klase egoten ziren azaltzen du: ingelesak, merzedesak...

### **543. 1945tik orain arteko modak (LGA-055/033)**

Rafael 1945ean hasi zen zapatari-lanetan. Ordutik hona zer moda izan diren azaltzen du. Moda-kontuan, gauza berririk ez dago.

### **544. Saltzaileekin nola moldatzen ziren (LGA-055/036)**

Lehen eskaerak nola egiten zituzten azaltzen du. Saltzailea kutxa handi batekin etortzen zen; eta tren-geltokitik nola ekartzen zuten azaltzen du. Tren-geltokiko langilea goizeko 9etatik aurrera mozkor egoten zen.

### **545. "Gorila" zapata-marka (LGA-055/037)**

Zapataren neurriaren arabera, larru gehiago erabiltzen da; baina fabrikatzaileek batez besteko prezioa ateratzen du. Lehen "Gorila" marka erabiltzen zuten, oso kalitate onekoak ziren; baina umetan beti marka horrekin ibili ostean, bezeroak aspertuta egoten ziren "Gorila"rekin.

### **546. Zapaten salmenta eta fabrikatzaile lan-baldintzak (LGA-055/041)**

Lehen zapatak kaxatan saltzen zituzten. Baina zapata batzuk dozenaka saltzen ziren; eta horiek merkeagoak izaten ziren. Langileek lehen lan-baldintza gogorak izaten zituzten.

### **547. Arropa garbitzeko ohiturak (LGA-056/003)**

Lehen etxean ez zuten urrik, eta ur bila nora joaten ziren azaltzen du. Ura barrikan ekartzen zuten; arropa hamabostean behin garbitzen zuten. Arropa nola garbitzen zuten azaltzen du. Etxean egiten zuten xaboia.

#### **548. Garbiketa egiteko nola moldatzen ziren (LGA-056/004)**

Arropak garbitzean, alanbreetan zintzilikatzen zuten. Sukaldeko ontziak garbitzeko, nola moldatzen ziren azaltzen du.

#### **549. Argindarra etxera iritsi aurretik (LGA-056/005)**

Argindarra etxera iritsi zenerako, 10 urte inguru izango zituen Juanitak. Bitartean, beste hainbat baliabide izaten zituzten argia lortzeko: kandela, karburua, petrolioia...

#### **550. Esnea saltzera herrira (LGA-056/006)**

Etxean behiak zeuzkaten. Esnea Legazpin saltzen zuten, eta Juanita bera joaten zen hura banatzera, baita elurra zenean ere. Esnea saltzeko, jakineko tokiak izaten zituzten. Batzuetan, haserreak egoten ziren, ez zelako denentzako adina esne egoten.

#### **551. Eskolako ganora (LGA-056/011)**

Eskolan gutxi ibili zen Juanita; hasieran, Aztirian apaizarekin. Apaiz harekin izaten zituzten komeriak kontatzen ditu. Eskolako orduetan, doktrina ikasten zuten gehienbat. Egunero errezatu behar izaten zuten, bai eskolan, bai etxean.

#### **552. Etxeko ohiturak eta janaria (LGA-056/014)**

Senideak, gurasoak eta aitona-amonak baserri berean bizi ziren; etxeko ohiturak aipatzen ditu. Etxean etxeko jeneroa jaten zuten: txerria, ardia, babarrunak, ogia...

#### **553. Umetan beti ez zen lana, batzuetan jolasak ere bai (LGA-056/017)**

Umetan, jolaserako asti handirik ez zuten izaten: pilotan, dama-jokoan, tabatan... aritzen ziren. Arbiondoz egindako panpinekin jolasten zuten.

#### **554. Zestoako hotelean lanean (LGA-056/019)**

16 urte inguru zituela, Donostiara joan zen neskame. Lehendik, Zestoako Asunci<sup>o</sup>n hotelean egon zen lanean uda batean. Han zer lan izaten zuten aipatzen du. Garai hartan, hotela kanpotarrez beteta egoten zen; baina ordurako, erdara pixka bat ikasia zeukan Juanitak, eta ondo moldatzen zen kanpotarrekin komunikatzeko.

#### **555. Hoteleko lan-baldintzak (LGA-056/020)**

Hotelean lan egiten zuenean, zer janzkera izaten zuten azaltzen du. Egun osoan egiten zuen lan han.

#### **556. Koltxoiak zaintzen (LGA-056/021)**

Koltxoiak nola egiten zituzten: ilea atera, harrotu, sartu, josi&hellip; Koltxoiak zenbatean behin astintzen zituzten aipatzen du.



### **557. Zestoako bainuetxeko uraren propietateak (LGA-056/023)**

Zestoako bainuetxea lehen baino dotoreagoa da orain. Hango ura ona omen zen osasunerako; baina askori tripak arindu egiten zitzaizkien ur horrengatik. Zestoan lanean ibili zen bitartean, ez zuen herriko giroa askorik disfrutatu.

### **558. Anaia meningitisak jota hil zen (LGA-056/025)**

Donostian neskame ibili zen. Etxera itzuli zenean, anaia gaixo zegoen, meningitisa zeukan. Zumarragara eraman zuten Artetxe medikuarengana eta Juanitak laguntza eskatu zion neskame izandako nagusiari. Azkenean, anaia hil egin zen.

### **559. Injekzioak emateko ardura (LGA-056/027)**

Botikaren bat behar izanez gero, Zumarragara joaten ziren haren bila. Juanitak berak ikasi zuen injekzioak ematen, Gabiriako medikuak erakutsita. Auzoko etxeetan ibiltzen zen zeregin horretan.

### **560. Belarrekin prestatutako ukenduak (LGA-056/029)**

Belarrak asko erabiltzen ziren ukenduak egiteko; nola prestatzen zituzten eta zertarako balio zuten azaltzen du.

### **561. Belarrekin prestatutako ukenduak (II) (LGA-056/030)**

Juanitaren koinatak botika ugari egiten zituen. Lehen fede handiagoa zegoen sendabelarrengan.

### **562. Donostiako etxean neskame ibili zeneko zereginak (LGA-056/032)**

Donostiako medikuaren etxean neskame zebilela, etxeko lanak egitea zen Juanitaren zeregina. Hasiera batean, Donostiako etxean ume asko zegoela ikusita, beldurtu egin zen; baina gerora oso gustura egon zen. Hango lan-baldintzei buruz hitz egiten du.

### **563. Gerra hasiera Legazpin (LGA-056/037)**

Gerra garaia ezagutu zuen Juanitak. Gerra hasi zen egunean, Santa Marinako festak ziren. Soldaduak nondik sartu ziren azaltzen du. Nafarrek ilea mozten omen zuten, eta Legazpin haien beldur ziren. Gogoan du tropak Legazpitik igaro zireneko eguna.

### **564. Espia zelakoan, zigortuta (LGA-056/039)**

Juanita, espia zelakoan, salatu egin zuten. Zigor gisa, gorriei janaria prestatu behar izan zien. Orduan etxean nola moldatu ziren azaltzen du.

### **565. Frankistek etxea garbitzera behartu (LGA-056/040)**

Frankistak sartu zirenean, apaiz-etxea eta abar garbitzera behartu zuten Juanita.

### **566. Gerra garaiko bizimodua (LGA-056/041)**

Espia zelakoan, Juanita zigortu egin zuten. Orduko bizimoduaz hitz egiten du.

### **567. Eskolako zigor ankerrak (LGA-056/047)**

Eskolan ziega zegoen, eta maisuak hara bidaltzen zituen umeak, zigor gisa. Maisua mozkorra egoten zen, eta ez zituen ondo tratatzen umeak. Orduko zigorrak aipatzen ditu.

### **568. Kartak erdaraz eta Espainiako bandera soinean (LGA-056/049)**

Kartak erdaraz idazten zituzten lehen. Espainiako bandera eraman behar izaten zuten soinean bistan.

### **569. Aitajauna, olagizona (LGA-057/002)**

Gipuzkoan azkena itxi zen ola omen zen Bengolea, eta zabaletarren aitajauna izan zen hango azken olagizona. Legazpiko olei buruz hitz egiten dute. Julianek eta Rosarioak zerrategia, errota eta ur-saltoa ezagutu zituzten Bengolean.

### **570. Olak eta errotak (LGA-057/003)**

Ola asko errota bihurtu ziren. Ur-saltoa eta turbina bazituzten; auspoaren lekuan, harria jarri behar izaten zen. Legazpiko errotak: Bengola, Telleriartekoa, Igaralde...

### **571. Nazionalak Legazpin sartu zirenekoa (LGA-057/005)**

Nazionalak Legazpin sartu zireneko oroitzapena. Rosariok zazpi urte zituen orduan. Tiroak gogoratzen ditu. Umeak etxe aurrean jolasean zebiltzala, Zumarraga aldera zihoazen soldaduak ikustera joan ziren. Bengoleako zerrategiko oholen artetik egon ziren soldaduak zelatatzen. Zerrategiko andreak etxean sartzeko esaten zien umeei.

### **572. Olaetxe baserria (LGA-057/006)**

Baserrian historia. Olaetxe baserria Miguel Lopez de Legazpiren familiarena omen zen. 1925ean aitajaunak eta aitak baserria erosi zuten, ordura arte errentan bizi izan ziren. Behin baserria erosi zutenean, obra egin zuten.

### **573. Labrantza (LGA-057/009)**

Baserritik bizi ziren. Labrantza egiten zuten. Artoa, garia, babarruna, patata, arbia... ereiten zituzten.

### **574. Patrizioarentzat garraiolari (LGA-057/010)**

Aitak Patrizio Etxeberria lantegiko garraio-lanen eskusiba eduki zuen. Idi pareta eta gurdiaekin ibiltzen zen. Zumarragako tren-geltokitik lantegira eta alderatzen aritzen zen txapa garraiatzen. Denboraren, kamioia ekartzen ausartu ez, eta utzi egin zuen eginkizun hori.

### **575. Abereak eta esne partiketa (LGA-057/011)**

Lau behi, 45-50 ardi inguru eta txekorrak zeuzkaten baserrian. Esne-bezeroak zituzten, baina ez asko. Eskolara bidean, marmitetan eramaten ziren esnea jakineko bezeroei. 13 lagun bizi ziren etxean.

### **576. Baserriaren tamaina eta egitura (LGA-057/012)**

Olaetxe baserria etxe handia zen. Urteko garo, lasto, gari, belar... denak teilapean kabitzen ziren. Etxeari buruzko azalpenak.

### **577. Eskola, maistrak eta etxerako lanak (LGA-057/013)**

14 urtera arte ibili zen Legazpiko eskolan. Neskek eta mutilek aparte ikasten zuten. Maistrak: doña Felicitas eta doña Concha. Doña Felicitasek matematikako etxekolanak bidaltzen zizkien. Aitak laguntzen zion matematikak egiten. Eskolan erdaraz ikasten zuten.

### **578. Zigortuta etxera bidali (LGA-057/015)**

Eskola garaiko kontuak. Urte asko egin zituen doña Felicitas maistrarekin. Maistrak egun baterako zigortuta etxera bidali zueneko kontakatzen du. Etxean ez zuten zigorraren berririk izan.

### **579. Zatiketak (LGA-057/016)**

Eskola garaiko kontuak. Zatiketak egiten ikasteko zailtasunak. Nola ikasi zuen kontakatzen du. Aita buruz oso argia zen.

### **580. Eskola garaiko kontuak (LGA-057/017)**

Zazpi urterekin hasi zen Legazpiko eskolan. Plazako eskolan lekua falta zela eta, 'Centro Republicano' konfiskatu eta han ere eskola jarri zuten. Handik "eskola txikira" pasa zen, eta, geroago, fraideen kolegiara. Fraideetako zuzendariari buruz hitz egiten du. 'Cara al Sol' abesten zuten eskolara sartu aurretik, formazioan jarrita.

### **581. Eskolan sartzeko oinetakoak aldatu (LGA-057/018)**

Eskolan sartzeko bakoitzak bere oinetakoak kendu eta apretak jantzi behar izaten zituen.

### **582. Lanbide eskola (LGA-057/019)**

14 urterekin eskola bukatuta, gehiengo lantegira joaten zen lanera. Bakarren batzuk soilik jarraitzen zituzten ikasketak. Lantegian lanbide eskola moduko zerbait jarri zuten: goiz partean, eskolara; eta arratsaldetan, lantegira.

### **583. Antzuolako maristak (LGA-057/021)**

11 urterekin, Antzuolako maristetara joan zen. 16 urterekin etxera bidali zuten, "harako balio ez" zuela eta. Eskolan jarraitzeko gogo handirik ez zuela dio Julianek. Batxilergoko lau urte egin zituen Antzuolan. Urtebete egin zuen sotanarekin. Egunero joan behar izaten zuten mezara.

### **584. Doktrina eta meza (LGA-057/022)**

Legazpiko kolegioko kontuak. Goizean, 09:00etarako, meza izaten zuten, eta, gero, doktrina. Brinkolakoei eta baserritarrei euskaraz irakasten zien doktrina; gainerakoei, gaztelaniaz.

### **585. 'Tejería Urola' (LGA-057/024)**

16 urterekin Antzuolako seminarioa utzi eta etxera itzuli zen. 19 urtera arte familiako teilerian aritu zen lanean. Teileria etxeko lurretan zegoen, eta aita eta bazkide batzuen zen. 'Tejería Urola' zuen izena. Teilak, adreiluak... egiten

zituzten. 19 urterekin, Eibarko Armeria Eskolara joan zen "maestría industrial" ikastera.

### **586. Legazpiko buztindegiak eta teileriak (LGA-057/025)**

Teila egiteko buztina behar da, silize asko duen lurra. Legazpiko buztintegiak. Legazpiko teileriak: 'Tejería Seguru' eta 'Tejería Urola'. Julianen aita Urola teileriako bazkide zen.

### **587. Teilak eta adreiluak egiteko prozesua (LGA-057/026)**

Teileriako lana. Teilak eta adreiluak nola egiten diren azaltzen du. Lantegian zer makinaria zegoen. Ekoizpen prozesuan jarraitu beharreko pausoak azaltzen ditu.

### **588. Teilaren kolorea eta buztina erretzea (LGA-057/028)**

Teilaren kolorea: buztinak erretakoan bere kasara hartzen duen kolorea izaten da. Buztina 950-1.000º artean erre behar izaten da. Gradu horietara iritsi ezean, buztinak hezetasuna hartzen du; pasatuz gero, berriz, ia funditu egiten da.

### **589. Teila egiteko sekretua (LGA-057/029)**

Teileriako materiala nora saltzen zuten. Garai batean, Gipuzkoan 11 teileri omen ziren. Lantegi ondoan pilatzen zuten teila. Teila kalitatezko buztinarekin egiteak eta ondo erretzeak zer garrantzia duen aipatzen dute.

### **590. Teileriako labea (LGA-057/030)**

Teileriako labea nolakoa zen. Labearen funtzionamendua.

### **591. Egunean, 20.000 adreilu (LGA-057/031)**

Teileriako lana. Egunean, 20.000 adreilu inguru egiten zituzten. Teila gutxiago egiten zituzten. Adreiluen ekoizpenari buruzko azalpena. "Sekaderoa" (lehortegia).

### **592. Gipuzkoan 11 teileria (LGA-057/033)**

Garai batean, Gipuzkoan 11 teileri omen ziren. Legazpiko teileriez gain, Oñatin, Zumarragan, Azkoitian, Zarautzen, Zaldibian, Ormaiztegin, Andoainen, Irunen eta Bergaran ere baziren.

### **593. Teilerian bulegari (LGA-057/034)**

Zumarragako mojen eskolan kontabilitatea ikasi zuen Rosariok. Etxeko teilerian bulego lanetan aritzen zen gero. Bulegoko materiala nolakoa zen: idazteko makina, kalkulagailua, telefonoa... Auzo guztian bi telefono zeuden: inguruko jende guztia teileriara joaten zen telefonoa erabili behar zuenean. Teilerian telefonoa jartzea nola lortu zuten azaltzen dute.

### **594. Bulegoko lana (LGA-057/035)**

Familiako teileriako bulegoan zer lan egiten zituen azaltzen du.

### **595. Patrizio Etxeberria lantegian 30 urte (LGA-057/040)**

Eibarko Armeria Eskolan ikasketak egin, soldadutza bukatu eta Patrizio Etxeberria lantegian hasi zen lanean, bulego teknikoan. 30 urte egin ditu lantegi horretan delinearazaila lanetan.

### **596. Hamabostean behin, musika-banda (LGA-057/043)**

Legazpin hamabostean behin jotzen zuen musika-bandak plazan. Egun berean futbola eta banda izaten baziren, Zumarragatik jende asko joaten zen herrira. Futbol-zelaia non zegoen: garai bateko buztindegia zen tokian.

### **597. Garai bateko Legazpi (LGA-057/044)**

Futbol-zelaia non zegoen. Herria nolakoa zen. Teileria, buztindegia, bideak... non eta nolakoak ziren aipatzen dute.

### **598. Irratiak eta egunkariak (LGA-057/046)**

'Radio Loiola' eta 'Radio Segura' entzuten zituzten. Arrosarioa, behintzat, euskaraz izaten zen. Julian mutikoa zela egunero egoten omen zen egunkaria etxean: 'La Voz'. Gerra aurrean, berriz, 'El Día'. Egunkaria irakurtzeko ohitura izan dute etxean.

### **599. Araba aldera, gaztelania ikastera (LGA-057/054)**

Aitaren gazte garaian, soldadutzara joaterako Legazpiko jendea Araba aldera morroi joaten zen gaztelania ikastera. Gaztelaniaz hitz egiten ez zekien aitaren soldadu lagun bati pasatakoa.

### **600. Umetan, goseari zion beldurra (LGA-058/002)**

Umetan, beraien etxea nolakoa zen azaltzen du. 3 urte zituela, Azpeitiko eskolan ikasi zuen; eta orduan, errepublikaren alde egindako aipamenak gogoan ditu.

### **601. Ama jostuna eta aita mikeletoa (LGA-058/003)**

Errepublika garaian, Azpeitian bizi zirenean, amak alpargatak josten zituen. Aita mikeletoa zen, eta bi soldatarekin ondo bizi ziren.

### **602. Azpeitian izandako borrokak (LGA-058/004)**

Aita mikeletoa zen, eta zer lan izaten zituen azaltzen du. Garai hartan, borrokak ohikoak izaten ziren. Borroka haietako batean gertatutakoa kontatzen du.

### **603. Ilarrazun egon zireneko garaia (LGA-058/005)**

Aita mikeletoa zen, eta Ilarrazura (Lizarratik gertu) bidali zuten lanera. Pilarren amak denekin hitz egiten zuen. Horrela, lagun egin zuen gizon bat, eta hari esker, alabak eskolan sartu zituen.

### **604. Ilarrazuko mikeletoen etxea (LGA-058/007)**

Ilarrazuko mikeletoen etxea nolakoa zen azaltzen du.

**605. Aita Azpeititik Ilarrazura bidali zutenekoa (LGA-058/008)**

Pilarren aita mikeletea zen, eta zer lan izaten zituen azaltzen du. Aita Azpeititik Ilarrazura erbesteratu zuten. Orduko gorabeherak kontatzen ditu.

**606. Iruñera joateko asmoa zapuztu zuen gerrak (LGA-058/010)**

Urretxuko mojen eskolan ikasi zuen. Gerra iritsi izan ez balitz, Iruñera eramango zuten Pilar. Hara joan izan balitz, lana egin eta ikasi egin ahal izango zuen, dena batera.

**607. Urretxuko mojen oroitzapen ona (LGA-058/011)**

Urretxuko mojen oso oroitzapen onak ditu. Pilar ezkertia zen, eta hori gaizki ikusia zegoen mojen artean. Mojekin ezin zen euskaraz egin, baina Pilarrek ez zekien erdaraz.

**608. Pixkanaka senarra izango zuenarekin harremana sendotzen (LGA-058/013)**

Aita mikeletea zen; eta, horregatik, hainbat herritan bizi izan ziren umetan. Pilarrek 15 urte zituela ezagutu zuen senarra; betidanik lagunak izan ziren. Harremana nola joan zen sendotzen azaltzen du. Orduan bizikletan ibiltzen ziren.

**609. Gaztetako aisialdia eta jolasak (LGA-058/014)**

Eskola bukatu zuenenetik, baserriko bizimodua ezagutu izan du. Lehenago, baina, kaleko bizimodua izan zuen. Orduko aisialdiaz eta jolasez hitz egiten du.

**610. Soldadutza eta ezkontza (LGA-058/016)**

Pilarrek etxetik kanpo lan egin zuenekoak kontatzen du. Gazte ezkondu zen, senarraren anaia gazteak soldadutzara joan behar izan ez zezan. Senarrak suertea izan zuen soldadutzan.

**611. Errotaren funtzionamendua (LGA-058/019)**

Errotara jende asko joaten zen garia ehotzera. Errotak nola funtzionatzen zuen azaltzen du. Gari-aleak zakutan biltzen zituzten. Zakuak zer pisutakoak izaten ziren aipatzen du.

**612. Errotako lana antolatzen (LGA-058/020)**

Errotako lana nola antolatzen zuten azaltzen du. Errotan, egunaren bukaeran, hauts asko egoten zen.

**613. Lehengo bizimodu umila (LGA-058/021)**

Lehen jatekoa lortzeko adina diru egoten zen, baina harrokeriarik ez.

**614. Gerra hasieran, mikelesteak Donostiara (LGA-058/023)**

Gerra hasi zenekoak gogoan du: Urretxun zegoen, kamioi bat pasa zen mikelesteak Donostiara eramateko... Aitari tokatu zitzaion zeregina aipatzen du. Behin hari bisitan joan behar zutela, Pilarri eta bere amari gertatutakoa kontatzen du.

### **615. Gerran Legazpi hustu egin zen (LGA-058/024)**

Gerra garaian, Legazpin ez zen asko nabaritu gerraren eragina. Jende askok ihes egin zuen herritik. Pilarren lehengusu bat hil egin zuten gerran. Patrizioren fabrika langile gabe geratu zen; eta baserrietako mutil gazteei eman zien lana orduan.

### **616. Urolako trenua inauguratu zenekoa (LGA-059/001)**

Urolako trenua inauguratu zeneko egunaz ari da. Erregea etorri zenerako umeez elkarri banderatoak apurtu zizkieten. Herriko eskolatik joan ziren geltokira oinez.

### **617. Autobus zerbitzuak Brinkolan (LGA-059/004)**

Langileentzako autobus bat iristen zen Brinkolaraino, Agirre anaiena. Arrasatetik Zumarragara joaten zen autobusa "Atxa" izenez ezagutzen zen eta Oñatitik Brinkolara joaten zen beste autobus bat ere bazegoen. Bi baserrik zuten autoa, auzoan hirugarrena aitarena izango zen.

### **618. Ermandadea eta suaroa (LGA-059/007)**

"Ermandadea" bazegoen. Ganadu kontuetarako baserritarren elkarte bat zen. Diru kopuru bat jartzen zuten urtean eta aseguru gisa funtzionatzen zuen, animalia bat akabatzen zenerako (behiak normalean), mediku eta botiketarako, etab. Suaroa ere urtero ordaintzen zuten eta etxea erreko balitz, bertatik jasoko lukete laguntza.

### **619. Medikua Legazpitik joateko oso larri behar (LGA-059/008)**

Medikua Legazpitik etortzen zen abisua emanez gero. Umeak izateko berriz errotako bizilagun batek laguntzen zuen borondatez. Medikua Legazpitik joateko oso gaizki ikusi behar zuen norberak bere burua. Biriketako gaitzak ziren arruntenak.

### **620. Añorgako "kuranderak" senarra sendatu (LGA-059/012)**

Senarrari hilabeteko bizia geratzen zitzaioela esan ziotelako joan ziren Añorgako sasimedikuarengana. Ailorbearekin egindako erremedioak erabiliz sendatu zen.

### **621. Garai hartako Brinkola (LGA-059/015)**

Garai hartan Brinkolan bertako jendea baino ez zen bizi. Giro euskalduna zegoen, geltokiko "guardafrenoak" baino ez zekien erdaraz. Auzoa nolakoa zen deskribatzen du.

### **622. Legazpitik jendea Brinkolako tabernetara (LGA-059/016)**

Brinkolan bi taberna zeuden. Legazpitik jende ugari etortzen zen askaltzera. Neskak ere sartzten ziren tabernan, dantza egitera askotan. Kongregaziotik bidali zituzten bere ahizpak taberna batean lotuan dantza egiteagatik.

### **623. Brinkolako lantegiak (LGA-059/018)**

Brinkolan harrobi bat eta argindar etxea zeuden. Bertako bizilagun askok egiten zuten bertan lana

### **624. Lanak goiz bukatu eta jostera (LGA-059/022)**

Arratsaldeak libre edukitzeko baserriko lanak goiz amaitzen zituen lehengusu baten laguntzarekin. Jostera joaten zen arratsaldero Telleriarteko familia ezagun batengana.

### **625. Etxerako arropak josten (LGA-059/023)**

Oso dotore jantzita ibiltzen ziren beti. Prakak ere orduan hasi ziren erabiltzen, bizikletan joateko batik bat. Arropa asko jositakoa da bera, denbora aurrezteko albaindu gabe gainera.

### **626. Jai eguneko arroparik astean ez (LGA-059/025)**

Asteko arropak ez zituzten jai egunetan erabiltzen. Erabiltzen zituzten oinetakoak nolakoak eta zertarako ziren azaltzen du.

### **627. Aingeru papera Azpeitiko prozesioetan (LGA-059/028)**

Umetan ile luze "ondulatua" zuelako aingeru paperean jarri zuten Azpeitiko prozesioetan hainbat aldiz. Oinutsik ibili behar izaten zuten eta ez zuen oso gogoko. Brinkolan ez zegoen horrelakorik.

### **628. Gaurko bizimodua askoz hobea (LGA-059/033)**

Gaurko bizimodua lehengoa baino hobea dela esaten du. Dirurik ez zegoen garai hartan eta lan asko egindakoa dela dio.

### **629. Baserrian eginiko ogia eta errazionamendua (LGA-060/005)**

Astean behin egiten zen aste guztirako ogia. Kaletik errazionamenduko ogia ekartzen zuten, opil bat bakoitzarentzat, zazpi opil guztira. Rosariok ekartzen zuten ogia kaletik.

### **630. Josten eta sukaldean ikasten (LGA-060/007)**

Etxe barruko bizimodua gehiago bizi izan zuen etxetik kanporakoa baino. Neska bakarra zen anai-arreben artean, eta amak josten eta sukaldean aritzen ikastera bidaltzen zuen. Baserri lanetan gutxi aritzen zen, horretan gehienbat etxeko mutilek jarduten zuten.

### **631. Eskolan eskulanak, sukaldaritza ikastaroa eskolaz kanpo (LGA-060/015)**

Betidanik izan du eskulanak egiteko ohitura, "bainiak" eta "festoiak" egiten zituzten eskolan. "Bainiak" izarak egiteko telarekin egiten zituzten eta "festoiak" eskuz, bastidorerik gabe. Sukaldaritza saioen ostean, ikasteko prestatzen zituzten jakiak denen artean zozketatzen zituzten. Guztiak ziren emakumeak.



### **632. Lutoa gertukoren baten heriotzaren aurrean (LGA-060/016)**

Aitona hil zenean urtebeteko lutoa egin zuten, eta bi urtekoa ama hil zenean. Goitik behera beltzez jantzita ibiltzen ziren, eta ez zuten joaterik zinera, dantzan egitera, eta abar. Rosarioren lagun bati ahizpa hil zitzaionez, biak elkartu ziren luto garaian, elkarrekin egoteko.

### **633. Legazpiko eliza eta elizari lotutako ohiturak (LGA-060/018)**

Mezara Legazpiko elizara joaten ziren, familia bakoitzak bere txokoa zuen elizan. Ohitura zen igandero meza nagusira joan eta kandela piztea. Apaiza igandero joaten zen "erresponsoa" ematera, eta ordainetan dirua eman behar izaten zitzaion.

### **634. Hileta elizkizunak (LGA-060/019)**

Ama hil zenean bera ez zen joan hileta elizkizunera. Apaiz kopuruaren arabera maila ezberdinetako hileta elizkizunak izaten ziren, Gorpua bizkarrean eraman behar izaten zen kanposantutik elizaraino.

### **635. Iganderoko mezak (LGA-060/020)**

Igandero joaten ziren mezara, zenbaitetan goizeko sei eta erdietarako mezara ere bai. Mariatarren kongregazioko kide izan zen.

### **636. Mariatarren kongregazioa eta apaiz-laguntzea (LGA-060/021)**

Uste du 14 urtetik gorakoak sartzen zirela Mariatarren kongregazioan. Hilero kongregazioaren eguna ospatzen zen eta jauna hartzera joan behar izaten zuten denek. Norbait hilzorian baldin bazegoen, apaizari lagundu behar izaten zioten haren bizilekura, bidean otoitzean aritzen zirelarik.

### **637. "Bulak" eroatera bikarioaren etxera (LGA-060/022)**

Ostiraletan ezin izaten zen haragirik jan urte osoan zehar, baina sakrifizioa garizuma garaira murrizteko, bikarioaren etxera joaten ziren txarteltxo batzuek eroatera, "bulak" deitzen zieten.

### **638. Neba arreben arteko desberdintasunak etxean (LGA-060/028)**

Etxeko giroan eragin handia izan zuen Rosario neska bakarra izateak senideen artean, haiek eguerdian lanetik etortzen zirenerako bazkaria mahai gainean izaten zuten, eta gero ezta jaso behar zenik ere. Mutilek ekartzen zutenekz jorjala etxera, haien menpe zeuden etxeko emakumeak.

### **639. Ikasketak eta lana (LGA-060/029)**

Amari ilusioa egiten zion Rosariok zerbait ikasteak, ama hil ostean ikasten hasi zen baina etxeko lanak eta ikasketak bateratu ezinda, utzi egin behar izan zuen. Senideak lantegiko eskola profesionalera joaten ziren arratsaldeetan, goiza lanean pasa ostean.

#### **640. Neskak neskame (LGA-060/030)**

Garai hartan orokorrean neskak neskame joaten ziren, goi-mailako ikasketak, izatekotan, familia dirudunetako seme-alabek izaten zituzten.

#### **641. Bizi-baldintzak: lana, osasuna... (LGA-060/033)**

Garraio bide gutxi zegoen, alde batetik bestera oinez ibiltzen ziren ia beti. Lantegian gizarte segurantzarik ez zuten langile askok eta askok, herriko medikuarengana joaten ziren eta askotan medikua bera joaten zen etxeetara. Botikak ordaindu egin behar izaten zituzten botikan, errezeta orde, papertxo batean apuntatuta eramaten zuten botikaren izena.

#### **642. Apaiz eta medikuari berorika, lagun bati hika eta irakasleari "de usted" (LGA-060/034)**

Apaizari eta medikuari berorika egiten zieten. Irakasleari gazteleraz, eta lagun artean ez zuten hiketarako joera handirik, nahiz eta lagun baten batekin hika aritu. Tolosaldeko euskara gustatzen zaio gehien.

#### **643. Joanes de Zangituk eraikitako errota (LGA-061/001)**

Gaur egun Mirandaolako burdinola dagoen lekuan jaioa da. XVI. mendean Joanes de Zangituk garai bateko burdinolaren azpiegitura aprobetxatuz eraikitako errota hain zuzen ere. Beharrei erantzunez pusketaka jasotako etxea omen zen beraiena.

#### **644. Markastegiko errota (LGA-061/004)**

Mirandaolako baserria berritu zuten Patricio Etxeberriak Markastegiko errota erosi zirenean. Aitonak egin zituen hargin lanak.

#### **645. Birraitona, zorriak baino alferragoa (LGA-061/005)**

Birraitona, alferra eta bizizalea zela kontatzen du. Aita santuaren bedeinkapena ere jaso zuen Erroman. Birraitonaren pasadizo bat kontatzen du.

#### **646. Markastegiko errota (LGA-061/009)**

Errota Zumarragako biltegi zain batentzako baino ez zuten lanik egiten. Errota nolakoa zen deskribatzen du eta baita haren funtzionamendua ere.

#### **647. Garai hartako Telleriarte (LGA-061/011)**

Garai hartako Telleriarteko baserriak izendatzen ditu. Etxe guztietako ateak zabalik izaten omen zituzten eta sukalde danetan aritzen ziren jolasean. Zoilori fruta lapurtzen ibiltzen ziren umetan; lapurtutakoa beti goxoagoa omen.

#### **648. Estankuan tabako asko saltzen zen (LGA-061/013)**

Tabako asko saltzen zen. Bergaratik ekartzen zuten hilean bi aldiz. Saltzen ziren tabako klaseak aipatzen ditu. Errazionamendu-tabakoa ere ba omen zegoen.

### **649. Apopiloek "takiloa" hartzen zuten tabernan (LGA-061/015)**

Taberna eta estankoa batera zeuden. Apopiloak edukitzen zituzten tabernan eta "takiloa" hartzen zuten hauek. Zer den azaltzen du.

### **650. Telleriarteko taberna (LGA-061/016)**

Tabernan ze jatordu egoten zen aipatzen du. Nolakoa zen deskribatzen du. Ardoa barrikan ekartzen zuten eta pitxarretan zerbitzatzen omen zen. Urik ez zegoenez, euri ura biltzen zuten depositu batean. Telleriartera lanera etortzen ziren beharginak izaten ziren bertako bezero.

### **651. Umetako jolasak (LGA-061/017)**

Telleriarten ez zegoen beste dendarik. Berak ez zuen lanik egin estankoan, beti jolasean aritu izan dela dio. Jolas desberdinak deskribatzen ditu: kromoak, tortolosak, soka, etab.

### **652. Telleriarteko eskolan ikasitako "disparateak" (LGA-061/021)**

Libururik ez zuten, irakasleak ematen zizkien azalpen guztiak eta adi-adi egon behar izaten zuten. Orduko ikasgaiak azaltzen ditu. "Los hombres más importantes de Guipuzcoa" ikasgaia buruz errezitatzen du. Disparate galantak botatzen omen zituzten dana buruz ikasten zutelako.

### **653. Neskek erdaraz, mutilek euskaraz (LGA-061/023)**

Neskek erdaraz egiten zuten dotoreagoa zelako, mutilek aldiz euskaraz. Etxean euskaraz egiten zuten hala ere.

### **654. Donostiara, ikasketekin jarraitzera (LGA-061/024)**

Eskolan hasi zenerako, Zoiloren arrebak erakutsita, bazekien kenketak egiten. Oso irakasle ona izan zuten Telleriarteko eskolan eta hark gomendatu zien gurasoei ikasketekin jarrai zezan. Horregatik joan zen Donostiara, teresiar eskolara ikasketak jarraitzera alegia.

### **655. Goi mailako ikasketak teresiar eskolan (LGA-061/025)**

Donostiako eskola ordaindu egin behar zen. Beka bat eman zioten ikasle ona izateagatik. Teresiar eskolara joaten ziren neska guztiak irakasle izateko prestatzen zituzten. Batxilergoa egin zuen Elvirak Donostian zazpi urtez. Goi mailako ikasketak oso gogorak zirela kontatzen du.

### **656. Legazpiko "Korea" (LGA-061/029)**

Legazpiko "Koreara" ezkondu zen 23 urterekin. Patrizio Etxeberriak egindako etxetxo bati deitzen zioten Korea eta arrazoia kontatzen du

### **657. Mirandaolakoa, miraria ote? (LGA-061/031)**

Mirandaolako burdinolan 1580. urtean gertatutako miraria kontatzen du. Hala ere ez du berak miraririk gertatu zenik sinesten. Patriziok gertakari hura zela eta erosi zuen beraien errota eta burdinola eta kapera bat eraiki zituen bertan. Gurutze santu hura ikusi nahirik bere "sarkofago"tik atera zuen Elvirak eta gero, ezin sartuta, amari aitortu behar izan zion egindakoa.

### **658. Zumaiaraino bizikletan (LGA-061/033)**

Amandreak oparitu zion bizikleta batxilergoa amaitu zuenean. Kongregazioak aipatzen ditu. Lagunekin Zumaiaraino joaten zen sarri-sarri bizikletaz. Beste erromeria batzuk ere aipatzen ditu.

### **659. Erromeriz-erromeri bizikletaz (LGA-061/035)**

Erromeri asko zegoen uda partean eta bizikletaz edo oinez joaten ziren batetik bestera. Urretxuko Santa Anastasietakoa izaten zen azkena eta hau pasata eskolara itzuli behar izaten zuelako penaz egoten zen. Oñatiko prozesioa du gogoan, "santu bizixak".

### **660. Gerra garaiko oroitzapenak (LGA-061/037)**

Zortzi urte zituen gerra garaian. Motxorro (Telleriarte auzoko baserria) inguruan jende asko egoten zela du gogoan eta beldurra pasatzen zuen. Estankoko bi osabak joan ziren soldadu. Etxetik ateratzen ez zieten lagatzen, tiroen beldur ziren. Goserik pasa izanaren oroitzapenik ez dauka

### **661. Gerra garaian errota gauzez lanean (LGA-061/038)**

Gerra garairako errota itxita zegoenez ez zuten prezintatu. Hala ere, gauetan etxerako lanean aritzen zirela kontatzen du. Garia entregatu egin behar izaten zen udaletxean.

### **662. Aitajaunaren kondairak (LGA-061/041)**

Jolas asko egin izan du beti Elvirak. Jolaserako kantuak aipatzen ditu. Aitajaunak ipuinak kontatzen zizkien nahiz eta ez dituen gogoan orain. aitajaunak kontatzen zuen pasadizoa kontatzen du.

### **663. Ardiak eta behiak baserrian (LGA-062/003)**

Ardiak eta behiak zituzten baserrian, txerriren bat ere bai, eta oiloak. Behiek emandako esnea familiakoen artean banatzen zuten. Lehen ardiak txabolan jezten zituzten, baserrietik ordu erdiko bidea egongo zen txabolarara arte.

### **664. Ardi mutur beltzak (LGA-062/004)**

Ardiak larrean elikatzen ziren, belar onduaz bestela, eta ume garaian pentsu pixka bat eman ohi zitzaien, etxeko arto eta gariz egina. Ardi mutur beltzak izan zituzten, mutur gorriren bat ere izan zuten arren. Gaztetxoak zirela astoarekin joaten ziren Zumarragara, igandeetako azokara arkumeak saltzera. Aitak lantegian lan egin arren, goizean goiz lanera joan aurretik, artaldea zaintzera joan ohi zen, eta iluntzean berdin. Beraiek ere laguntzen zioten aitari lan horietan.

### **665. Artegira ardiak jeztera (LGA-062/005)**

Ardiak artegian jezten zituzten beti. Ardientzako askak egurrezkoak izaten ziren, baita "artxarak" ere. Hurritz zotzekin egindako hesiak egoten ziren inguruan, arkumeak bereizteko ardiengandik. Ardi herrenik ez zen izan auzoan eta inguruan, hori beranduagoko kontua izan omen zen, nahiz eta beste auzo eta herri batzuetan ordurako baziren ardi herrenak. Harri urdina eta idoa izaten ziren botikarik onenak ardi herrenentzat.

### **666. Ardi moztea (LGA-062/006)**

Ardi moztea San Joanetan egiten zen. Aitak mozten zizkien ardiei zatirik konplikatuena, eta errazena berari uzten zizkion. Jaio eta handik urtebetera mozten zieten isatsa arkumeei, ondoren buztana erre egiten zuten, guritutako burdinarekin. Markatu ere egin behar izaten ziren ardiak, norbere ardiak identifikatzeko. Zintzarriak ardi banaka batzuei bakarrik jartzen zizkien, baziren ardi denei jartzen zizkien ere.

### **667. Eskolan euskaraz, tarteka (LGA-062/008)**

Zazpi urterekin hasi eta 14 urte bete arte ibili zen Nati eskolan. Zazpi urterekin eskola nazionalan hasi zen, eta Felicitas maistraren oroitza oso ona du, gaztelaniaz egin behar izaten zuten, baina euskaraz zerbait oker esanez gero, eta Felicitasek zuzendu egiten omen zuen esandakoa, eurek ikas zezaten. Erdaldunak ere baziren eskolan.

### **668. Eskolan, neskak alde batetik, mutilak bestetik (LGA-062/009)**

Goizero, eskolara sartu orduko mezara joaten ziren, erreztatza, kapila bertan baitzegoen. Mutilek egurrezko kaxoi edo apaletan uzten zituzten etxetik eramandako oinetakoak, eta beste batzuek jantzen zituzten, bai mezarako eta baita errekreo irteerako ere. Nati kontatzen du eskolara sartu orduko "¡Viva España!" abestu behar izaten zutela, ondoren errezoak, eta orduan hasten zirela lanean.

### **669. Eskolastikara josten ikastera (LGA-062/010)**

Josten ikasten hasi zen Nati, Legazpiko Eskolastikan. Sei edo zazpi emakume joaten ziren josten ikastera emakume harengana, negu garaian abrigoak josten zituzten, uda garaian soinekoak edo trajeak gehiago. Arropak neurria egiten zituzten, josteko makinak erabiltzen zituzten. Lanazko telak, "Cheviot"... tela mota desberdinekin egiten zuten lan, Donostiara-eta joaten ziren telak erostera.

### **670. Abarkak eta zapiak (LGA-062/011)**

Juliok uda partean abarketak erabiltzen zituen, eta neguan berriz, abarkak. Ez zuen txapela erabiltzeko ohitura handirik, nahiz eta tarteka jantzi izan. Zapi ilunak erabiltzen zituen Nati lanerako. Neska gazteak sorora joaten ziren, garia lotzera, besarea besoan hartuta. Kaletar jendea azalez zuria zenez, Nati dio txapelak egiten zituztela soroan, eguzkiak azala erre ez ziezaien.

### **671. Kaletarrak eta baserritarrak (LGA-062/012)**

Kalean, eskolan... baserritarrak ez ziren gutxietsiak izaten kaletarregandik, eskolan maistrek ere kontrolatzen zuten hori. Hala ere, beti ez zen hala izaten, eta Urretxun euskal jai egunean gertaturiko istorio bat kontatzen du Nati.

### **672. Gari jotzea (LGA-062/013)**

Artoa, garia... denetarik jorratzen zuten, alpapa geroagoko kontua izan zen. Garia kentzean, uztailan, arbia lantzen zen, arbia kentzean artoa, eta udazkenean, garia lantzen zen, uztailan jasotzen zelarik. Garia eskuz jasotzen zuten, igitaiarekin, metan zortzi egunez izaten zuten garia, eta ondoren zabaldu egiten zuten. Garia jotzeko auzotar denen artean makina bat hartzen zuten, eta makina hartan garia nola jotzen zuten kontatzen du Juliok. Behin garia jota, garia garbitzeko "dornuan" sartzen zuten.

### **673. Errotara garia eta artoa ehotzera (LGA-062/014)**

Gizonezkoek eta emakumezkoek lan desberdinak egiten zituzten gari jotzean. Behin lanak amaituta, festa ederra izaten zen ondoren. "Bengolea" errotara joan ohi ziren artoa eta garia ehotzera, astoan joaten ziren eta "Bengolea" itxita egon zen garaian, Antzuolara joan ohi ziren.

### **674. Saltzaileak, traperoak eta ijitoak (LGA-062/015)**

Irin zakuak hiru edo lau aste irauten zien etxean, bi labe zituzten etxean ogia egiteko. Okinik ez zen joaten euren baserrira, saltzaileak bai, denetarik saltzen zutenak: josteko orratzak, kordioak... Legazpin trapero bat bazen, "Jerusalem" deitzen zioten. Ijitoak ere baziren, haietako bat Santa Kutzetan astoei ilea moztera etortzen zen Legazpira, guraize okerrekin. Markatu egiten zituen astoak, berak moztutakoak zirela jakin zezan jendeak.

### **675. Osaba Santoñatik Madrilgo kartzelara (LGA-062/016)**

Osaba bat Santoñara joan zen gerra garaian, gudariekin, eta Madrilen kartzelaratu zuten. Donostiako osaba izeba batzuek ere alde egin zuten Donostiatik, beldurrez, jende askok egin zuen ihes gerraren beldur.

### **676. Ganadua ez, baina babarrun zakuak ezkutuan (LGA-062/017)**

Ganadua izkutatu beharrik ez omen zuten izan gerra garaian, baina bistan ere ez omen zuten uzten, badaezpada. Babarrun zakuak-eta ezkutatu izan zituzten, bestela udaletxera eraman behar izaten baitzen jasotakoaren zati bat. Etxeko errenta dirutan eta kapoietan ordaintzen zuten. Natik kontatzen du senarra zenaren txahalari buruzko istorio bat.

### **677. Eguzkitzazelaiko ermandadea (LGA-062/018)**

Ganadu ermandadea zuten auzoan, txabola batean elkartzen ziren, Eguzkitzazelaiko ermandadea deitzen zieten. Hogeita lau baserri elkartzen ziren ermandadean. Juliok ganaduaren balioari buruzko azalpenak ematen ditu.

### **678. Legazpiko lantegi eta tabernak (LGA-062/019)**

Patrizioen lantegia eta paper-lantegia bakarrik zeuden garai batean Legazpin. Gerxeago beste tailer txikiago batzuek ere zabaldu zituzten, tabernak ere baziren.

### **679. Mutilak santa eskean Brinkolara (LGA-062/020)**

Mutilak neguan auzoan bertan elkartzen ziren, udan erromeria batetik bestera ibiltzen baitziren. Neguan kartetan jolasten zuten, musean-edo, meriendatu, eta etxera erretiratzen ziren. Urte batean santa eskean irten ziren, trenez Brinkolara joan eta bertan aritu ziren kantuan.

### **680. Mutilak musean, neskak zinean (LGA-062/021)**

Janaria saltzen zuten bi kooperatiba zeuden Legazpin. Tabernak, berriz, ugari: Txoko, Toki-Alai, Andres Enea... Igande arratsaldeetan zinera joaten zirela dio Natic, Ibaiondo zinera. Mutilak Eguzkitza baserrian bertan elkartzen ziren, jokoan aritzeko, musean-eta.

### **681. Hitanoa eta erreberentziak (LGA-062/022)**

Lagun artean eta neba arreben artean hika aritzen zirela dio Juliok, Natic dio bera hika trabatu egiten zela, eta zuka gehiago aritzen zela. Gurasoei zuka egiten zieten biek, baita aitona-amonei ere, eta apaizari, berorika. Elizak jakinarazpenik egiten bazuen kalean zehar ibiliko zirela olio santuarekin edo jauna hartzeko deia eginaz, makurtu egin behar izaten zuten elizakoak pasa arte, erreberentzia gisa. Konfesatzera ere sarri joan ohi ziren.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
2024-05-06

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com